

# Vercors

## itsasoaren isiltasuna

itzulpena: Josu Zabaleta hitzaurrea: Iban Zaldia ilustrazioa: Ramon Zabalegi



BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

VERCORS

# itsasoaren isiltasuna

eta beste kontakizun batzuk

Itzulpena: Josu Zabaleta

Hitzaurrea: Iban Zaldúa

Ilustrazioa: Ramon Zabalegi

# AURKIBIDEA

DENBORA ERREALEAN

HITZAURRE GISA

ITSASOAREN ISILTASUNA

EGUN HARTAN

AMETSA

EZINTASUNA

ZALDIA ETA HERIOTZA

VERDUNGO INPRIMERIA

# DENBORA ERREALEAN

IBAN ZALDUA

Zalantzarik gabe, itzulpengintza literarioaren aurrerakada XX. eta XXI. mendeko euskaldunoi gertatu zaigun gauza pozgarrienetako bat da. Ez bakarrik jauzia ikaragarria izan delako gaztetan behin baino gehiagotan pairatu behar izan genituen itzulpen ortopediko haiekiko, baizik eta abagune ederra suertatzen delako bestela oharkabean pasatuko litzaizkigukeen lanak ezagutzeko eta gozatzeko. Niri, behintzat, horixe gertatu zait *Itsasoaren isiltasuna eta beste kontakizun batzuk* bilduma honekin, eta gainontzeko irakurleei, Hegoaldekoiei behintzat, berdin gertatuko zaiela espero dut –irakurle frantses-euskaldunak lan honen berri izango duela imajinatzen dut, eta, izan ere, arazorik gabe egin diezaioke ezikusia hitzaurre honi, ezaguna egingo baitzaio kontatzen dudan guztia; hegoaldearrak, berdin, nahiz eta kasu horretan nik gomendatuko niokeen, hitzaurre ia guztiekin egiten dudan bezala, liburua amaitu *ondoren* irakurtzea, sekula ez aurretik...–.

Zer esanik ez, banuen frantziar literatura garaikidearen klasiko txiki horren aditzea, besterik ez bazen horrengan oinarritutako izenburu bereko film ezin fidelagoa zela medio (Jean-Pierre Melville, 1949), Nouvelle Vague mugimenduaren aitzindari izan zena, ez alferrik. Baina Josu Zabaletak Booktegi argitaletxearentzako ondu duen itzulpen honengatik izan ez balitz, agian liburua irakurtzeke geratuko nintzatekeen. Eta pena izango litzateke, merezi duelako, eta asko – Zabaletak Le Livre de Poche-ren edizioa erabili du oinarri gisa itzulpena ontzeko–.

Merezi du, alde batetik, bildumari izenburua ematen dion ipuin luze edo *nouvelle* hori – ipuin luzeekin sekula ez dakit ze puntutan, ze orrialde kopurutik aurrera gaintitzen dituzten generoaren mugak, nahiz eta ni, ipuingintzaren abertzale on legez, genero horretakotzat jotzeko joera daukadan beti, badaezpada ere–, eta ondorengo gainontzekoak ere fikziozko pieza nabarmenak direlako, edozein zirkunstantzia eta garai historikotan gozatzeko aproposak: “Egun hartan”, “Ametsa”, “Ezintasuna”, “Zaldia eta heriotza” eta “Verdugo inprimeria”, horiek guztiak argiki narrazio laburraren generoaren alorrekoak. Bitxia irudi dezakeena kontuan hartuta egilearen estreinako lan literarioak direla. Egia da ipuin horiek idatzi eta argitara eman zituenerako Jean Bruller, alias Vercors, ez zela jada hasiberri bat –1902an jaio zen eta, ondorioz, lehenengoa kaleratu zuenerako, 1942an, bazituen berrogei urte–, eta ordurako emanda zituela urratsak publizista, ilustratzaile eta marrazkigile satiriko gisa –1926an, esaterako, aldizkarietan kolaboratzeaz gain, *Indarkeriazko heriotzarako 21 errezeta praktiko* albuma kaleratu zuen, gerra aurretik argitaratu zuen lan grafiko ezagunena aipatzearren–, eta ondo erlazionatuta zegoela Frantziako literatur munduko zenbait figurarekin, André Maurois edo Pierre Lescure bezalakoekin alegia. Baina, argitara eman ez zuen nobela sentimental bat alde batera utzita, “*Itsasoaren isiltasuna*” izan zen hitz soileko literatur lan bati arrakastaz ekin zion lehenengo aldia. Eta nolako arrakastaz: zalantzarik gabe, eta ondoren ere idazten eta argitaratzen –marrazten bezala– jarraitu zuen arren, bere lanik ezagunena izaten jarraitzen du. Hainbeste ezen “one hit wonder” literariotzat har baitaiteke Vercors, kritikariek bere ondorengo obrak aldarrikatzeko egindako

ahalegin guztiak gora-behera –besteak beste 1952ko *Animalia desitxuratuak* eleberria, gizatasunaren mugei buruzko, esango nuke, gaurkotasun handiko fabula bat, eta 1967ko *Isiltasunaren bataila*, okupazio urteetan zentratutako memoria-liburua–. Vercorsen konpromiso politikoak, bestalde, tinko eutsi zion hurrengo urteetan, 1956an Partidu Komunistarekin apurtu zuenean –Hungariako inbasioaren aurkako protesta gisa–, edo 1960an *121en manifestua* sinatu zuenean, Aljeriako gerrarekiko intsumisioaren alde.

Bestetik, liburuak merezi du ipuin hauek ez soilik lan literario onak direlako, baizik eta, orobat, “denbora errealean” idatzitako literatura konprometituaren adibide bikainak direlako. Badago defendatzen duenik gatazka politikoen edo belikoen testuinguruan idatzitako literatur lanek, garaiko tirabiren eta jarrera hartzeko premien ondorioz, kalitate eskasa izateko joera daukatela, edo bizkorregi iristen dutela iraungitze data; *ondoren* idatzitako fikzioa izan ohi dela hobe, hots, denborak perspektiba pixka bat eman duelarik. Hori defendatzen du, zeharka bada ere, Andrés Trapiellok Espainiako Gerra Zibilaren inguruko *Las armas y las letras* bere saiakera klasikoan, edo Ricardo Menéndez Salmón idazleak *El corrector* nobelan, aldarrikatzean “literatura ona ekaitzaren ostean idazten dela beti”. Ipuinok irakurtzea nahikoa da iritzi zabaldu hori zalantzan jartzeko, pixka bat gutxienez. “Itsasoaren isiltasuna” eta bilduma honetako ondorengo lanak oso zirkunstantzia historiko konkretuetan idatzi eta, ez neke gutxirekin, argitaratu eta zabaldu zirelako: 1940 eta 1944 artean naziek okupatutako Frantziarenean –eta Vichyko erregimenaren pekoan, zer esanik ez–, edo justu ondoren; “Itsasoaren isiltasuna” 1941eko urrian datatuta agertzen da, eta ipuinik berriena “Verdugo inprimeria” litzateke, gerra amaitu eta berehalakoa, 1945eko abuztukoa hain zuzen ere. Gainera, erresistentziaren literaturaren ikur bihurtu ziren berehala, lehenengoa batez ere, nahiz eta ez polemika gutxirekin.

Jakina den bezala, 1940ko maiatza eta ekaina artean armada alemaniarrek Frantziari eraso egin, eta, *Blitzkrieg* labur baten ostean, errepublikaren errendizioa lortu zuten. Testuinguru horretan, Jean Bruller, urte batzuk lehenago bere posizio antimilitaristak abandonatu zituen, landara erretiratu zen, herrixka bateko aroztegi batean lan egitera: beste intelektual frantses batzuk bezala, erregimen berriarekin ez kolaboratzera deliberatuta zegoen, eta okupazioak jarraitzen zuen bitartean ezer ez argitaratzera. Baina Erresistentziak aurrera egin zuen neurrian, Parisera itzuli eta alemaniarren kontrako “fronte kulturean” parte hartzen hasi zen, aurretik aipatutako Lescurerekin Éditions du Minuit argitaletxe klandestinoan fundatuz, besteak beste. “Itsasoaren isiltasuna” izango zen, hain zuzen ere, 1941ean idatzi eta 1942an, neke handiz, kaleratuko zuten lehen lana, zeinaren ostean egile ezagunago edo ezezagunagoen beste hainbat argitaratu eta banatu baitziren, beti ezizenez sinatuak; Vercors izan zen Bruller-ek hautatutakoa, Alpeurreko mendigune bati erreferentzia eginez –garai horretako pseudonimo askok jite geografiko-nazional hori hartu zuten, idazleen abertzaletasunaren ikur gisa; hala, Jean Guéhennek Cévennes ezizenarekin sinatu zuen Éditions de Minuiterako bere ekarpena, François Mauriacék Forez bezala, etab.–. Orduz geroztik, lan grafikoak sinatzeko bere jatorrizko izena erabiltzen jarraituko zuen arren, Vercors bezala sinatuko zituen bere lan literarioak.

*Nouvelleak* arrakasta izan zuen berehala –salbuespenezko garai haietan zerbait arrakastatzat har zitekeen neurrian–: argitaletxeak inprimatutakoez gain, kopia berriak hasi ziren laster eskuz esku pasatzen, eta De Gaullek Britainia Handian berrinprimarazi zuen –ale horietako asko erresistentziarako arma eta hornigaien bidalketekin batera igortzeko, abioietan-eta, edo

aipatu filmaren lehenengo eszenak erakusten duen gisara—; berehala izan zuen, orobat, ingeleserako itzulpena ere, Cyril Connollyren eskutik. “Itsasoaren isiltasuna”-ren harrera, edonola ere, polemikoagoa izan zen atzerrian: Frantzia erresistentziako —eta erresistentziaren aldeko— lantzat hartu bazen ere, kritiko batzuek, ezbaian ipini zuten egile ezezagunaren konpromisoa kausaren alde; bat edo bat atzean propaganda alemaniarra egon zitekeela espekulatzera iritsi zen, batez ere ofizial alemaniarraz ematen duen erretratu “sinpatikoagatik” —badago espekulatzeko duenik Ernst Jünger idazlea egon daitekeela pertsonaiaren oinarrian, haren frankofilia agertu baitzuen nolabait garai bertsuan, 1942an argitara eman zuen Frantziaren inbasioaren inguruko *Lorategiak eta errepideak* egunerokoan, baina datek ez dute guztiz bat egiten, “Itsasoaren isiltasuna”, testuaren amaieran dagoenari kasu eginez gero, 1941ean idatzi zelako—. Edonola ere, polemika hori datu esanguratsua iruditzen zait, lanaren kalitate literarioaren alde hitz egiten duen neurrian: istorioaren irakurketa ez da guztiz ezbaikoa, obra erabat panfletario batean gertatuko litzatekeen bezala, eta zuri-beltzeko manikeismoan erori orde, grisen eremuetan garatzen da. Literatura ona mugitu ohi den horietan, hain zuzen ere.

Harreraren inguruko eztabaida horiek hobeto ulertzeko urte batzuk geroago Jean-Paul Sartrek *Zer da literatura?* lanean “Itsasoaren isiltasuna”-ri buruz esan zituenak hartuko ditugu. Berehala irakurriko duzun bezala, ipuinaren ardatza bi frantsesek, gizon zahar batek eta bere iloba gazteak, etxean “apopilo” daukaten ofizial alemaniarren aurreko erresistentzia pasiboa da, eta erantzun hori, lana idatzi zen garaian, 1941ean, argia eta garbia zen, baina 1942rako, hots, kaleratu eta zabaldu ahal izan zenerako —erresistentzia gaullistaren eta komunistaren ekintza armatuak gora egiten ari ziren testuinguruan— ez zen, akaso, nahikoa sendoa. Sartrek dioen bezala:

Bitxia da nola *Itsasoaren isiltasuna*, lehenengo orduko erresistente batek idatzizako obra, zeinaren helburua argi eta garbi genekusan, etsaigoa baino ez zuen aurkitu New Yorkeko, Londresko eta batzuetan are Aljerreko erbesteratuen inguruneetan, egilea kolaborazionistatzat jotzeraino. Kontua da Vercorsek ez zuela publiko hori buruan. Zona okupatuan, kontrara, inork ez zuen zalantzarik izan egilearen helburuei buruz, ezta haren idatziaren eraginkortasunari buruz ere: guretzat idazten zuen. (...). Hartara ez da *egiaren* izenean hobetsi behar ditugula anglosaxoien propagandak egunero sortzen zituen irudiak. Baina metropoliko frantses batentzat Vercorsen nobela zen *eraginkorrena*, 1941ean. Etsaiaren eta norberaren artean suzko hesi bat dagoenean, blokean epaitu beharra dago hura, gaizkiaren haragitzea balitz legez: gerra guztiak dira manikeismo bat. Ulergarria da, beraz, Ingalaterrako egunkariak denborarik ez galtzen ibiltzea armada alemaniarrean alea lastotik bereizteko. Alderantziz, herri garaitu eta okupatuek, garaileekin nahastuta zeudenek, gizakitzat hartzera berrikasten dute, ohituraren eta propaganda trebe baten eraginez. Gizaki onak edo gaiztoak; onak *eta* gaiztoak aldi berean. 41ean soldadu alemaniarrek ogroen gisa aurkeztuko zizkien obra batek barregura emango zien, eta helburua huts egingo zuen. 42aren amaieratik *Itsasoaren isiltasunak* bere eraginkortasuna galdu zuen: gerra berriro hasi zen gure lurraldean: alde batetik, propaganda klandestinoa, sabotajeak, trenak errailetatik ateraraztea, atentatuak; bestetik, etxeratze-aginduak, deportazioak, espetxeratzeak, torturak, bahituen exekuzioak. Suzko hesi batek banatu zituen atzera alemanak eta frantsesak; ez genuen gehiago jakin nahi gure lagunei begiak eta azazkalak erauzten zizkieten alemanak nazismoaren konplizeak ala biktimak ote ziren;

haien aurrean ez zen nahikoa isiltasun harro bat gordetzearekin, gainera haiek ez zuten toleratuko ere: gerraren bihurtze horretan haien kontra ala haien alde egon beharra zegoen (...). Derrota gertatu eta urte eta erdi geroago, [nobela] bizirik zegoen, garrantz, eraginkor. Hemendik mende erdira ez du inor suhartuko. Gaizki informatutako publiko batek 1939ko gerraren inguruko ipuintxo atsegin eta ia hits bat bezala irakurriko du. Ematen du bananek gustu hobea dutela bildu bezain pronto: izpirituaren obrak, berdintsu, lekuan bertan kontsumitu behar dira (*Qu'est-ce que la littérature?*, Paris 1948, 79-82 orr.).

Sartrek iradokitzen duena interesgarria da, nahiz eta 1948ko bere jarrera biziki zorrotzaren atzean badagoen, akaso, okupazio garaian agintari naziekiko garatu zituen joera –esan dezagun xuabe– *moldakorrak* ahanzturan uzteko ahalegintxo bat, bere burua erresistente kutsugabe gisa aurkeztuz. Edozein modutan ere, eta filosofo frantziarraren iritziaren aurka, ez dut uste iraungitze data iritsi zaionik Vercorsen fikzioari, agian suhartzerik ez dugulako jada behar, Sartrek aldarrikatzen zuen bezala. Bai, irakurleak ahalegin bat egin behar du Vercorsen ipuinen garaian eta testuinguruan kokatzeko: Txekhoven narrazioekin, *Harrotasuna eta aurrejuzkuakekin* edo *On Kixote Mantxakoarekin* egin behar den bezalaxe. Baina ez dute horregatik balio literario gutxiago: ez “Itsasoaren isiltasunak”, inbaditzaile alemaniarren aurreko erresistentziarik oinarritzkoena duena hizpide, ezta hurrengoek ere, bestelako kontuak jorratzen dituztenak –“Egun hartan” izenburukoak, gerrak eta errepresioak eragindako familia-banaketena; “Ametsa”-k, deuseztapen esparruena, noiz eta 1943an alajaina; “Ezintasuna”-k eta “Verdugo inprimaria”-k, modu ezberdinetan, juduen kontrako pertsekuzioari egiten diote erreferentzia; “Zaldia eta heriotza”-ren gaia, aldiz, okupazioa bera da, alemaniarren inbasioaren lehenengo uneak alegia, eta badu ukitu umoristikorik–.

Are gehiago, kasu honetan gatazkaren ondoren idatzi zen literatura frantziar askok baino balio ez soilik literario, baizik eta balio *historiko* gehiago daukala esatera ausartuko nintzateke, gerraosteko literatura horren zati handi bat –filmek eta abarrek bezala– “Frantzia erresistentearen” mitoa finkatzera bideratuta egon zen neurrian –edo, beste hitz batzuetan esateko, frantziar nazionalismoaren berreraikuntzan laguntzera, Vercorsen “Verdugo inprimaria” ipuinean horren kaltetuta sumatzen dugun nazionalismo hura hain justu ere–. Izan ere, soilik berriki, azken hamarraldiotan hasi da paradigma hori berraztertzen, eta azaleratzen frantziar guztiak ez zirela, ezta gutxiago ere, erresistenteak edo matxinoak izan, kolaborazionismoa uste baino hedatuago egon zela, eta frantziarren erantzukizuna, juduen deportazioan eta, ondorioz, Holokaustoan, ez zela hutsaren hurrengoa izan. Hots, ikuspegi ilunago bat, Patrick Modiano bezalako egileen obran behin eta berriro aldarrikatu dena, gauza erlatiboki berria balitz bezala: ba ikuspegi hori badago, gordin, memoriaren galbahetik igaro gabea, Vercorsen ipuinetan; horren antz handiegia hartu diodan lana, garai bertsuan idatzitako baina askoz ere geroago arte berreskuratu ezin izan zen Irène Nèmirovskiren *Suite frantsesa* nobela amaitu gabean aurki daiteke, nik uste. Hortxe, beraz, pieza hauen beste bertuteetako bat, José Donosok esan zuen hura gogora ekartzen didana: “arte lan batek eragin dezakeen esperientzia zirraragarrienetako bat garaikidetasuna *haragitzean* datza, ez hura *formulatzean*”.

Beraz, bi elementu dauzkagu ipuin hauetan funtzionatzen eta elkarren artean eragiten: alde batetik, garaikidetasuna, hots, “denbora errealean” idatzitako lanak izatea, zirkunstantzia historiko konkretu batzuen ispilu gisa –eta ez, nobela historikoak egin ohi duen bezala, iragana



modu irensgarriago edo “entretenigarriago” batean berreraikitze formula gisa-. Eta, bestetik, eta nahiz eta obraren motorra militantismoa izan –kasu honetan Frantziaren liberazioaren aldekoa-, asmo literario bat: balio literario bat izango zuen lan bat ontzea alegia, panfletismo hutsean geratuko ez zena. Horrek ematen die balioa ipuin hauei, eta horrek atzeratzen die, nire ustez, iraungitze data.

Gurean ere, ETak jarduera armatuari utzi zionetik, egingo den atzera begirako literaturaren aldeko ahotsak, euskal literaturan “aro berri” bat irekitzen zela aldarrikatu dutenak, ez dira eskas izan, aurretik idatzi dena gutxietsiz nolabait. Eta nik esango nuke ez genukeela gure iragan literarioa ahaztu behar, gai horri –eta beste batzuei- dagokionean: ez ditugula “denbora errealean” Ramon Saizarbitoriak, Bernardo Atxagak, Jokin Muñozek, Arantxa Urretabizkaiak, Luistxo Fernandezek, Xabier Montoiak, Jose Luis Otamendik edo Juanjo Olasagarrek kontuari buruz idatzi zituztenak ahaztu behar. Adibidez. Ez baitut uste, fikzioari dagokionean, “ekaitzaren ostean” etorriko denik, derrigor, literaturarik bikainena edo oparoena: ondoren, lehen bezala, gauza onak, erdipurdikoa eta txarrak idazten eta argitaratzen jarraituko dira. Eta gaizki egingo genuke iragan literario hori alde batera utziko bagenu. Hori ere gogorarazi dit Vercorsen lanak.

Frantsesek oker egingo lukete, beraz, liburu hau ahaztuta, berritasun errebisionista bezala azken urteotan aurkeztu diren lan asko gorai patzearen kariatz: Vercorsengan hori guztia zegoelako, zuzen eta gordin, literatura –iraungo zuen literatura- idazteko asmoarekin batera. Eta guk ere gaizki egingo genuke orain, baldin eta Booktegitik eta Josu Zabaletak eskaintzen diguten aukera eder honi muzin egingo bagenio.

# HITZAURRE GISA

## ETSIPENA HIL

Oraindik ere ez dut oso ongi ulertu nola gertatu zitzaigun, ez niri ez beste guztioi. Ez naiz ulertzen saiatzen ere, bestalde. Badira mirari batzuk oso naturalak direnak. Onartzen oso errazak, nahi dut esan. Nik pozik hartzen ditut; eta horietakoa izan zen hau ere. Askotan pentsatzen dut horretan. Samurtu egiten naiz, irribarre egiten dut eta nagiak ateratzen ditut. Badakit zer aurkiturik izango litzatekeela seguru asko. Zertarako, ordea? Erdi-ezjakintasun hau ongi datorkit, alafede.

Zein bizkor galtzen duten kolorea oinazetik sakonenek! Orain dela hogeita hamar hilabete hil egin nahi nuen. Baginen banaka batzuk hiltzea nahiago genuenak. Amildegi okaztagarri bat baizik ez genuen ikusten aurrean. Nola bizi han? Zergatik itxaron asfixia higuigarri bati? Ai! topatuko bagenu harkaitz desertu bat, uharte abandonatu bat, gizakien nahaste nazkagarritik urrun... Zein arrotz dirudien hark gaur, itxaropena izateko honenbeste arrazoi dugunean! Itxaropena, etsimena, ez dira zentzuz jokarazten duten gauzak, ez zentzuzkoak ere. Etsimenak hartuak geunden, burutik oinetara. Eta, aitortu beharra dago: ordu arte ikusiak, oraindik ere ikusten ari ginenak, ez zigun askorik laguntzen etsimen hura uxatzen.

Zeren ez baikeunden denak etsita. Ez horixe! Handik eta hemendik etorrita hondamendiak jantoki nahasi hartan bildu eta guduan parte hartu ez izanak baizik berdintzen ez gintuen ofizial dozena haren baitan, ez zen etsimena gehien nabarmentzen zen gauza. Bakoitza bere buruaz kezkatzen zen batez ere. Eta aurrerako bide guztiak itxita ez bazituen behintzat, gainerakoak ez zuen asko-askorik larritzen. Uztail hartan Laval-Talleyrand mitoa zebilen zabaldurik: Waterloo ondoren, gizaje doilor batek urte gutxi behar izan zituen beldurra eragiteko moduko Frantzia bat berreraikitzeke; beste doilor batek beste horrenbeste egingo zuen orain ere. Itxarotea aski.

Bazen han gizon bat Randois kapitaina deituko dudana. Ez nuen gustukoa. Desegigoaren aurretik ere etsaigoa eragiten zidan haren edozerk: haren burgoikeriak, monarkiaren aldeko iritziek, jendeari zion mesprezuak. Harekin ez hitz egiten saiatzen nintzen. Beldur nintzen ez ote zuen, hitz batez, Errepublikaren zoritxarrak, tiraniaren garaipenak bere baitan seguru piztu behar zioten atsegina aditzera emango. Horrelakorik ezin izango nukeen onez eraman, ihardetsi gabe. Nire nerbioak ez zeuden sendo-sendoak garai hartan. Eskerrak berak ere ez zuen ia hitzik egiten. Isilik jaten zuen, bere sudur luze gakotua zamaurantz makurturik. Gure otorduen bilbea osatzen zuten etengabeko eztabaida politiko ergelek gutxiespena baizik ez zuten jasotzen harengandik; iraingarritzat hartuko nukeen, neuk ere beste horrenbeste egingo ez banu. Gure komandante lapur gizajoa, Gard-eko kontseilari nagusia, izaten zen norgehiagoka haietako mahaiburu; bere begi handi itzaliez babesten zituen. Aurpegiagatik eta azentuagatik, Raimu belaxkatu bat zirudien, Fratellinitarretako bat ere bai, hilda zegoena, bere gaiztakeria barrengarriak notario arrandiatsu baten itxuraren atzean gordetzen zituena. Urduri aztertzen zuen etorkizuna, bere zurikeria koipetsuarentzat hartan zer leku zula zezakeen kezkatu. Egun batean esan zuen:

–Ikusten, Randois? Zure Maurras hori Mariskalaren alde jarri da erresalburik gabe –hitz egiten zuenean, haren ahotsak bazirudien ito egin behar zuela ezpain gurien artetik jario behar ziola zirudien ur trago batean–. Ni aspaldiko erradikala naiz, baina aberria zoritxarrean dagoenean, alde batera utzi behar norbere iritzia. Zure Maurras hori ederki, oso ongi. Zer uste duzu iritziko diotela gure garaileek?

Randois kapitainak sudurra jaso zuen. Eta haren begiak, haren begi urdin hotzak (niri ankerrak iruditzen zitzaizkidan), nire gainean pausatu ziren. Bai, nire gainean eta nire ondoan zegoen Despérados kapitainaren gainean; eta erantzun zuen:

–Fritzek? Hezurretaraino zukutu, hori egingo digute.

Mugarik gabeko tristura bat zuen haren ahotsak. Harritu egin ninduen, begiradak areago, hala ere, hitzek baino. Hala bada, gure aldera bildu zitzaigun; bakartiongana, mutuongana ondoratu zitzaigun. Hark hobeto ulertu ninduen ni, nik bera baino. Gaur egun badakit ez nintzela behar bezain ernea. Zeren herrialde osoaren irudia baitzen ofizialen jantoki hura; koldarrek, maleziatsuek eta gaiztoek baizik ez zuten jarraituko erasiaka; gainerakoek isilik egotea baizik ez zitzairen geratuko protesta egiteko. Randoisek ezagutu egin gintuen.

Ni isilik nengoen. Despérados kapitaina, hala ere, isilago ni baino. Hura bai, parte hartua zen “gure” guduan: itxura hutsezko guduan, bi armistizioen artean atrapatutako hiru egun haietan, ohore-dominez estalitako gizon batzuen doilorkeria barregarriaz bizitza oso bateko esperientziak baino gehiago irakatsi zigun parodia desohoragarri hartan. Hasieratik bukaeraraino izan zen komedia lotsagarri eta anker haren lekuko. Bere eskuetan eduki zituen, lotsarik gabe utzi baitzizkioten eskuetan, froga higuigarri zikinak: duintasunik gabeko buruzagi batek, hondamendiaren egunik makurrenetan, bere anbizioarako bideak prestatzeko izan zuen arduraren frogak. Anbizio zitala. Hark zurbildu egin zuela esango litzateke, betirako zurbildu ere. Zurbil eta zurrun zegoen, burua biratzeko bizkarra ere biratzera behartzen zuen zauri zahar batek zurrundurik; eta zezenketari ile-zuritu batena bezalako aurpegi ederra bitan banatzen zion eta, bide batez, monokulo batek bezala, eskuineko begia zabalik edukiarazten zion orban batez are zurbilago. Eta horrek guztiak aurpegiera bikoitz bat ematen zion, sarkorra eta dominatzailea. Aste horietan guztietan ez zuen irribarre bat egin. Inoiz ez nuen barrez ikusi, behin salbu.

Bai, gaur egun ere ahaleginak egin behar ditut ia ulertzeko, garai hartan ulertzen nuen bezala, gizon bat egon zitekeela aste osoan irribarrerik ezin egiteraino lurjoa. Neu ere halaxe nengoen, ordea. Herrestan eramaten genituen gure oinetako-zola nagiak, armistizioaren ondoren kokatu gintuzten eguzkiak erretako herritxo hartako kale bakarrean. Ezin genuen handik irten. Bi taberna, pertsona adeitsu batek utzitako lorategitxo bateko aulkia edo gure gela, ez genuen beste aukerarik. Nik, nire aldetik, nire gela aukeratu nuen. Ia irten ere ez nintzen egiten handik. Nire desanimua desanimuz elikatzen zen hantxe, zer eginik ez izate horrez gizentzen zen. Gaur egun seguru nago bizimodu oinazegarri bera egiten zutela Randoisek, Despéradosek ere. Horretantxe egon litezke, geure gogoz kontra, barnean harresiturik geunden isiltasun infernuzko haren arrazoiak.

Nire gela txikia zen. Txikia zelako aukeratu nuen. Goi samarreko leiho estu batetik teilatuetarantz jotzen zuen. Hala bada, ziega baten modura-edo zen niretzat, neska gazte batek bere arretaz eztituko zukeen ziega bat. Ordutan eta ordutan egoten nintzen han, horma-tarte estu hartan. Preso horma haien artean, gogoetetan bezala: uxatzeko gauza ez nintzen gogoeta soil izugarrietan. Gustatu egiten zitzaidan horma haiek nire gainean astun sentitzea, oi handitua behatz urduri batez zapaltzea gustatzen

den bezala. Gogo-osasunerako ez zen batere ona, hori seguru. Baina ez tabernarik taberna ibiltzea baino txarragoa, ez denen koldarkeria ikustea baino txarragoa.

Azkenerako, otorduetarako baizik ez nintzen irteten. Ez nuen bide luzea egin behar izaten. Gure ofizialen jantokia zegoen etxea nirearen aurrez aurre zegoen, kaletxo estu harritsu baten beste aldean. Otordu horiek oso biziak eta zaratatsuak izaten ziren. Niretzat, goibelak. Antzarak bezala gizentzen gintuzten. Intendentzia porrotak jo gabe zegoen oraindik, eta hainbat jaki eskaintzen zizkigun otordu bakoitzean; gutako batek aurkitu eta “beretutako” sukaldari militar diplomadun harropuzt batek, ofizial guztiek miresten zuten saltsa nazkagarri baten azpian zuhurki ezkututzen zituen jaki haiek. Zorionak ematen genizkion elkarri. Amultsutasunik tolesgabeena zen nagusi galoidun haien artean, elkarrengandik bereizi orduko elkarri erraiak ateratzen bazizkieten ere. Denak ziren elkarren arerio, honegatik edo hargatik. Hondamendiak ez zien kendu lehentasunetarako zaletasuna, handik gutxira lehentasun guztiak galdu behar bazituzten ere. Beren arteko etsaigo hori baino gauza materialagorik ere bazen. Batzuk berehalaxe ohartu ziren bazegoela zer irabazirik desorganizazio orokor hartan, gauzak kontrolatzeko ezintasun hartan. Otorduetan errespetu zintzozko adierazpenik sutsuenak egiten zitzaizkiona, huraxe zen gorrotatuena, gure Fratellini-komandantea, harixe ematen baitzion bere graduak lapurretarik oparoenak egiteko aukera. Bagenekien haren ganbara txokolatez, pastaz, arrozez beteta zegoela. Nik ere gorrotoa izan beharko niokeen gizon hari. Ez dakit zergatik, ordea, ez nuen lortzen gorrotatzerik. Baliteke izatea doilorkeria hain nabarmen zuelako berezkoa, non tolesgabea bilakatzen baitzen horrexegatik. Baliteke izatea banekielako –berak baino lehen– hiltzera zihoala. Halako uremia-puntu batera zegoen iritsita, non berehala jo behar baitzuen krisiren batek. Lo geratzen zen, ez bakarrik bazkaldu ondoren, ez bakarrik plateretik platerera bitartean, baizik eta baita mokaduen tartean ere, segundo batzuk, sardexka jasota zuela. Besteak barrez ikusten nituen. Errukarria eta tragikoa zen. “Ai, Jaungoikoa –pentsatzen nuen– horni dezala ongi bere ganbara hori”. Eta hala ere neure buruari ez nion barkatzen erruki hori.

Despérados ondoan nuenean pozik egoten nintzen. Ez nintzen horren bakarrik sentitzen. Ez garrantzizko hitzik inoiz elkarrekin trukatu genuelako. Baina batzuetan, herriak bere buruzagitzat zeuzkan gizon haien axolagabekeria tamalgarriaren beste erakusgarriren bategatik barrenak disgustuz ondoezten ari zitzaizkidala sentitzen nuenean, lepo zurruna nireganantz bihurtzen, begi handitua niregan pausatzen ikusten nuen. Halaxe gure begiradak gurutzatzen genituen, eta horrek bihotza arintzen zigun. Hortik aurrera ez genuen koaita gehiagorik kontatzen.

Goiz hartan, ordea, zertxobait gehiagotara iritsi zen. Kafea hartzera sartu nintzenerako han zegoen, bakarrik, bere kafea aurrean zuela. *Petit Dauphinois* irakurtzen ari zen. Zoritxarreko hamabost egun haien ondoren iritsi zitzaigun lehenengoetakoa zen. Eta horretan, bat-batean luzatu zidan, isilik eta amorruz, hatz lodiaz editoriala seinalatuz, eta irakurri bitartean, nire gainean eduki zituen bere begi argitsuak. Bai, irakurrarazi zidanak espero izateko guztia gaintzen zuen. Gizonen mesprezurik handiena izanda ere, frogarik ezean sinetsiko ez genukeena ere bai. Jeanne d’Arc, Santa Elena, Albion Gaiztoa aipatzen zizkiguten, besterik gabe (ez ahaztu lehenengo aldia zela). Hiru aste lehenago, Lys eta Somme ibaiek, odoletan eta usteldurik, itsasorantz zeramatzaten milaka teutoniar barbaroak aipatzen zizkigun zutabe berean gizon berberak gozamen sadiko batez, sinadura berarekin aipatu ere.

Zer esan behar nion nik? Ez nion ezer esan. Baina nire aulkira itzulirik barreari eman nion. Despéradosek, besoak mahai gainean jarri, eta barre egin zuen hark ere. Barre luze, zaratatsua, balantza pixka bat eginez. Zarata gozakaitz bat zen pozik gabeko alaitasun hura, ogi lizunduaren usaina

zerion gela hits hartan. Gero isildu egin ginen, eta jaiki egin ginen, elizatxoan gerran hildakoen aldeko meza batera joateko ordua genuelako. Izan zitekeen hunkigarria eta soila. Gorrotagarria eta barregarria izan zen. Apaiz-soldadu gazte, ikasgura eta handinahi batek egin zigun sermoia, sermoi hartan bere elokuentzia erakusteko parada zuelako pozik. Hileta-sermoi huts, puztu bat bota zigun, moldegabe samarra, gainera, talenturik ere ozta-ozta erakusten zuena.

Inoiz baino abailduago atera nintzen handik. Burumakur nindoan, Despéradosen eta isil-isilik gureganatu berria zen Randoisen artean. Bi lorategitako hormen artean, kaletxo belartsu batetik aurrera gindoazela, ezin izan nuen eutsi ia bularra mintzeraino estutzen zidan intziri haietako bat. Randoisek burua niregana biratu, eta adeitasunez irribarre egin zidala ikusi nuen.

–Nork bere basta –esan zuen, eta gure artean sarturik, beso banatatik heldu zigun.

Halaxe iritsi ginen ofizialen jantoki aurrera. Oraindik ez zen ordua. Lehendabiziko aldiz ez ginen elkarrengandik bereizi. Espaloi estuaren ertzean eseri ginen, eta berriro jausi zitzaigun gainera isiltasunaren pisua.

Orduantxe ikusi genituen lau ahatetxoak zetoze.

Lehendik ere ezagutzen nituen. Askotan egona nintzen begira lumatxa horizko pilotatxo barregarri haietako batari edo besteari, segundotxo batez ahots hauskor eta samurgarriz pioka aritzeari utzi gabe bide ertzeko ubideetan edo putzurik txikienean txaplaka. Behin baino gehiagotan lagundu zidan haietako batek bukatu ezinezko egun haietako minutu batzuk bizkorxeago, hainbesteko astuntasunik gabe, bizitzen. Eskertzen nien.

Oraingo honetan laurak ilaran zetozen, ahateen moduan. Kale nagusitik zetozen, herrenka eta arrandiatsu, bizi, erne eta militar. Pioka zetozen etengabe. Soinketalarien desfileak ekartzen zituzten gogora, beren ikurrina harrotasunez eramanez eta oso ahots faltsu batez indar handiz kantatuz. Lau zirela esan dut. Azkenekoa gazteagoa zen; txikiagoa, horiagoa, txitagoa. Baina inork halakotzat trata ez zezan ongi erabakia. Besteek baino gorago egiten zuen pioka; arauzko distantzia ez galtzeko hanke eta hegaltxoez baliatuz. Baina zaharragoek baldarki baina kemenez gainditzen zituzten harri kozkorrak, ibilera presatsua eragozten zioten behaztopak ziren harentzat. Egia esateko, muturrak hausten zituela, beste ezerk ez luke adieraziko zehazkiago horrelakoetan hari gertatzen zitzaiona. Sei pausoz behin muturra hausten zuen, eta jaiki, berriro abiatu, eta itxura militar eta larri batez presakatzen zen, nekerik gabeko oparotasun eta puntualtasun batez pioka jardunez, eta berriro aurkitzen zen mokoa hautsetan zuela. Halaxe desfilatu zuten, ahate-desfile baten ordena aldaezinean. Gutxitan egokitu zait horren gauza komikorik ikustea. Eta halaxe barrez entzun nion neure buruari, eta baita Despéradosi ere, baina ez goizeko barre itsusi hartaz. Despéradosen barrea sakona eta sana zen oraingo honetan. Eta Randoisen barre lehor samarra ere ez zen gozakaitza. Eta ahatekumeak, pioka jarraituz, kale kantoian biratu ziren, eta txikiena berriro ikusi genuen muturra hausten, desagertu baino lehen. Eta horretan, horra, Randoisek eskuak bizkarrean jarri zizkigun, eta gure gainean bermatu zen jaikitze, eta hori egitean behatzak estutu zituen, adeitasunez, eta min pixka bat egin zigun. Eta esan zuen:

–Bazkaltzera! Goazen. Aterako gara honetatik.

Horixe zen, hain zuzen, neu ere pentsatzen ari nintzena: aterako gara honetatik. Gezurra esango nuke hitz horiexek pentsatzen nituela esango banu. Hain beltza ikusten zen aldi hau baino are ilunagoak izan ziren mendeetan eta amairik gabeko aldi luzeetan pentsatzen ez nuen bezala; ezta hilketa haien artean, lapurreta haien artean, ezjakintasun fanatiko haren erdian, ankerkeria garaile haren erdian, ia mila urtez eskuz esku zuzi itzalkor bat igaroarazteko fraide batzuek behar izan zuten ausardia etsia, seta izugarria gogoratzen ez nuen bezalaxe. Ezta horrek, guztiaren gainetik, bizitzea merezi zuenik ere, gure patua hori bazen, eta horixe gure eginbehar bakarra handik aurrera. Egia da ez nuela horretan guztian pentsatu. Baina ondo ezagutzen duzun liburu baten azala ikusten duzunean bezalaxe izan zen.

Nola eraman gintuzten lau ahatetxo haiek, gure gogoaren ezkutuko zein bidetatik eraman gintuzten bat-batean gure etsimena makurra eta antzua zela ikustera? Ez dakit. Gaur, lerrook idazten ari naizela, badut tentazioa horretan sinbolo erraz eta erakargarri bat irudikatzeko. Baliteke ez huts egitea. Dena galdurik zutela uste izateko guk baino ere arrazoi gehiago zuten lehen kristauen begien aurrean gureek bezain komikoki desfilatzen zuten ahatetxoak gogoratu nituen beharbada oharkabea. Agian iruditzen zitzaidan lau ahatekume harro eta xalo haiek oso ongi parodiatzen zutela gizonen taldean daudenean dituzten sentimenduetako gauzarik txarrenak, edota baita haiengan diren gauzarik onenak ere. Eta merezi zuela bizitzea, zeren itxaro zitekeen egunen batean gauza oker horiek erauzi ahal izango direla, eta gauzarik onenak birlorarazi. Baliteke. Baina baliteke, areago, hori dena kausaren premietarako baizik ez aurkitu izana. Azken-azkenean nahiago dut misterioa. Badakit, hauxe da segurua, ahatetxo bixkor, martzial, samur eta barregarri haiei zor diedala egun ilun bateko pasadizorik ilunenean nire etsimena bizkarretik, kapa astunegi bat bezala, irristatzen sentitu izana. Aski da. Ez dut ahaztuko.

# ITSASOAREN ISILTASUNA

*Saint-Paul-Roux Olerkari erailaren oroitzapenez.*

Aparatu militarren erakuste handi bat izan zen aurrena. Bi soldadu, hasteko, biak ilehoriak, bat baldarra eta argala, bestea sendokotea, hargin-eskuduna. Etxeari begira egon ziren, sartu gabe. Geroago subofizial bat etorri zen. Soldadu baldarra zuen laguntzaile. Ustez frantsesa zelako batean hitz egin zidaten. Hitz bat bera ere ez nien ulertzen. Hala ere, libre zeuden gelak erakutsi nizkien. Pozik ziruditen.

Biharamun goizean, kabriolet militar gris, handi-handi bat sartu zen lorategian. Gidariak eta soldadu gazte mehe, ilehori eta irribarretsu batek bi kutxa eta oiha grisez bildutako zama handi bat atera zituzten. Gelarik zabalenera jaso zuten dena. Kabrioletak alde egin zuen, eta handik ordu batzuetara zaldi-hotsa entzun nuen. Hiru zaldizko agertu ziren. Haietako bat zalditik jaitsi eta harrizko eraikin zaharra ikustera joan zen. Itzuli, eta denak, gizonak eta zaldiak, lantegizat erabiltzen dudan bordan sartu ziren. Geroago ikusi nuen bi harriren artean iltzatu zutela nire arotz-mahaiko matxarda, hormako zulo batean, matxardari soka bat lotu ziotela, eta zaldiak sokari.

Bi egunez ez zen besterik gertatu. Ez nuen beste inor ikusi. Zaldizkoak goizean goiz ateratzen ziren beren zaldiekin, arratsean ekartzen zituzten berriro, eta goitegira jaso zuten lasto gainean lo egiten zuten beraiek.

Gero, hirugarren eguneko goizean, berriro etorri zen kabriolet handia. Gazte irribarretsuak metalezko kutxa handi bat bizkarrean hartu eta gelara eraman zuen. Ondoren, bere poltsa hartu eta ondoko gelan utzi zuen. Jaitsi eta, nire ilobari frantses txukunean mintzatu, maindireak eskatu zizkion.

Iloba joan zen atea zabaltzera, jo zutenean. Kafea atera berria zidan, gauero bezala (kafeak lo eragiten dit). Gela barrenean nengoen eserita, nahiko ilunpean. Ateak lorategira jotzen du, maila berean. Etxearen luzera osoan lauza gorrizko bazterbide bat dago, euria egiten duenerako oso eroso. Oin-hotsak entzun genituen, takoiek lauzatan egiten zuten zarata. Ilobak begiratu zidan, eta katilua mahaian utzi zuen. Nik eskuetan atxiki nuen nirea.

Gau iluna zen, ez oso hotza: azaro hura ez zen oso hotza izan. Isla erraldoia, kapela zapala, euritako berokia kapa baten moduan bizkarrean jarria ikusi nituen.

Ilobak atea zabaldua zuen, eta isilik zegoen. Atea hormaren kontraraino irekita zeukan, bera ere hormaren kontra zegoen, ezeri begiratu gabe. Nik kafea edaten nuen, zurrutatadxo txikitan.

Ofizialak, atetik, esan zuen: "Atsegin baduzue". Haren buruak agurtxo bat egin zuen. Isiltasuna neurtzen ari zela zirudien. Gero sartu egin zen.

Kapa beso gainean irristatu zitzaion, militarren moduan agurtu eta kapela kendu zuen. Nire ilobarenganantz bihurtu zen, irribarre arin bat egin zuen, soina pixkatxo bat makurtuz. Ondoren niri begiratu, eta erreberentzia sakonago bat egin zidan. Hark: “Werner von Ebrennac dut izena”. Pentsatzeko astia eman zidan, oso bizkor: “Deitura ez du alemana. Emigratzaile protestanteren baten ondorengoa ote?” Berak jarraitu zuen: “Sentitzen dut”...

Azkeneko hitz hori, arrastaka esana, isiltasunean erori zen. Ilobak atea itxia zuen, eta hormaren kontra bermatuta jarraitzen zuen, zuzen aurrera begira. Ni ez nintzen jaiki. Katilu hutsa harmoniumaren gainean pausatu nuen geldiro, besoak tolestu eta zain geratu nintzen.

Ofiziala berriro hasi zen: “Beharrezkoa zen, noski. Ahal izan banu, saihestuko nukeen. Nire laguntzaileak behar diren guztiak egingo ditu zuek lasai egoteko, nik uste”. Gelaren erdian zegoen, zutik. Sekulako handia eta oso argala zen. Eskua jasoz gero, sabaiko habeak ukituko zituzkeen.

Burua aurrerantz makurtu samarra zeukan, lepoa sorbalda gainean ez baina, bularraren hasieran landatua balu bezala. Ez zen konkorduna, baina itxura hori ematen zion. Aldakak eta bizkar estuak harrigarriak zituen. Aurpegia, ederra. Gizon-aurpegia, masailetan bi ildo handiz markatua. Begiak ez zitzaizkion ikusten, bekainek egiten zieten itzalak ezkutatuta. Argiak iruditu zitzaizkidan. Ilea horia eta malgua zuen, atzeraka botata, lanpararen argitan zetaren gisan distira egiten zuela.

Isilunea luzatzen ari zen. Geroz eta lodiagoa ari zen bihurtzen, goizeko erlinoa bezala. Lodia eta geldia. Nire ilobaren gelditasunak, nireak ere bai, zalantzarik gabe, astunago egiten zuten isiltasun hura, berunezkoa bihurtzen zuten. Ofiziala bera, nahasturik, geldi zegoen, harik eta, azkenean, haren ezpainetan irribarre bat ernetzen ikusi nuen arte. Haren irribarrea serioa zen, eta ironia arrastorik gabea. Keinu bat zirrimarratu zuen eskuaz; ez nuen ulertu zer esan nahi zuen. Haren begiak nire ilobarengan pausatu ziren; ilobak zurrun eta tente jarraitzen zuen; eta lasai-lasai ikusi ahal izan nuen haren soslai indartsua, sudur irten, mehea. Ezpain erdi-itxien artean, urrezko hortz baten distira ikusten nion. Azkenean begiak itzuli, eta tximiniako suari begiratu zion eta esan zuen: “Nik estimu handia diet beren aberria maite dutenei” eta burua kolpetik jaso eta leiho gaineko aingeru eskulpituari begiratu zion. “Nire gelara joatea gustatuko litzaidake orain –esan zuen–. Baina ez dakit nondik joaten den”. Nire ilobak eskaileratxora ematen duen atea zabaldu zuen, eta igotzen hasi zen, ofizialari begiratu ere egin gabe, bakarrik balego bezala. Ofizialak atzetik jarraitu zion. Hanka bat zurruna zuela ikusi nuen orduan.

Gelaurretik igarotzen entzun nituen, alemanaren pausoek korridorean oihartzuna egiten zuten, behin gogor hurrena ahul, ate bat zabaldu zen, eta ondoren itxi. Iloba itzuli zen. Berriro bere katilua hartu eta kafea edaten jarraitu zuen. Nik pipa piztu nuen. Minutu batzuetan isilik egon ginen. Eta nik: “Gisakoa ematen du behintzat, eskerrak”. Ilobak soinak jaso zituen. Nire belusezko jaka belaunetan hartu, eta hartan josten hasia zen ezin ikusizko adabakia bukatu zuen.

Biharamun goizean sukaldean gosaltzen ari ginenean jaitsi zen ofiziala. Beste eskailera batek hara ematen du, eta ez dakit alemanak entzun egin zigun ala ezustean hartu zuen bide hura. Atean geratu,



eta esan zuen: “Oso ondo igaro dut gaua. Zuek ere nik bezain ondo igaroko ahal zenuten”. Irribarrez begiratzen zuen sukalde zabalera. Egur gutxi genuenez, eta ikatza gutxiago, pintatu berria nuen; altzari batzuk eta kobrezko ontzi batzuk eta antzinako plater batzuk eraman genituen hara, neguan zehar gure bizitza hara mugatzeko asmoz. Hori dena aztertzen ari zen, eta hortz zuri-zurien ertza distiratzen ikusten zitzaion. Begiak, uste nuen bezala beltzak ez baina, urre-kolorekoak zituela ikusi nuen. Azkenean, sukaldea igaro eta lorategirako atea zabaldu zuen. Bi pauso egin eta biratu egin zen, gure etxe luze, apala, parralez estalia, teila arreduna ongi ikusteko. Irribarrea zabal-zabal egin zitzaion.

–Zuen alkate zaharrak esan zidan gazteluan izango nuela ostatua –esan zuen, arbola biluztuek maldan goraxeago begiztatzen uzten zuten eraikin handinahia esku-kolpe batez adieraziz–. Zorionak emango dizkiet nire gizoni, nahastu direlako. Askoz ere gaztelu ederragoa da hau hura baino.

Ondoren atea itxi, beiren beste aldetik agurtu, eta alde egin zuen.

Arratsean bezperako ordu berean etorri zen berriro. Kafea edaten ari ginen. Atea jo zuen, baina ez zen geratu ilobak atea zabaldu zain. Berak zabaldu zuen: “Beldur naiz traba egiten ez ote dizuedan –esan zuen–. Nahiago baduzue, sukaldetik sartuko naiz; hala, giltzaz itxi dezakezue ate hau”. Sukaldea igaro zuen, eta eskua kisketan zuela geratu zen une batez, janariak keztatzeko gelako zokoetara begiraturaz. Azkenean soin-makurtze arin bat egin zuen: “Gabon izan dezazuela”, eta atera egin zen.

Atea ez genuen behin ere giltzaz itxi. Ez nago seguru ez ixteko arrazoiak oso argiak edo oso garbiak izan ziren. Esan gabeko adostasun batez erabakita geneukan, ilobak eta biok, ez genuela ezer aldatuko gure bizimoduan, ezta xehetasunik ñimiñoena ere: ofiziala existituko ez balitz bezala; mamu bat balitz bezala. Baina baliteke nire barrenean asmo horrekin batera beste sentimendu bat ere nahastea: ez naiz gauza inor mintzeko neuk sufritu gabe, ezta etsaia izanda ere.

Luzaroan –hilabete batez baino gehiagoz– eszena bera errepikatu zen egunero. Ofizialak atea jo eta sartu egiten zen. Hitz bat edo beste esaten zuen eguraldiari buruz, temperaturari buruz edo garrantzi beretsuko beste gairen batez: gauza bat zuten denek berdina, ez zirela erantzunik espero izatekoak. Beti geratzen zen unetxo batez atetxoaren ondoan. Ingurura begiratzen zuen. Irribarre guztiz arin batek adierazten zuen azterketa hori eginez hartzen-edo zuen atsegina –azterketa bera egunero, eta atsegin bera–. Haren begiak nire ilobaren soslai makurtuari begira luzatzen ziren, hura lehor eta sor beti ere, eta azkenean, begirada harengandik kentzen zuenean, seguru nengoen irakur zitekeela hartan halako oniritzi irribarretsu bat. Gero, makurtuz, esaten zuen: “Gabon izan dezazuela”, eta atera egiten zen.

Gauzak kolpetik aldatu ziren arrats batean. Kanpoan elur busti mehe bat ari zuen, ikaragarri hotza eta bustigarria. Beheko suan halako egunetarako gordeta neuzkan egur lodi batzuk neuzkan erretzen. Neure gogoaren kontra ere, imajinatzen ari nintzen ofizialak kanpotik sartzean izango zuen itxura, elurrez zipriztinduta. Baina ez zen etorri. Hura iristeko ordua aspaldi igarota zen, eta ernegatuta nengoen gogoetan nerabilela aitortu beharra nuelako. Iloba trikotatzen ari zen geldiro, lanean buru-belarri, itxuraz.

Pausoak entzun ziren, azkenean. Baina etxe barrutik zetozen. Pauso-hots desberdinengatik, ofizialaren ibilera zela antzeman nion. Beste atetik sartu zela ohartu nintzen, gelatik zetorrela. Ez zuen azaldu nahi izan, nonbait, gure begien aurrera uniforme busti eta prestasunik gabearekin: aldatu egin zen lehendabizi.

Pausoak –bat sendoa, bat ahula–, eskaileretan behera zetozen. Atea zabaldu zen eta ofiziala agertu zen. Kalekoz jantzita zegoen. Galtzak flanela gris lodikoak ziren, jaka tweed urdin-altzairu kolorekoa, puntu arre berroz nahastua. Zabala eta eroso zen, eta axolagabetasun dotore batez jausten zitzaion. Jakaren azpian, ile-hari gordin lodizko jertse batek inguratzen zuen soin estu, gihartsua.

–Barkatu –esan zuen–. Ez dut berorik. Busti-bustita nengoen, eta nire gela oso hotza da. Minutu batzuk aski izango ditut zuen sutondoan berotzeko.

Neke pixka batez makurtu zen sutondoaren aurrean; eskuak luzatu zituen. Gorantz eta beherantz biratzen zituen. “Ederki!... ederki!” –esaten zuen. Biratu eta bizkarra garretarantz ipini zuen, makurtuta, belaun bat besoen artean zuela.

–Hau ez da ezer –esan zuen–. Frantzia negua urtaro biguna izaten da. Nire herrian bai izaten dela gogorra. Oso gogorra. Zuhaitzak izeiak dira, oihanak oso itxiak, elurra astuna izaten da gainean. Hemen zuhaitzak meheak dira. Elurra, zuhaitz hauen gainean, farfaila. Gurean zezena gogoratzen digu, sendoa eta indartsua, bizitzeko bere indarraren premia duena. Hemen jeinua da, pentsaera sotila eta poetikoa.

Ahotsa aski sorra zuen, ez zuen batere gozoa. Doinua arina zen; kontsonante gogorretan baizik ez zen markatzen. Orotara, marmario kantari samar baten antza zuen.

Jaiki zen. Besoa tximinia garaiaren buruan bermatu zuen, eta bekokia esku gainean. Hain handia zen non makurtu egin behar baitzuen pixka bat; nik buruaren kaskoaz ere joko ez nukeena.

Nahikoa luzaro egon zen mugitu gabe, mugitu gabe eta hitz egin gabe. Nire iloba bizkortasun mekaniko batez ari zen trikotatzen. Ez zion begirik bota, ezta behin ere. Ni pipatzen ari nintzen, nire besaulki handi, bigunean. Gure isiltasunaren astuntasuna gainetik ezin astinduzkoa zela iruditzen zitzaidan. Agur esan eta alde egingo zuela gizon hark.

Baina berriro altxatu zen marmario sor, kantaria; ezin esan isiltasuna eten zuenik, aitzitik, hartatik jaioa zirudien.

–Nik beti maite izan dut Frantzia –esan zuen ofizialak mugitu gabe–. Beti. Aurreko gerrakoan haurra nintzen, eta garai hartan nuen iritziak ez du balio. Baina geroztik beti maite izan dut. Urrutitik, ordea. Printzesa Urruna bezala –eten bat egin zuen, seriotasun handiz esan baino lehen–: Aitarengatik.

Biratu eta, eskuak jakako poltsikoetan zituela, ate-zangoan bermatu zen. Buruak apala jotzen zion. Aldian behin garondoa haren kontra igurzten zuen geldiro, orein batek egingo balu normala zatekeen mugimendu batez. Hantxe zegoen besaulki bat libre, oso hurbil. Ez zen eseri. Azkeneko eguna arte, inoiz ez zen eseri. Guk ez genion eskaini, eta berak ez zuen ezer egin, inoiz, etxekotasuntzat har zitekeenik.

Berriro errepikatu zuen:

–Aitarengatik. Oso abertzalea zen. Gerra galtzea samin bortitza izan zen harentzat. Hala ere, maite zuen Frantzia. Maite zuen Briand, sinesten zuen Weimarreko Errepublikan eta Briandengan. Oso gogo berokoa zen. “Senar-emazteak bezala elkartuko gaitu” esaten zuen. Uste osoa zuen Europa osoaren gainean zabalduko zela azkenik eguzkia...

Hala hitz egitean, nire ilobari begiratzen zion. Ez zion begiratzen gizonak emakumeari begiratzen dion bezala, estatua bati begiratzen dion bezala baizik. Eta halaxe zen, izan: estatua bat. Estatua bizia, baina estatua.

–... Baina Briand garaitu egin zuten. Aitak Frantzia oraindik ere zuen burges handi ankerrek gobernatzen zutela ikusi zuen –zuen de Wendel, zuen Henry Bordeaux eta zuen Mariskal zaharra bezalakoek–. Eta esan zidan: “Ez zaitetz inoiz joan Frantziara, botaz eta kaskoz jantzita sar zaitetzkeen arte”. Hitz eman behar izan nion, hiltzeko gutxi falta baitzuen. Gerra hasi zenean, Europa osoa ezagutzen nuen nik, Frantzia salbu.

Irribarre egin zuen, eta, esplikazioa balitz bezala, esan zuen:

–Musikaria naiz.

Egur bat erori zen, txingarrak sutetxetik kanpora atera ziren. Alemana makurtu eta suhatzaz txingarrak bildu zituen. Eta jarraitu zuen:

–Ez naiz musika-jotzailea; musikagilea baizik. Horixe da nire bizitza guztia, eta, horrexegatik, barregarri sentitzen naiz gerra-gizon itxuran. Nolanahi ere, ez dut damurik gerra honengatik. Ez. Gauza handiak aterako dira, nik uste, honetatik...

Zutitu zen, eskuak patriketatik atera, eta erdi-jasorik eduki zituen:

–Barkatu: beharbada samindu egin zaituztet. Baina esaten ari nintzen hori, asmorik onenaz pentsatzen dut: Frantzia maite dudalako pentsatzen dut. Gauza handiak ekarriko ditu Alemaniako eta Frantziako. Uste osoa dut, aitak bezala, Europa osoan egingo duela argi eguzkiak.

Bi pauso egin, eta soina makurtu zuen. Gauero bezala, esan zuen: “Gabon izan dezazuela”. Eta atera egin zen.

Isil-isilik bukatu nuen nire pipa. Eztul pixka bat egin eta esan nuen: “Beharbada bihozgabekeria da hitz bakar baten limosna ere ukatzea gizon horri”. Ilobak aurpegia jaso zuen. Oso gora jasota zeuzkan bekainak, bi begi distiratsu eta haserreren gainean. Pixka bat gorritzen ari nintzela iruditu zitzaidan ia.

Egun hartatik aurrera, era horretakoak izan ziren haren bisitak. Oso gutxitan baizik ez genuen ikusi uniformeaz jantzita. Lehenik aldatu, eta gero jotzen zuen gure atea. Etsaiaren uniformea ikustera ez behartzeko? Edota uniformea ahantzarazteko, beregana ohitu gintezan? Bietarako, seguru asko. Atea jo, eta erantzunaren zain geratu gabe sartzen zen, bazekien-eta ez geniola erantzungo. Tankerarik xaloenaz egiten zuen hori, eta sutan berotzera etortzen zen; huraxe izaten zuen beti etortzeko aitzakia: ez bera ez gu ez ginen aitzakia hartaz engainatzen, eta bera ere ez zen ahalegintzen haren konbentzionaltasun erosoaz ezkututzen.

Ez zen gauero-gauero etortzen, baina ez naiz gogoratzen behin ere hitz egin gabe alde egin zuenik. Suaren gainera makurtzen zen, eta bere gorputzaren atalen bat garraren beroari begira jartzen zuen bitartean, leun-leun altxatzen zen haren marmariozko ahotsa, eta amaitu ezinezko bakarriketa bat

izan zen, ilunabar haietan guztietan zehar, bere bihotzean zeramatzan gaiei buruz: bere herrialdea, musika, Frantzia; zeren behin ere ez baitzen ahalegindu guregandik erantzun bat, onespen bat, begirada bat bera jasotzen. Ez zuen luzaro hitz egiten, inoiz ez lehenengo egun hartan baino luzaroago. Esaldi batzuk esaten zituen, zenbaitetan isilaldiz etenak, beste batzuetan otoiz baten jarraitasun betiberdinaz kateaturik. Batzuetan tximiniaren kontra geldirik, kariatide bat nola; beste batzuetan, solasa eten gabe, gauzaren batera, hormako marrazkiren batera hurbilduz. Gero isiltzen zen, makurtzen zen eta gaua ondo igarotzeko opatzen zigun.

Behin esan zuen (bere bisiten hasierako garaietan zen):

–Zertan dira desberdinak nire herrialdeko sua eta su hau? Egurra, garra, tximinia antzekoak dira, jakina. Baina argia ez. Argia argitzen dituen gauzen arabera da: sukalde honetan dagoen jendearen, altzarien, hormen, apaletan dauden liburuen arabera...

»Zergatik gustatzen zait honenbeste gela hau? –esan zuen gogoetatsu–. Ez da hain polita ere; barkatu!... –barre egin zuen–: Esan nahi dut, ez da museoko pieza bat... Zuen altzariak, ezin esan: hona altzari zoragarriak... Ez... baina gela honek badu arima. Etxe honek guztiak du arima».

Liburutegiko apalen aurrean zegoen. Haren behatzek fereka arin batez ukitzen zituzten liburuen azalak.

»... Balzac, Barrès, Baudelaire, Beaumarchais, Boileau, Buffon... Chateaubriand, Corneille, Descartes, Fénelon, Flaubert... La Fontaine, France, Gautier, Hugo... Hau zerrenda! –esan zuen barretxo arin batez, eta burua astinduz–. Eta H letrara baizik ez naiz iritsi!... Ez Molière, ez Rabelais, ez Racine, ez Pascal, ez Stendhal, ez Voltaire, ez Montaigne, ez gainerako guztiak!...”. Behatzak liburuen gainetik geldiro irristatzen jarraitzen zuen eta ia entzun ezinezko “A!” bat ateratzen zitzaion aldian behin, uste ez zuen izenen bat irakurtzen zuenean, nik uste. “Ingelesak –hasi zen berriro–, segituan pentsatzen da: Shakespeare. Italiarrak: Dante. Espainia: Cervantes. Eta gurean, segituan: Goethe. Hortik aurrera bila hasi behar. Baina, Frantzia? galdetzen bada. Nor ateratzen da segituan? Molière? Racine? Hugo? Voltaire? Rabelais? edo beste zein? Elkarren gainka etortzen dira, antzokira sartu nahi duen jendetza bezala dira, ez dakizu nor sarrarazi lehenengo.

Biratu zen, eta serio esan zuen:

–Baina, musikari dagokionez, gurera jo behar: Bach, Haendel, Beethoven, Wagner, Mozart... zein izen dator lehenengo?

»Eta elkarri gerra egin diogu! –esan zuen geldiro, burua mugituz. Berriro tximiniara itzuli zen, eta nire ilobaren soslaian pausatu ziren haren begi irribarretsua. Baina hau da azkenekoa! Ez dugu berriro borrokarik egingo: ezkondu egingo gara! –bekainak tolestu zituen, masailtako zuloak bi ildo luzez markatu zitzaizkion, hortz zuriak agertu ziren. Alaikiro esan zuen:– Bai, bai!. –Buru-astintze arin batek errepikatu zuen baiespena–. Saintesen sartu ginenean –jarraitu zuen isilune baten ondoren–, pozik nengoen biztanleek abegi ona egiten zigutelako. Oso pozik nengoen. Pentsatzen hasi nintzen: Erraza izango da. Eta gero ikusi nuen ez zela hori, koldarkeria baizik ez zela. –Serio jarri zen–. Mespretxatu egin nituen. Eta beldur naiz Frantziagatik. Pentsatzen hasi nintzen: *Egiaz* bihurtu ote da horrelakoa? –Buru astindu zuen–: Ez! Ez. Gero ikusi nuen; eta orain pozik nago aurpegi garratza jartzen duelako.

Haren begirada nireira bihurtu zen; nik nirea desbideratu nuen; une batez gelako zenbait lekutan gelditu zen; ondoren, lehen utzia zuen aurpegi errukirik gabe sorgorrera itzuli zen berriro.

–Pozik nago hemen adineko gizon duin bat aurkitu dudalako. Eta andereño isil bat. Garaitu egin beharko da isiltasun hori. Garaitu egin beharko da Frantziaren isiltasuna. Gustatzen zait.

Nire ilobari begiratzen zion: soslaia garbi, tematu eta itxia, isilik, seta serio batez, baina oraindik ere irribarre baten hondarrak geratzen zitzaizkiola. Ilobak nabaritzen zuen. Pixka bat gorritzen ikusten nuen, haren bekainen artean zimur bat eratzen poliki-poliki. Haren behatzek bizkortxo tira egiten zioten, lehorregi, orratzari, haria eteteko arriskuaz.

–Bai –hasi zen berriro ahots marmariotsu geldia–, hobeto da horrela. Askoz hobeto. Lotura sendoak egiten dira horrela, alde biek handitasuna irabazten duten loturak... Bada haurrentzako ipuin eder bat, oso ederra, nik irakurri nuena, zuek ere irakurri duzuen, jende guztiak irakurri duena. Ez dakit berdin deitzen den zuenean eta gurean. Gurean *Das Tier und die Schöne*, –Ederra eta Piztia– du izena. Eder gaixoa! Piztiak bere mende dauka, ezindurik eta preso; eguneko ordu guzti-guztietan inposatzen dio bere presentzia erruki gabe, astuna... Ederra ausarta, prestua da; gogortu egin da... Baina Piztia hobea da dirudiena baino. Bai, ez da asko findu! Moldegabea, zakarra da, baldarra dirudi, hain fina den Ederraren aldean!... Baina badu bihotza, bai, badu gora egin nahi duen arima bat. Ederrak nahiko balu!... Ederrak denbora behar du nahi izateko. Eta, hala ere, poliki-poliki, argi bat aurkitzen du kartzelazain gorrotatuaren begien barren-barrenean, erregua eta maitasuna islaturik irakur daitezkeen distira bat. Gutxiago sentitzen du hanka zapaltzailea, gutxiago sentitzen ditu bere kartzelako kateak... Gorrotatzeari uzten dio, haren iraunkortasunak hunkitu egiten du, eskua luzatzen dio... Bat-batean Piztia eraldatu egiten da, itxura basati hartan loturik daukan aztakeria ezabatu egin da: zaldun dotore eta jator bat, ezitia eta ikasia da orain, eta Ederrak ematen dion musu bakoitzak geroz eta dohain distiratsuegoz janzten du... Bien batzeak zorientasun gain-gaineko bat ekarriko du. Haien haurrak, beren gurasoen dohainak bateratzen eta elkartzen baitituzte, lur honetan inoiz izan diren ederrenak dira...

»Ez zaizu gustatzen ipuin hau? Niri beti gustatu izan zait. Behin eta berriro irakurtzen nuen. Negar eragiten zidan. Piztia gustatzen zitzaidan batez ere, haren samina ulertzen nuelako. Gaur egun ere, zirrara eragiten dit aipatzen dudanean.

Isildu zen, arnasaldi sakon bat hartu, eta makurtu egin zen:

–Gabon izan dezazuela.

Gau batean –nire gelara igoa nintzen, tabako bila– harmoniumaren kantua igotzen entzun nuen. “VIII. Preludioa eta Fuga” ari zen jotzen; iloba hondamendia baino lehen prestatzen ari zena. Koaderno orrialde horretan zabaldua geratua zen, baina, arrats hartara arte, nire iloba ez zen animatu berriro ariketak egitera. Berriro ariketak egiten hasi izanak poza eta harridura eragin zidan: barneko zer premiak bultzatu ote zuen bat-batean erabaki hura hartzera?

Ez zen iloba. Iloba ez zen mugitu bere besaulkitik, ez egiten ari zen lana utzi ere. Haren begiradak nirea bilatu zuen, mezu bat bidali zidan baina ez nuen dezifratu. Musika-tresnaren aurrean makurtuta zegoen soin luzeari begira egon nintzen, esku luze, fin, urduriei begira; haien behatzak pertsona autonomoak balira bezala mugitzen ziren teklen gainean.

Preludioa baizik ez zuen jo. Jaiki eta sutondora etorri zen.

–Hau baino handiagorik ez dago –esan zuen bere ahots sorraz, marmar bat baino ozenago ez zela–. Handia?... ez da hori hitz egokia. Gizonaz gaindikoa, gizonaren haragiaz gaindikoa. Horrek ulertarazten digu, ez: antzemanarazten digu... ez: sumarazten digu... sumarazten digu zer den giza arimaren izaera... giza arimaren izaera jainkozko eta ezagutu ezina, giza arimaren izaera... hutsa... Bai: gizakiarena ez den musika bat da.

Isiltasun ameslari batean, bere gogoeta aztertzen ari zela zirudien. Ezpain bat geldiro hortzikatzen zuen.

–Bach... Alemana izan behar, nahita ez. Gure lurrak badu izaera hori, gizakiarena ez den izaera hori. Gizakiaren neurrikoa ez dena, nahi dut esan.

Isilaldi bat, eta gero:

–Musika hau, gustatzen zait, miresten dut, betetzen nau, Jainkoaren presentzia bezalaxe da nire baitan, baina... Baina ez da nirea.

»Gizakiaren neurriko musika egin nahi dut nik: egiara iristeko bide bat da hori ere. *Nire* bidea. Ez nuke nahi, ezingo nuke beste bide batetik ibili. Orain badakit hori. Oso ongi dakit. Noizdanik? Hemen bizi naizenez geroztik.

Bizkarra eman zigun. Eskuak tximinia-buruan bermatu zituen, hatzen bidez hartan finkatu zen eta aurpegia garretara begira jarri zuen, besoen artean, burdinsare bateko barren artetik bezala. Ahotsa sorragea eta marmariozkoagoa egin zitzaion:

–Orain Frantziaren beharra dut. Baina asko eskatzen diot: onar nazala eskatzen diot. Harengan arrotz baten gisan, bidaiari baten edo konkistatzaile baten gisan egotea, hori ez da ezer. Hala denean, ez du ezer ematen, ezin zaio ezer kendu-eta. Haren aberastasuna, haren aberastasun gorena, ezin konkista daiteke. Bularretik edoski behar zaio, amatasun-sentimendu eta bulkada batez eskaini behar dizu bularra... Badakit gure esku dagoela hori... Baina baita bere esku ere. Onartu egin behar du gure egarria ulertzea, eta onartu egin behar du egarri hori asetzea... onartu egin behar du gurekin elkartzea.

Zutitu egin zen, bizkarra emanez beti ere, behatzak harriari erantsirik beri ere.

–Nik –esan zuen altuxeago– luzaro bizi beharko dut hemen. Hau bezalako etxe batean. Herri honen berdina den herri bateko seme gisa... Beharrezkoa izango da...

Isildu egin zen. Gureganantz biratu zen. Haren ahoak irribarre egiten zuen, baina ez haren begiek, nire ilobari begira.

–Gaintituko dira oztopoak –esan zuen–. Egiazkotasunak beti gaintitzen ditu oztopoak.

–Gabon izan dezazuela.

Ezin ditut gogoratu, gaur egun, neguko ehundik gorako gau haietan esan ziren guztiak. Baina gaia ez zen askorik aldatzen. Bere Frantziaren aurkikuntzaren rapsodia luzea beti: ezagutu aurretik urrutitik zion maitasuna eta bertan bizitzeko zoriona zuenez geroztik egunetik egunera sentitzen zuen maitasun handiagoa. Eta miretsi egiten nuen, bai horixe. Bai: etsitzen ez zuelako. Eta isiltasun errukigabe hura hitzezko bortizkeriaren batez astintzeko tentaziorik inoiz ez zuelako... Alderantziz, zenbaitetan isiltasun hark gela osoa hartu eta gas astun eta arnastu ezin baten gisan zokorik zokoenak ere hanpatu zezan uzten zuenean, bazirudien bera zela, gu hiruon artean, erosoan zegoena. Eta orduan nire ilobari begiratzen zion, lehenengo egunetik bertatik izan zuen onespenezko espresio irribarretsu eta aldi berean serio harekin. Eta nik asalaturik sentitzen nuen nire ilobaren arima berak eraikia zuen espetxe haren barruan; seinale askotan igartzen nion, eta ez zen txikiena behatzen zuen dardaratxo bat. Eta Werner von Ebrennac-ek isiltasun hura, leunki eta talkarik gabe, bere ahots marmariozkoaren xarmaz azkenean ezabatzen zuenean, bazirudien arnasa libreago hartzen uzten zidala.

Bere buruaz hitz egiten zuen, askotan:

–Gure etxea basoan dago, han jaio nintzen, herriko eskolara joaten nintzen, herriaz beste aldean; inoiz ez nuen handik alde egin, azterketetarako Munichera eta musika-ikasketetarako Salzburgera joan nintzen arte. Geroztik han bizi izan naiz beti. Hiri handiak ez zitzaizkidan gustatzen. Ezagutu ditut Londres, Viena, Erroma, Vartsovia, Alemaniako hiriak, noski. Ez zaizkit gustatzen bizitzeko. Praga bakarrik gustatzen zitzaidan asko; ez dago beste hiri bat hark bezainbesteko arima duenik. Eta Nurenberg batez ere. Aleman batentzat, bihotza zabaltzen dion hiria da, han aurkitzen dituelako bere bihotzean maite dituen fantasmak, han aurkitzen duelako, harri bakoitzean, Alemania zaharraren nobletasuna egin zutenen oroitzapena. Frantsesek gauza bera sentitu behar dute Chartreseko katedralaren aurrean, nik uste. Beren ondo-ondoan sentitu behar dute arbasoen presentzia, haien arimaren grazia, haien fedearen handitasuna eta haien grazia. Zoriak Chartresera eraman ninduen. Ai, nolako zirrara galsoro helduen gainetik, urruntasunaren urdinez eta garden, gorputz gabe, agertzen denean! Antzina hara oinez, zaldiz edo gurdiz iristen zirenen sentimenduak imajinatzen nituen... Haien sentimendu berak partekatzen nituen, eta maite nuen jende hura, eta nola nahiko nukeen haien anaia izatea!

Aurpegia ilundu egin zitzaion:

–Gogorra da, inondik ere, Chartresera beribil blindatu handi batean etorritako gizon batengandik entzuteko... Baina egia da. Hainbeste gauza nahaspilatzen dira batera aleman baten ariman, onenarenean ere! Eta nola gustatuko litzaiokeen nahasmendu horretatik sendatzea...

Irribarre egin zuen berriro, irribarre arin bat, poliki-poliki aurpegi osoa argitu ziona, eta gero:

–Gure ondoko gazteluan bada neska bat... Oso ederra eta oso amultsua da. Aita poztuko zatekeen harekin ezkontzen banintzen. Aita hil zenean, ia ezkongaiak ginen, elkarrekin pasiera luzeak egiten uzten ziguten, biak bakarrik.

Nire ilobak haria, orduantxe eten baitzuen, berriro orratzaren begian sartu arte itxaron zuen, jarraitu aurretik. Arreta handiz ahalegintzen zen, baina orratzaren begia oso txikia zen eta kosta egin zitzaion. Lortu zuen, azkenean.

–Behin –hasi zen berriro–, basoan geunden. Gure aurrean untxiak, katagorriak zebiltzan. Mila modutako loreak zeuden: lilipak, basa-hiazintoak, nartzisoak... Neskak poz-oihuak egiten zituen. Esan

zuen: “Pozik nago, Werner. Maite ditut, oi, zenbat maite ditudan Jainkoaren opariok!” Ni ere pozik nengoen. Goroldiotan etzan ginen, garo artean. Ez genuen hitz egiten. Gure gainean izeien buruak balantzaka ikusten genituen, txoriak adarrik adar hegan. Neskak oihutxo bat egin zuen: “Ai, kokotsean zizta egin dit! Piztia zikina halakoa, eltxo gaiztoa!” Eta eskuaz keinu bizkor bat egiten ikusi nuen. “Harrapatu dut bat, Werner! A, ba, begira, zigortu egingo dut: hankak – banan-banan – kenduko – dizkiot...” eta halaxe ari zen egiten...

»Eskerrak –jarraitu zuen–, senargaitzako beste asko zituen. Ez nuen damurik izan. Baina betirako beldurra hartu nien Alemaniako neskei.

Bere eskuetara pentsakor begiratu, eta esan zuen:

–Halakoxeak dira gure herrian politikariak ere. Horregatik ez dut nahi izan inoiz haiekin batzerik, nahiz eta nire kideek idazten zidaten: “Zatoz gurekin elkartzera”. Ez: etxean geratu nahiago izaten nuen beti. Musikak arrakasta izan zezan, ez zen ona, baina hainbat okerrago: arrakasta ez da ezer kontzientzia lasai edukitzearen aldean. Eta, benetan, badakit ideiarik handien eta nobleenak dituztela nire lagunek eta gure Führer-ak. Baina badakit eltxoei hankak banan-banan kenduko lizkieketela ere. Horixe gertatzen zaie beti alemanei oso bakarrik daudenean: beti suspertzen zaie hori. Eta nor “bakarragorik” alderdi bereko gizonak baino, buruzagiak direnean?

»Eskerrak orain bakarrik ez dauden: Frantzian daude. Frantziak sendatuko ditu. Eta hau ere esango dizuet: beraiek ere badakite hori. Badakite Frantziak irakatsiko diela egiaz gizon handiak eta garbiak izaten.

Aterantz egin zuen. Ahots beheratu batez esan zuen, beretzat ariko balitz bezala.

–Horretarako maitasuna behar da, ordea.

Une batez atea zabalik eduki zuen; aurpegia sorbaldarantz biraturik, bere lanaren gainera makurtuta zegoen nire ilobaren garondoari begiratzen zion, ileak kaoba iluneko kiribiletan jaikitzen ziren garondo ahul eta zurbil hari begira. Eta erabakitasun barezko doinu batean gehitu zuen:

–Maitasun partekatu bat.

Gero burua biratu zuen, eta atea haren atzean itxi zen, ahots bizkorrez eguneroko hitzak errepikatzen zituen bitartean:

–Gabon izan dezazuela.

Bazetozen udaberriko egun luzeak. Ofiziala eguzkiaren azkeneko errainuekin batera jaisten zen orain. Flanela grisezko galtzak erabiltzen zituen oraindik, baina soinean marraga-koloreko artilezko jertse gisako jaka arinago batek estaltzen zion lepo zabaleko lihozko alkandora bat. Arrats batean liburu bat hatz erakuslearen gainean itxita zekarrela jaitsi zen. Norbaiti ustez poza emango zaiolako seinalea den erdi-irribarre eutsi batek pizten zion aurpegia. Esan zuen:

–Zuentzat jaitsi dut hau. Macbeth-en orrialde bat da. Jainkoa! Hau handitasuna!



Liburua zabaldu zuen:

–Bukaera da. Macbethen boterea badoakio behatzen artetik, azkenean haren handinahiaren belztasuna neurtzen dutenen atxikitasuna bezala. Eskoziaren ohorea defenditzen duten jaun nobleak haren hondamendi hurbila noiz gertatuko zain daude. Haietako batek gainbehera horren sintoma dramatikoak deskribatzen ditu...

Eta geldiro irakurri zuen, astuntasun patetiko batez:

### ANGUS

*Orain eskuetan itsatsirik sentitzen ditu bere ezkutuko krimenak. Gizon bihoztsu matxinatuek uneoro itsusten diote bere asmo gaiztoa. Agindupean dituenak beldurrak mugitzen ditu, ez maitasunak. Zintzilik ikusten du bere aginpidea, erraldoi baten jantzia lapurtu duen nanoaren gainean dingilizka dagoen bezala.*

Burua jaso eta barre egin zuen. Harrituta ari nintzen neure buruari galdezka ea ni pentsatzen ari nintzen tirano berarengan pentsatzen zuen hark. Baina esan zuen:

–Ez al da agertzen horretan zuen Almirantearen gauak asaldatu behar dituen irudi bera? Erruki dut gizon hori, benetan, zuei bezala niri ere mespretxua eragiten didan arren. *Agindupean dituenak beldurrak mugitzen ditu, ez maitasunak.* Bere jendearen maitasuna irabazi ez duen buruzagia ondo txotxongilo ziztrina da. Baina... baina... espero ote zitekeen besterik? Nork, izan ere, onartuko zukeen eginkizun hori horrelako handinahi goibel batek ez bada. Beharrezkoa zen, ordea. Bai, beharrezkoa zen bere aberria saltzeko prest zegoenen bat, zeren, gaur egun –gaur egun eta luzaroan oraindik–, Frantzia ezin etor daiteke gure besoetara bere begietarako duintasuna galdu gabe. Estalgilerik doilorrena izaten da askotan ezkontzarik zoriontsuenen oinarrian. Estalgileak ez du merezi, horregatik, mespretxu gutxiago, eta ezkontza ez da zoritzarrekoagoa.

Liburua ixtean zart eragin zion, jakako patrikan sartu zuen, eta oharkabeko keinu batez bi bider jo zuen patrika hura bere esku-ahurraz. Gero, bere aurpegi luzea zoriontasunezko espresio batek argiturik, esan zuen:

–Aurrez jakinarazi behar dizuet, nire ostalariok, bi astez kanpoan izango naizela. Pozik nago Parisa noalako. Nire baimen-txanda dut, eta Parisen igaroko dut, lehenengo aldiz. Egun handia da niretzat. Egunik handiena, nire bihotz guztitik espero dudan eta oraindik ere egun handiagoa izango den beste bat iritsi bitartean. Ez dit axola urteak igarotzea zain, hala behar bada. Nire bihotzak pazientzia handia du.

»Parisen nire adiskideak ikustea espero dut; zuen politikariekin gure bi herrion batasun zoragarria prestatzeko negoziaketetan daude horietako asko. Hala ezkontza horren lekukoa izango naiz pixka bat... Esango dizuet pozten naizela Frantziagatik; hala oso bizkor itxiko zaizkio zauriak; baina are gehiago pozten naiz Alemaniagatik eta neuregatik! Inork ez du atera izango bere ongintzatik Alemaniak Frantziari bere handitasuna eta bere askatasuna itzuliz aterako duen adinako probetxurik.

–Gabon izan dezazuela.

## OTELO

*Itzal dezagun argi hau, gero beste argia itzaliko dugu.*

Itzuli zenean ez genuen ikusi.

Bagenekien han zela, zeren seinale askotan nabarmentzen baita etxean arrotz bat dagoela, nahiz eta hura ikusezin egon. Baina hainbat egunez –astebete baino askoz gehiagoz– ez genuen ikusi.

Aitortuko ote dut? Falta horrek ez zidan gogoia bakean uzten. Harengan pentsatzen nuen, ez dakit zenbateraino ez nuen sentitzen damua, kezka. Ez ilobak ez nik ez genuen hitz egin horretaz. Baina arratsean goian oinkada irregularren hots sorra entzuten genuenean, argi ikusten nuen, ilobak bere lanean jartzen zuen arreta tematuan, haren aurpegiari espresio egoskor eta aldi berean erne bat ematen zioten marra arin batzuetan, bazerabiltzala hark ere nireen antzeko gogoetak.

Behin Kommandantur-era joan beharra izan nuen, pneumatikoei buruzko aitorten arrunt bat egitera. Eman zidaten inprimakia betetzen ari nintzela, Werner von Ebrennac bere bulegotik atera zen. Ez ninduen segituan ikusi. Hormako ispilu garai baten aurreko mahaitxo batean eserita zegoen sarjentuari ari zitzaion. Haren kantuzko doinu-aldaeradun ahots sorra entzuten nuen, eta hantxe geratu nintzen, han egiteko beste ezer ez banuen ere, zergatik jakin gabe, hunkiturik, hunkidura bitxi batez, ez dakit zer askabideren zain. Ispiluan ikusten nuen haren aurpegia; zurbila eta nekatua iruditzen zitzaidan. Begiak jaso zituen, nireak topatu zituzten, bi segundoz elkarri begiratu genion, eta kolpetik orpoen gainean biratu eta aurpegia eman zidan. Haren ezpainak zertxobait zabaldu ziren, eta geldiro esku bat pixka jaso zuen, eta ia bertan beheratu zuen berriro. Burua ia ez ohartzeko moduan astindu zuen, erabaki ezin patetiko batez, bere buruari “ez” esango balio bezala, baina begiak niregandik kendu gabe. Gero soin-makurtze arin bat egin zuen, begirada lurrera eramanez, eta, herrenka, bere bulegoan sartu zen berriro, eta han itxi zen.

Horri buruz ilobari ez nion ezer esan. Baina emakumeek katukien igarpena dute. Ilunabar osoan etengabe jasotzen zituen begiak bere lanetik, minutu oro, niri begiratzeko; ea zerbait irakurtzen zidan, denbora guztian, pipa arreta handiz errez, bare edukitzen ahalegintzen nintzen aurpegian. Azkenean, eskuei jaregin zien, nekatuta bezala, eta, oihala tolestuz, goiz oheratzeko baimena eskatu zidan. Bi behatz kopetatik pasatzen zituen geldiro, buruko mina uxatzeko bezala. Musu eman zidan, eta haren begi gris ederretan erantzuki halako erasia bat eta nahiko tristura astuna ikustea iruditu zitzaidan. Alde egin zuenean, amorru zentzugabe batek hartu ninduen: zentzugabea izatearen eta zentzurik gabeko iloba bat izatearen amorruak. Zer zen, gero, ergelkeria hura guztia? Baina ez nintzen erantzuteko gauza. Ergelkeria bazen, ongi errotua zirudien inondik ere.

Hiru egun geroago entzun genuen, gure katiluak hustu berri genituela, ohiko pauso irregularren taupada berriro jaiotzen, eta oraingo honetan hurbiltzen, zalantzarik gabe. Sei hilabete lehenago pauso haiek entzun genituen neguko lehenengo arrats hartaz gogoratu nintzen kolpetik. “Gaur ere euria ari du”, pentsatu nuen. Latz ari zuen euria, goizetik hasita. Euri jarraitu eta tematu bat, inguru guztia ito eta etxe barrua ere giro hotz eta heze batez estaltzen zuena. Ilobak zeta inprimatuzko lauki batez

zeukan estalita bizkarra; zapian, Jean Cocteauk marraztutako hamar esku kezkarrik adorerik gabe seinalatzen zuten elkar; ni eskuak piparen katiluan berotzen ari nintzen, eta uztailean geunden!

Pausoek gelaurrea igaro eta eskailera-mailei intziri eragiten hasi ziren. Geldiro ari zen jaisten, geroz eta geldiroago, baina ez zalantzatan dagoenaren moduan: bere borondatea trantze akigarri batera behartuta daukan baten moduan baizik. Ilobak burua jaso eta begira ari zitzaidan; hontzaren begirada garden eta gizatasun gabe batez begiratu zidan denbora horretan guztian. Eta azkeneko eskailera-mailak kirrinka egin eta isilune luze batek jarraitu zionean, hegan egin zuen nire ilobaren begiradak, betazalak astuntzen ikusi nizkion, burua makurtzen eta gorputz guztia gogorik gabe besaulkiaren bizkarraren kontra etzaten.

Ez dut uste isilune hark segundo batzuk baino gehiago iraun zuenik. Segundo luzeak, ordea. Ikusten ari nintzela iruditzen zitzaidan gizona, ate atzean, behatz erakuslea jasota, jotzeko prest, eta jotzeko keinu horrexegatik etorkizuna bahituran jartzera zihoan unea atzeratzen, atzeratzen... Jo zuen, azkenean. Eta ez zuen jo zalantzaren arintasunaz, ezta gairiditutako herabetasunaren zakarkeriaz ere; hiru kolpe bete eta geldi izan ziren, atzerako biderik gabeko erabakitasun baten kolpe ziur eta bareak. Lehenagokoetan bezala atea segituan zabalitzen ikusiko nuela espero nuen. Baina itxirik geratu zen, eta ezin eutsizko gogo-asaldura batek hartu ninduen orduan: elkarren kontrako desiren zalantza nahasten zen galderarekin eta, geroz eta bizkorrago, urjauzi baten gisa –hala iruditzen zitzaidan– igarotzen ziren segundo haietako bakoitzak are nahasiagoa eta irteerarik gabeagoa bihurtzen zidan nahasmendu hura. Erantzun egin behar ote zitzaion? Zergatik aldaketa hura? Zergatik ari zen itxaroten gau hartan ordu arte, bere jarreraz, tema osasuntsu hura zenbateraino onartzen zuen erakutsia zuen isiltasun hura eten genezan? Zer agintzen zuen arrats honetan –arrats honetan– duintasunak?

Ilobari begiratu nion, ea haren begietan adore emateko keinu edo seinale bat arrantzatzen nuen. Baina haren soslaia baizik ez nuen aurkitu. Atearen eskutokiari begiratzen zion. Lehen ere harritu izan ninduen hontzaren finkotasun gizatasun gabe hartaz begiratzen zion, oso zurbil zegoen, eta goiko ezpaina bere hortzen gainean irristatzean marra zuri mehe bat erakutsi zuen; eta uzkurtze samingarri batez igotzen ikusi nuen; eta nik, bat-batean agerira ateratako eta nire duda-muden oinaze arina hainbestez gairiditzen zuen barruko drama hori ikusita, geratzen zitzaizkidan azkeneko indarrak galdu nituen. Une horretan beste bi kolpe eman zituzten –bi kolpe bakarrik, bi kolpe arin eta bizkor–, eta ilobak “Alde egingo du...” esan zuen hain ahots apal eta etsiaz non ez bainuen gehiago itxaron, eta ahots garbiz esan bainuen: “Aurrera, jauna”.

Zergatik gehitu nuen “jauna” hura? Gonbita gizonari egiten niola azpimarratzeko, eta ez ofizial etsaiari? Ala, alderantziz, atea *nork* jo zuen banekiela eta hari hitz egiten niola erakusteko? Ez dakit. Ez dio axola. Gauza da “aurrera, jauna” esan nuela; eta sartu egin zela.

Kalekoz jantzita azalduko zela uste nuen, eta uniforme zegoen. Inoiz baino uniforme zantziago zegoela esango nuke, gainera, alegia, garbi ikusi nuela hala jantzita ikustera behartzeko asmo sendoz jantzi zuela jantzi hura. Atea hormaren kontraraino zabaldu zuen, eta zutik zegoen ate parean, hain zutik eta hain zurrun non zalantza eta guzti bainuen ea gizon berbera ote nuen aurrean, eta, lehendabiziko aldiz erreparatu bainuen Louis Jouvét antzezlearekin zuen antz harrigarria. Segundo batzuetan halaxe geratu zen, zutik, zurrun eta isilik, hankak zabal samar, eta besoak gorputzaren albo banatan espresiorik gabe zintzilik, aurpegia hain hotz, hain guztiz soraio, non ez baitzirudien inolako sentipenik izan zezakeenik barruan.

Baina nik, nire besaulki sakonean eserita, eta aurpegia haren ezkerreko eskuaren parean nuelarik, esku hura ikusten nuen, nire begiak esku hari itsatsi zitzaizkion, eta kateatuta bezala geratu ziren hartan, hark eskaintzen zidan eta gizonaren jarrera guztia patetikoki gezurtatzen zuen ikuskari patetikoagatik...

Egun hartan ikasi nuen esku batek, ongi begiratzen dakienarentzat, erakuts ditzakeela emozioak aurpegi batek bezain ongi, eta aurpegiak baino hobeto ere bai, eskuak aiseago ihes egiten baitio borondatearen kontrolari. Eta esku hartako behatzak luzatu eta tolestu egiten ziren, estutu egiten ziren eta lotu, mimikarik bizienari emanak zeuden, aurpegia eta gorputz osoa geldirik eta zurrun bazeuden ere.

Gero bazirudien begiak piztu egin zitzaizkiola, une batez niri begiratu zidaten –aztore batek zelatatzen ninduela iruditzen zitzaidan–, begi distiratsuak betazal zabaldu eta zurrunen artean – loezinak jotako baten betazal zimurtu eta aldi berean zurrunak–. Gero nire ilobarengan pausatu ziren –eta ez zuten handik alde egin.

Eskua azkenean gelditu zen, behatz guztiak ahurraren gainean tolesturik eta uzkururik, ahoa zabaldu zen (ezpaineak bereiztean “Pp...” egin zuten, botila huts bati kortxoa kentzen zaionean bezala) eta ofizialak esan zuen –haren ahotsa inoiz baino sorragoa zen:

–Gauza serioak esan behar dizkizuet.

Nire iloba haren aurrean zegoen, baina burua makurtuta zeukan. Haril bateko artilaria behatzen inguruan biltzen ari zen, harila alfonbra gainean desegiten ari zen bitartean; zentzugabeko lan hori zen, nonbait, bere arreta ezabatuarekin egokitu zitekeen –eta lotsa eragotz ziezaiokeen– eginkizun bakarra.

Ofiziala hitz egiten hasi zen berriro; hain nabarmena zen ahalegina, non bere bizitzaren ordainetan zela baitzirudien:

–Azkeneko sei hilabete hauetan esan dudan guztia, gela honetako hormek entzun duten guztia... – arnasa hartu zuen, asmak jotako gaixo baten ahaleginez, bularra puztuta eduki zuen une batez...– hori dena... –arnasa hartu zuen– ahaztu ezazue”.

Neskak eskuak bere gonaren magalean pausatu zituen poliki-poliki, eta han geratu ziren erorita eta bizirik gabe, hondarretan hondoa jotako txalupak balira bezala, eta geldiro-geldiro burua jaso zuen, eta orduan, orduan lehenengo aldiz –lehenengo aldiz– eskaini zion ofizialari bere begi zurbilen begirada.

Hark esan zuen (ozta-ozta entzun nion): *Oh welch' ein Licht!*, xuxurla bat ere ez; eta, hain zuzen ere, haren begiek argi hura jasan ezin izan balute bezala, bere eskumuturraren atzean ezkutatu zituen. Bi segundo; gero eskua erortzen utzi zuen, baina betazalak jaitsita zeuzkan, eta hark eduki zuen handik aurrera begirada lurrean...

Haren ezpaineak “Pp...” egin zuten, eta honela esan zuen –ahotsa sor, sor, sorra zen–:

–Garaileak ikusi nituen.

Gero, segundo batzuen ondoren, are eta ahots apalago batez:

–Haiekin hitz egin nuen.

Eta azkenean, gelditasun mingots batez:

–Barre egin zidaten.

Begiak nireganantz jaso zituen, eta seriotasun handiz hiru bider egin zuen baietz buruaz ezarizarian. Begiak itxi ziren, eta gero:

–“Ez zara ohartu engainatzen ari garela?”, esan zidaten. Horixe esan zidaten. Horixe. *Wir prellen sie*. “Ez duzu uste izango, bada, ergelaren moduan Frantziari gure mugetan bertan berriro bere onera etortzen utziko diogunik? Ezta?” Esan zidaten. Barre handiak egin zituzten. Bizkarreko alaiak ematen zizkidaten, nire aurpegia ikusita: “Gu ez gara musikariak!”

Haren ahotsak, azkeneko hitz horiek esatean, mesprezu ilun bat adierazten zuen; ez dakit zer islatzen zuen: haiekiko zituen sentimenduak ala haien hitzen doinua.

–Luzaro hitz egin nien, suhartasun handiz. “Tira! Tira!” egiten zidaten. Eta esaten zuten: “Politika ez da olerkariaren ametsa. Zertarako uste duzu egin dugula gerra? Beren Mariskal zahar horrengatik?”. Eta barre egiten zuten berriro: “Ez gara eroak, ez gara txepelak: badugu Frantzia suntsitzeko aukera, eta suntsitu egingo dugu. Ez Frantziaren indarra bakarrik: arima ere bai. Arima batez ere. Arima du arriskurik handiena. Eta horixe da orain dugun egitekoa: ez engainatu, adiskidea! Gure irribarreez eta sotilkeriez ustelduko dugu. Puta zikin amorratua bihurtuko dugu”.

Isildu egin zen. Arnasestuka zirudien. Hainbesteko indarrez estutzen zituen masailezurak non masailak irteten ikusten nizkion, eta zain bat, zizare bat bezain lodia eta okerra, lokiaren azpian taupaka. Bat-batean aurpegiko azal guztia mugitu zitzaion, lurrazpiko ikara gisako batean, haize bafada batek aintzira batean egiten duen bezala; egosten jarritako esnearen azalean gain gogortuzko mintza lehenengo burbuletan bezala. Eta haren begiak nire ilobaren begi zurbil handituetara atxiki ziren, eta doinu apal, uniforme, sendo eta itogarri batean esan zuen, gelditasun abaildu batez:

–Ez dago itxaropenik –eta ahots sorrage eta apalago, eta geldiago batez, jasan ezinezko egiaztapen hartaz bere burua torturatzeko bezala–: Ez dago itxaropenik. Ez dago itxaropenik –eta bat-batean, espero ez nuen ahots ozen eta indartsu batez, nire harridurarako, ahots argi eta ozen batez, turutakolpe baten moduan, oihi baten moduan–: Ez dago itxaropenik!

Eta gero, isiltasuna.

Barrez ari zela entzutea iruditu zitzaidan. Haren bekokiak, oinazeturik eta zimurturik, amarratzeko soka bat zirudien. Ezpainek dardara egin zioten; gaixo-ezpainak, sukartsu eta zurbil, aldi berean.

–Errieta egin zidaten, nahiko haserre: “Zeuk ikusten duzu! Zeuk ikusten duzu zenbat maite dituzun! Horra arrisku handiena! Baina guk sendatuko dugu Europa izurri horretatik! Guk garbituko dugu pozo horretatik!”. Eta dena esplikatu zidaten; ez, ez zidaten utzi ezeren ezjakinean egoten. Zuen idazleak lausengatzen dituzte, baina aldi berean, Belgikan, Holandan, gure soldaduek okupatzen dituzten herrialde guztietan, jarria dute hesia. Frantses liburu bat bera ere ezin da pasatu, argitalpen teknikoak, dioptriako eskuliburuak edo zementatzeko formula-bildumak salbu... Baina kultura orokorreko lanak, ezta bat bera ere. Bat ere ez!

Haren begirada nire buruaren gainetik igaro zen, hegan, gelako zokoetan joz, galduta lebilan gautxori baten moduan. Azkenean bazirudien apalik ilunenetan aurkitu zuela babesa, Racine, Ronsard, Rousseau errenkan jarrita daudenean. Begiak han geratu zitzaizkion kateaturik, eta ahotsak intzirizko bortxa batez ekin zion berriro:

–Ezer ez, ezer ez, inor ez! –eta oraindik ulertu ez bagenu bezala, mehatxua zein ikaragarria zen neurtu ez bagenu bezala–: Ez zuen idazle modernoak bakarrik! Ez zuen Péguy, Proust, Bergson bakarrik... Gainerako guztiak ere bai! Horiek denak! Denak! Denak! Denak!

Haren begiradak berriro igaro zituen argilunetan distira bigun bat egiten zuten liburu-bizkarrak, etsimenezko laztan bat egin nahiz bezala.

–Erabat itzaliko dute garra! –esan zuen oihuz–. Argi horrek ez du argituko Europa!

Eta haren ahots sakon eta baxuak bularraren sakoneraino dardararazi zidan, ustekabeko eta bahigarri, azkeneko silaba deitore dardaratsu baten moduan luzatzen zuen oihua:

–Nevermore!

Berriro jausi zen isiltasuna. Berriro, baina, ai zenbatez ilunago eta tenkago oraingo honetan! Bai, lehenagoko isilaldietan ere sentitzen nuen –itsasoan, uraren azal barearen azpian piztien borroka bezala– ezkutuko sentimenduen, ukatzen diren eta borrokan diharduten desiren eta gogoeten itsaspeko bizitza irakiten. Haren azpian, berriz, ai!, itomen izugarri bat baizik ez...

Ahotsak eten zuen azkenik isilune hura. Gozoa eta dohakabea zen.

–Nik banuen adiskide bat. Anaia bezala nuen. Elkarrekin ikasi genuen. Gela berean bizi ginen Stuttgarten. Hiru hilabete igaro genituen elkarrekin Nurenbergen. Elkarrekin ez bazen ez genuen ezer egiten: haren aurrean jotzen nuen nire musika; hark bere olerkiak irakurtzen zizkidan. Sentibera eta erromantikoa zen. Baina alde egin zidan. Munichera joan zen bere olerkiak lagun berrien aurrean irakurtzera. Hark idazten zidan behin eta berriro haiekin elkartzera joateko. Hura ikusi nuen Parisen, bere lagunekin. Eta zer bihurtu duten ikusi nuen!

Geldiro-geldiro mugitu zuen burua, eskariren bati uko samingarriren batez erantzun beharko balio bezala.

–Bera zen itsuena! Amorrua eta barrea, biak batera nahasten zituen. Berdin begiratzen zidan suharki eta oihu egiten zidan: “Pozoia da! Pozoi guztia kendu behar zaio piztiari!”. Edo berdin hasten zitzaidan sabelean bere hatz erakusleaz kolpetxoak ematen: “Orain beldurrak akabatzen daude, jakina!, orain beldur dira beren poltsikoagatik eta beren sabelagatik; beren industriagatik eta beren merkataritzagatik! Horixe beste ezer ez dute gogoan! Bestelako bakanak, lausengatu eta lokarrarazi egiten ditugu, ja, ja!... Erraza izango da!”. Barre egiten zuen eta aurpegia gorri-gorri jartzen zitzaion: “Dilista-plater baten truke erosten diegu arima!”.

Wernerrek arnasa hartu zuen:

–Nik esaten nien: “Neurtu al duzue zer ari zareten egiten? NEURTU al duzue?”. Hark esan zuen: “Horrek beldurtu egingo gaituela uste duzu? Beste trenpu bateko argitasuna dugu guk!”. Nik esan nion: “Hortaz, zuek itxi behar duzue hilobi hau?... betirako?”. Eta hark: “Bizi ala hil, hori da kontua. Konkistatzeko, Indarra aski da: nagusi izateko ez. Badakigu oso ondo gudarostea ez dela ezer, nagusi izateko”. “Baina Espiritua galduz! –esan nien oihuka–. “Espiritua galduz ez!”. –“Espiritua ez da hiltzen –esan zuen hark–. Ez du lehenengo aldia. Errautsetatik berriro jaiotzen da. Guk mila urterako eraiki behar dugu: horretarako eraitsi egin behar da lehendabizi”. Nik begiratu egiten nion. Bere begi argien barreneraino begiratzen nion. Zinez ari zen, bai. Horixe da ikaragarriena.

Begiak handi-handi zabaldu zitzaizkion, hilketa higuigarriren baten ikuskariari begira bezala:

–Egin egingo dute esaten dutena! –egin zuen oihu, guk sinetsi ezin izango bagenio bezala–. Metodikoki eta temaz! Ezagutzen ditut nik deabru amorratu horiek!

Burua astindu zuen, belarriak min ematen dion zakur baten moduan. Marmar bat igaro zitzaion hortz estutuen artetik, maitale engainatuaren “oi” adiakari eta bortitza.

Mugitu gabe zegoen. Zirkinik egin gabe, denbora guztian, zurrun eta zuzen ateartean, besoak luzaturik, berunezko eskuak garraiatu beharko balituzte bezala; eta zurbil –ez argizaria bezala, hondoa jotako horma batzuetako igeltsua bezala baizik: gris, kresalezko orban zuriagoekin.

Soina geldiro makurtzen ikusi nuen. Esku bat jaso zuen. Ahurraz behera, behatzak okertu samar, nire ilobarenganantz, nireganantz luzatu zuen. Estutu egin zuen, pixka batez astindu zuen, bere aurpegiaren espresioa indar basati moduko batez tinkatzen zela. Ezpainak zerbait zabaldu zitzaizkion, eta ez dakit zer aholku ematera zihoakigula iruditu zitzaidan: iruditu zitzaidan –bai, iruditu zitzaidan–, matxinatzera animatu behar gintuela. Baina ez zen hitz bat atera haren ezpainetatik. Ahoa itxi zen, eta begiak berriro. Zutitu egin zen. Eskuak gorputzean gora igo ziren, aurpegiaren parean ezin ulertuzko maniobra bati ekin zioten; Javako erlijiozko dantzetako irudi batzuen modura. Gero lokiei eta bekokiari heldu zien, betazalak behatz txiki luzatuz zanpatuz.

–Eta esan zidaten: “Eskubidea dugu eta gure eginbeharra da”. Gure eginbeharra! Zorionekoa bere eginbeharraren bidea horren ziurtasun sinpleaz aurkitzen duena!

Eskuak berriro erori zitzaizkion.

–Bidegurutzean esaten dizute: “Jo bide honetatik” –burua astindu zuen–. Ba, bide honek ez dirudi gailurretako goratasun argitsuatarantz igotzen denik, haran ilun baterantz jaisten dela dirudi, baso goibel bateko kirats-ilunpeetan ondoratzen dela!... Ai, ene Jainkoa! Erakutsiezadazu non dagoen NIRE eginbeharra!

Eta esan zuen –oihu egin zuen ia:

–Munduak Espirituaren kontra daraman Borroka da, Gudu Handia!

Finkotasun mingarri batez begiratzen zion leiho gainean eskulpituta zegoen zurezko aingeruari, aingeru estasiatu eta irribarretsu, argitsu eta baretasun zerutiarrekoari.

Bat-batean espresioa baretu egin zitzaiola zirudien. Gorputzak zurruntasuna galdu zuen. Aurpegia lurrerantz makurtu zitzaion pixka bat. Berriro jaso zuen.

–Nire eskubideak baliarazi ditut –esan zuen, normal–. Kanpainan dagoen dibisio batera bidaltzeko eskatu dut. Eta azkenean egin egin didate mesede hori: bihartik, baimena dut abiatzeko.

Haren ezpainetan irribarre-mamu bat hegan ikustea iruditu zitzaidan, zehaztu zuenean:

–Infernurantz abiatzeko.

Besoa Ekialderantz altxatu zitzaion –etorkizuneko garia hilotzez elikatuko den ordeka mugagabe haietarantz.

Pentsatu nuen: “Men egin du, beraz. Horra zer dakiten egiten. Men egiten dute denek. Baita gizon honek ere”.

Nire ilobaren aurpegiak atsekabea eman zidan. Ilargiaren pareko zurbiltasuna zuen. Ezpainak, opalinazko ontzi baten ertzen modukoak, bereizirik zituen, greziar maskaren imintzio tragikoa zirrimarratzen zuten. Eta bekokiaren eta ilearen muga, izerdizko perlak ikusi nizkion, ez jaiotzen, ernetzen baizik –ernetzen, bai.

Ez dakit Werner von Ebrennac-ek ikusi zituen. Haren begi-niniak, eta neskarenak, urlasterrean txalupa ubazterreko zirgiloari lotzen zaion bezala, hain hari mehe, hain tinkatu batez ziruditen elkarri lotuak, non bat ez baitzatekeen ausartuko haien begien artetik behatz bat pasaraztera. Ebrennac-ek atearen eskutokiari heltzen zion esku batez. Besteaz markoari heltzen zion. Begirada arrastotxo bat ere mugitu gabe, atea bereganantz erakarri zuen geldiro. Eta esan zuen; ahotsa espresio oroz biluzturik zuen:

–Gabon izan dezazuela.

Atea itxi eta alde egingo zuela iruditu zitzaidan. Ez, ordea. Nire ilobari begiratzen zion. Begiratu egiten zion. Eta esan zuen –xuxurlatu zuen–:

–Agur.

Ez zen mugitu. Geldirik zegoen erabat, eta haren aurpegi geldi eta tinkatuan, begiak are geldiago eta tinkatugo zeuden, nire ilobaren begi zabaldugeiei, zurbilegiei, loturik. Horrek iraun zuen, iraun zuen –zenbat denbora?–, neskak azkenean ezpainak mugitu zituen arte iraun zuen. Wernerren begiek distira egin zuten.

–Agur –entzun nuen.

Hitz horren zelatan egon beharra zegoen, entzungo bazen, baina entzun nuen azkenean. Von Ebrennac-ek ere entzun zuen, eta tentetu zen, eta haren aurpegiak eta haren gorputzak lasaitu egiten zirela ziruditen, bainu atsedengarri baten ondoren bezala.

Eta irribarre egin zuen; hala irudi irribarretsu bat izan zen harengandik izan nuen azkena. Eta atea itxi zen eta haren pausoak etxe barrenean galdu ziren.

Biharamun goizean goizeroko katilukada esnea hartzera jaitsi nintzenerako alde egina zen. Ilobak gosaria prest zeukan, egunero bezala. Isilik atera zidan. Isilik edan genuen. Kanpoan eguzki zurbil batek distiratzen zuen lainotan. Oso hotz egiten zuela iruditu zitzaidan.



## EGUN HARTAN

Muttikoak harritu gabe jarri zuen bere eskutxoa aitarenean. Aspaldiko partez, nolnahi ere ere, iruditzen zitzaion. Lorategitik atera ziren. Amak jeranio-ontzi bat jarria zuen sukaldeko leihoan, aita ateratzen zenean beti ohi zuen bezala. Gauza bitxi samarra zen.

Giro ona egiten zuen; baziren lainoak, baina nahasiak eta listuak; ez zuten begiratzeko gogorik ematen. Hortaz, muttikoak bere oinetakotxoan muturrei begiratzen ziren, bideko harri xeheak aurrean nola botaten zituzten. Aitak ez zuen ezer esaten. Normalean haserretu egiten zen zarata hura entzuten zuenean. “Jaso hanka horiek!” esan ohi zion, eta muttikoak hankak jasotzen zituen, une batez, eta gero maltzurki arrastaka eramaten hasten zen berriro poliki-poliki, nahita, pixka bat, ez zekien zergatik. Oraingo honetan, ordea, aitak ez zuen ezer esan, eta muttikoak oinetako-zolak tarraska eramateari utzi zion. Lurrera begira jarraitu zuen: aitak ezer ez esateak kezka eragiten zion.

Bidea zuhaitz artetik sartu zen. Gehienak hostorik gabe zeuden oraindik. Batzuk, berdetzen hasita; berde-kolore garbi eta argi batezko hostotxoak. Azukre-dasta pixka bat ez ote zuten ere pentsa zitekeen. Aurrerago bidea okertu egiten zen, Bista Ederra ikusiko zuten, Grésivaudan haranaren gainean, zuzen amiltzen den harkaitza, eta han behe-behean zuhaitz txiki-txikiak, etxe txiki-txikiak, errepideak urratu arinak balira bezala, eta Isère ibaia, sigi-sagan, gandu arin-arin baten azpian. Gelditu eta begiratu egingo zuten. Aitak esango zuen: “Begiratu trentxoa”, edota “Ikusten errepidean mugitzen ari den puntu beltz hura? Auto bat da. Jendea dago barruan. Lau pertsona, andre dotore bat txakurtxo batekin, eta gizon bizar-luze bat”. Muttikoak esango zion: “Baina nola ikusten dituzu?” –“Ezkerreko begian kataleju txiki bat txertatu zidaten, badakizu –esango zion aitak–. Begira –esango zion begia ahal zuen guztia zabalduz–, ez duzu ikusten?”. Eta muttikoak, egia den ala ez den oso seguru ez dagoenez: “Bueno... ondo-ondo ez...”. Bazitekeen une horretan aitak barre egitea eta muttikoak bizkarrean hartzea, arrelepo.

Aitak, ordea, arreta gabe begiratu zuen Bista Ederrera, eta ez zen gelditu ere egin. Mutikoaren eskutxoa berean ongi estututa zeukan. Halako moduan non, aurreraxeago, arroilaren ertzak gora eta beheara egiten duen lekutik gertu igarotzean, muttikoak ezin izan baitzuen aitaren eskutik askatu, maldatxoa igotzeko, esanez: “Begira, aita, handitzen ari naiz... handitzen... handitzen... Begira, zu baino handiagoa naiz... eta orain txikitzen ari naiz... txikitzen ari naiz...”. Pixka bat amorratu egin zuen horrek, errituetara oso atxikia baitzen. Beste pasieren berdin-berdina ez zen pasiera bat ari zen bihurtzen hura.

Aurreraxeago harri karratuko harkaitza zegoen. Normalean eseri egiten ziren han. Oraingo honetan ere eseriko ote ziren bururatu zitzaion. Harri karratuko harkaitza geroz eta hurbilago zegoen, eta muttikoak bere buruari galdezka ari zen ea eseriko ziren. Han eseriko ez ote ziren beldur pixka bat zuen. Beldur pixka-pixka bat, egiaz, benetakoa beldurra. Hurbil-hurbilera iritsi zirenean, aitari tira egin zion poliki-poliki eskutik.

Eskerrak aitak tira egiten utzi zion eta eseri egin ziren. Ez zuten ezer esan, baina askotan egoten zen aita, harri hartan eserita, ezer esan gabe. Batzuetan (oso bero egiten zuenean): “Ufa! Bai on egiten duela honek”. Gaur ez zuen oso bero egiten. Normala ez zen gauza bakarra aitak eskutxoa behin ere ez uztea zen. Hemen aitak askatu egiten zion normalean eskua, eta muttikoak, eserita luzaro egoterik

gustatzen ez zitzaionez, zuhaitzen azpira joaten zen, pinaburu bila. Batzuetan marrubi bila ere bai, baina marrubiak ez ziren sarri izaten.

Eserita geratu ziren, eta muttikoa ez zen mugitzen. Areago, arreta jartzen zuen hankak ez kulunkatzeko. Zergatik? Ez zekien; aitak eskutik horrela heltzen ziolako. Ezin zuen pentsatu ere –ez zuen pentsatu nahi ere pinaburuetan, marrubietan. Marrubirik ez zen izango gainera, seguru asko, eta, pinaburuak, ba, pinaburuak ez dira hain dibertigarriak.

Baina, mugitu gabez, beldur pixka bat sartu zitzaion berriro. Ez asko, pixka bat besterik ez, pixkatxo txiki-txiki bat, ohean zaudenean eta ilunpetan gauzak kirrinka egiten entzuten dituzunean bezala, baina aita eta ama beren gelan hizketan ere entzuten direla. Pozik zegoen aitak eskutik heltzen ziolako, hala beldur gutxiago izaten delako, baina beldurra hain zuzen ere aitak eskutik heltzen ziolako zuenez... ba, hura bezalako ibilaldietan lehenengo aldiz, gustura itzuliko zatekeen muttikoa berriro etxera.

Aitak entzun izan balio bezala, jaiki zen, muttikoa jaiki zen, etxera itzuliko ziren ala beste egunetan bezala Grisonne gaineko zubitoraino joango ote ziren pentsatuz. Ez zekien oso ongi zer zuen nahiago. Zubitorantz jo zuten, hainbat hobeto, hortaz.

Zubitxoaren gainetik errekarri begira egon ziren (aitak erreka esaten zuen), hazi azukregorritu handiak ziruditen harrien artean gurguraka nola zihoan ikusten. Behin aitak zorro bat ekarri zion horrelako harritxo beteta, eta gozokiak ziren. Aspaldi izan zen hori, Eguberria baino lehen, ez zen ongi gogoratzen ere. Nolanahi ere, harrezkero ez zen inoiz gozokirik izan, eta ikaragarri gustatzen zitzaion erreka harri begira egotea, esango litzateke begietan atsegina ematen ziola, gozokiek mingainean ematen zioten bezala.

Aitak esan zuen:

–Noiztik ote doa joanean ur hau...

Muttikoari bitxia iruditu zitzaion hori. Jakina aspalditik zihoan, noski. Lehenengo aldiz etorri zirenean ere bazihoan. Bestalde, ez zuketan zubirik egingo, gainera, urik izan ez balitz.

–Eta zure muttikotxoak bizar zuri luze-luzea duenean –esan zuen aitak–, orduan ere joanean jarraituko du. Inoiz ez dio utziko joateari –esan zuen aitak, urari begiratu–. Gogoeta kontsolagarria da –jarraitu zuen esanez aitak, baina, bistan zegoen, hori ez zen bere muttikoarentzat, beretzat zen hori.

Oso-oso luzaro egon ziren urari begira, eta ondoren itzuli egin ziren azkenean. Trikuaren bidea hartu zuten; behin bide hartan triku bat topatu zuten gero deitzen zion horrela muttikoak. Piko samarra zen. Egurrezko iturriaren aurretik igaro behar zen; haritz-enbor barne-hustu batez egindako aska batean hain ur garbizko haria erortzen da han, hain kristal soilezko kantuekin, non ikusi hutsak egarria ematen baitu. Baina ez zuen oso bero egiten.

Gorenean bidezidorra zertxobait biratzen zen, eta muinoaren beste aldetik jaisten zen. Goretetik etxea ikusiko zen. Oso ongi ikusten zen. Ongien ikusten zena sukaldeko leihoa zen, jermanio-ontzia, dena gorri eta laranja-kolora, eguzkitan zela, eta ama atzean zegoen baina ez zen ikusten.

Baina aita nekatuta zegoen, nonbait, zeren eseri egin baitzen goraino iritsi baino lehen. Normalean inoiz ez zen esertzen zuhaitz-enbor hartan. Eseri zen eta bere belaun artera erakarri zuen bere muttikoa. Esan zion: “Ez zaude nekatuta?”. – “Ez” esan zion muttikoak. Aitak irribarre egiten zuen,

baina ahoaren alde batekin bakarrik. Ilea, masaila laztantzen zizkion. Arnasa sakon-sakona hartu zuen, eta esan zuen: “Oso-oso txintxo portatu behar duzu amarekin”, eta muttikoak baiezko keinua egin zion buruaz, baina ez zuen asmatu zer esan. “Mutiko jatorra”, gehitu zuen aitak, eta altxatu egin zen. Muttikoari galtzarbeetatik heldu eta aurpegiaren pareraino jaso zuen, eta bi musu eman zizkion bi masailetan, berriro lurrean utzi zuen eta ahots irmoz esan zion: “Goazen!”. Eta bideari heldu zioten berriro. Goraino iritsi ziren, eta baratzeko horma, bi alertzeak, etxea, sukaldeko leihoa ikusi zituzten.

Jeranio-ontzia... ez zegoen.

Muttikoak segituan ikusi zuen jeranio-ontzia ez zegoela sukaldeko leihoan. Aitak ere bai, seguru. Zeren gelditu egin baitzen, eskutxoari inoiz baino estuago helduz, eta esan zuen: “Hara, bai nik esan”.

Geldirik zegoen, begira eta begira, behin eta berriro errepikatuz: “Jaungoikoa, nola egin dut baina?... banekien-eta... banekien-eta...”.

Muttikoak gustura galdetuko ziokeen zer, baina ezin zuen, aitak gogor-gogor heltzen zion-eta eskutik. Eta goragalea etortzen hasi zitzaion, gaztaina-pure gehiegi jan zuen hartan bezala.

Orduan aitak esan zion: “Zatoz”, eta jaitsi orde, etorritako bidetik jo zuten berriro, bizkor-bizkor. “Nora goaz, aita? Nora goaz?”, esaten zion muttikoak, eta goragalea zuen, gaztaina-purearen egun hartan bezala.

–Bufferand andrearenera –esan zion aitak. Oso ahots bitxia zuen, postariak auto batek jo eta bizikletatik erori zen egun hartan zuen bezalakoa–. Oso txintxo da –esan zuen aitak–, ezagutzen duzu, haren etxean geratuko zara lotan.

Muttikoak gustura galdetuko ziokeen zergatik, baina aitak gogor –gogorregi– estutzen zion eskua, ezin zion galdetu. Bazitekeen horregatik izatea, baina geroz eta goragale handiagoa zuen. Hainbestearaino non lurrean etzan nahiko zukeen, gaztaina-purearen egunean bezala, baina aitak hain estu heltzen zion eskutik, eta bizkorregi zihoazen hala ere, eta orain goragalea zuen, sabelean eta denean, soinean, hanketan, hanketan zorabioa duzula esatea tontakeria bat ez bada.

Bufferand andreak –oso zaharra eta zimurrez betea zen–, biak ikusi zituenean, besoak bularrean tolestu zituen eta esan zuen: “Ai ene, ai ene!...”.

Aitak esan zuen: “Ba, bai; horra”, eta sartu egin ziren. Eta orduan, kanela-usaineko egongelatxoan sartu zirenean, muttikoak ezin izan zion eutsi eta alfonbra gainean etzan zen.

Ez zuen oso ongi ulertu zer ari ziren esaten. Ilunegi zegoen entzun ahal izateko. Bufferand andreak hitz egin eta hitz egin egiten zuen, ahots mehe, erlastu batez; berak amets batean bezala entzuten zion.

Aitak muttikoa jaso eta ohe batera eraman zuen. Luzaro laztandu zion ilea, eta besarkada estu eta luze bat eman zion, gauetan ohi zuena baino estuagoa eta luzeagoa. Eta gero Bufferand andreak maleta bat eman zion, eta berak Bufferand andrea besarkatu zuen, eta irten egin zen. Eta Bufferand andrea muttikoa zaintzera joan zen, zapi busti bat jarri zion buruan; kamamila prestatu zion. Garbi ikusi zuen andrea negarrez ari zela; malkoak isuri ahala xukatu egiten zituen, baina ikusi egiten zen hala ere.

\* \* \*

Biharamunean kubo batzuekin jolasean ari zen, Bufferand andrea jangelan hizketan ari zela entzun zuen. Paparrekoa eta kapela lumaduna zituen gizon baten erretratua osatu behar zen kuboez. Begia eta kapela falta zituen oraindik. Muttikoa jaiki eta sarraila-zuloaren kontra jarri zuen belarria, hanka-puntetan zutik jarriz gero, belarriaren pare-parean baitzegoen. Ez zuen ongi ulertzen, emakumeek ez baitzuten oso ozen hitz egiten; xuxurlaka ari ziren. Bufferand andreak geltokia aipatzen zuen. “Bai, esaten zuen, bai, bera ere bai: konpartimenturen batean emaztea ikusten ahalegintzen ari zen, eta ezagutu egin dute”. “Jaungoikoa –esan zuen beste emakumeak–, ezin zion, bada, bere buruari galarazi...” “Ez –esan zuen Bufferand andreak–, ezin izan du, nork ahal izango zukeen? ‘Nire errua izan da, nire errua izan da!’ errepikatzen zuen denbora guztian”. Eta gero berari buruz hitz egin zuten, muttikoari buruz. “Eskerrak –esaten zuen emakumeak–, eskerrak Bufferand andrea han zegoen”. Bufferand andreak hitz batzuk erantzun zituen, baina zerbaitek bustitzen zuen haren xuxurla eta ezin zen ulertu.

Muttikoa bere kubo-jolasera itzuli zen berriro. Lurrean eseri eta begi bat ageri zen kuboaren bila hasi zen. Negar egiten zuen isilik, malkoak zerizkion eta ezin zien eutsi. Begia zuen kuboaren aurkitu zuen eta bere lekuan jarri zuen. Kapelarena errazagoa zen. Ahaleginean zaratarik egin gabe xurgatzen zituen mukiak, malkoetako bat ezpain ertzeraino irristatu zitzaion, mingain-kolpe batez bildu zuen, gazia zen. Luma zen zailena, ez zegoen jakiterik zuzen ala azpikoz gora zegoen. Malko bat, lumaren gainera erorita, irristatu egin zen, zalantzan, eta hantxe geratu zen zintzilik, ihintz-tanta bat bezala.

## AMETSA

Ez al zaitu horrek inoiz atsekabetu? Zorion-egunetan, eguzkitan hondar beroan etzanik, edo Borgoinako ardo sendo batek bustitako kapoi baten aurrean, edota kafe on baten usaina darion “kafe huts” baten inguruan solasaldi gogo-pizgarri eta aske horietako baten bizitasunean, gozamen soil horiek horren gauza normalak ez zirela pentsatzea gertatzen zitzaizunean. Eta zeure burua Indietan edo beste nonbait koleraz hiltzen ari zen jendea gogoratzera behartzen zenuenean. Edota Txinako erdialdean herri osoka goseak hiltzen ziren biztanleak; eta japoniarrek masakratzen edo torturatzen zituzten eta beren egunak lokomotora baten labean bukatzera bidaltzen zituzten beste asko.

Ez al zintuen atsekabetzen haiei gogapen bat baizik ezin eskaini izanak –gogapena ere ba al zen, bada?—. Imajinazio lauso bat baino gehiago ba ote zen? Eguzkiaren berotasun gozo hau, Borgoinako ardoaren usaina, eztabaidaren kilika baino nahikoz mami gutxiagoko irudipena. Baina hori guztia bazen nonbait, bazenekien, frogak ere bazenituen: zalantzan jarri ezineko kontaketak, argazkiak. Bazenekien eta inoiz edo behin saiatu ere saiatzen zinen errebolta intelektual soil bat baino zertxobait gehiago sentitzen, “partekatze” ahaleginak egiten. Alferrik zen. Zeure azalaren barruan itxirik sentitzen zinen, bagoi beruneztatu batean bezala. Ezin atera handik.

Horrek atsekabetu egiten zintuen batzuetan, eta aitzakiak bilatzen zenituen. “Urrutiegí”, pentsatzen zenuen. Gauza horiek Europan gertatu izan balira, gutxienez! Baina iritsi ziren hona ere: Espainian lehendabizi, gure muga-mugan. Eta gehiago kezkatu zuten zure gogoa. Baita bihotza ere. Baina “sentitu”, “partekatu” esaten dena... Zure txokolatearen usainak, goizean, kruasan egin berriaren dastak, zenbatez presentzia biziagoa...

Frantziara mugatu zinen, Parisa, esan ohi den beste hura bezala: Marne ibaian, Senan, Loiran egingo dugu borroka guk... Berehala zeure lagunei gertatu zitzaizkien; preso eraman zituztela, edo deportatu egin zituztela edo hil egin zituztela jakinarazten zizuten egun oro... Saminki sentitzen zenituen kolpe anker horiek. Baina zer gehiago? Zure leihorik gabeko bagoian geratzen zinen itxita, giltzari bi bira emanda. Eta kaleko eguzkiak, logela bateko epeltasunak, merkatu beltzeko urdaiazpiko argalak askoz presentzia errealagoa zuten zuretzat nonbait hankak eta eskuak erretzen ari zitzaizkien haien agoniako oihuek baino.

Gertatu izan zait, hala ere, bakartasun zital horretatik ateratzea. Imajinazioak, esnatuta gaudenean indargabea bada ere, mirarizko ahalmena izaten du lotan gaudenean. Imajinazioak? Ikusteak. Dei diezaiogun horrela, nahi baduzue. Nik bestelako iritzia dut gai horri buruz. Ikusi izan ditut ametsetan ez imajinazioak ez bizitza inkontzienteak esplika ezin ditzaketan gauza bitxiak. Nik amesten nituen unean handik hainbat miliara gertatzen ari zirenak. Frogarik ez da, jakina; horrelako gaietan inoiz ez da izaten frogarik. Baina zenbait zirkunstatzian lotan bizi izan dudanak nahikoa eta sobera frogatzen dit badela halako kontzientzia lauso zabal bat, halako kontzientzia unibertsal bat, hor nonbait dilindan dabilena, zenbaitetan, horretarako egoki diren gau batzuetan, ametsetan partaide egiten gaituena. Gau horietan egiaz ateratzen gara bagoi beruneztatutik, eta gai izaten gara, azkenik, ezpondaz harago ikusteko...

\* \* \*

Gau horietako batean landa biluzi batean zehar nindoan. Nekez nenbilen. Zerua beheregi zegoen, zatika zintzilik, lurrean arrastaka zihoazen eta laharretan kateatzen ziren gazazko lits zirtzikatutan. Lits haien artean bide bila nenbilen, barnetik ez igarotzen saiatuz, zeren bestela, laino opako batean berehalaxe galdu ez ezik, erresistentzia astun baten moduan sentitzen baitzen haien loditasuna. Bultzaka eraman behar nituen aurrean, damasko zurbilezko errezel astunak bailiran jaso. Akitzen ari nintzen eta ozta aurrera egiten nuen. Lurra beltza zen. Bustia eta afoa. Pausoak markatuta geratzen ziren, sakonunetxo arin batez hasieran, eta sakonunetxo hori goroldio errezo eta egur ustelduzko hondarrak igerian zeuden kedar-koloreko urez betetzen zen segituan. Usain bitxi bat zegoen; ez zen humusarena edo ustelarena, zorne- eta izerdi-usaina zerion nahastura batena baizik. Nazka eta larritasuna eragiten zidan. Nekez nindoan, eta berriro neure oinatzak topatzen hasia nintzen. Biribilean ote nenbilen, bada? Urruntzen, noranzko zuzen bati jarraitzen ahalegindu nintzen. Baina neure oinatzak aurkitzen nituen berriro, geroz eta hurbilago. Berehalaxe lokatz beltz, izoztu batean gelditu nintzen, oinatzak elkarrekin nahasten zirela, milaka gizonek egin izan balituzte bezala.

Baina bakarrik nengoen, egon. Iruditzen zitzaidan mendeetako bakardade bat neramala arrastaka. Bakardade hura beharbada hautsi zezakeenik, oroitzapen bat baizik ez nuen: hara iritsi baino lehen, ibairen bat igaro behar izan nuela, inondik ere. Eta bi beltxarga, bi beltxarga beltz hegaldatu zirela, nik uste, ni hurbiltzean. Ez nintzen ongi gogoratzen, baina gogoan nuen haien itzal erraldoia, nire buruaren gainetik igarotzen ari zirenean. Gogoan nuen haien hegadaren hotsa, haizearen hotsa haien lumetan, eta ufa izoztua nire bekokian. Oroitzapen horrek ere larrimina eragiten zidan.

Ez dakit noiz ohartu nintzen ez nengoela bakarrik. Norbait zihoan aurrerago. Bizkorrago ibili nahi nuen, irudi iheskor hura harrapatu. Behin ere ez nuen ikusten zehazki, beti zen laino-mihiren bat edo beste bion artean. Aldika dena ezabatzen zen, eta hutsune lazarri bat uzten zidan bihotzean. Gero berriro ikusten nuen, kulunkari eta baldar samar, grisaxka eta isil.

Ia bat-batean, nire ondoan zegoen. Niregandik gertu zihoan, nire pauso berean, motel eta hotsik egin gabe. Gizon baten gorputza zela ohartu nintzen, ikaragarri argala. Aurpegia zurbila eta karratua zuen, irribarre bitxia. Haren besoak esku hezurtsu luze bat luzatu zuen nire aurrean, zerbait adierazteko bezala.

–Ez dut ikusten –esan nion.

Ez nintzen ezezagun bati hitz egiten ari. Esan nahi dut ez zela ezezaguna niretzat, une horretan. Ongi ezagutzen genuen elkar, eta era guztietako oroitzapenek lotzen gintuzten elkarrekin. Horregatik galdetu nion:

–Zer erakutsi nahi didazu? Ez dut ezer ikusten.

Ez zidan erantzun, baina bere esku zargaldua astindu zuen, behatz erakuslea luzatuz, urduri samar.

–Erantzun iezadazu, bada –esan nion oihuz.

Orduan nireganantz biratu zuen bere aurpegi bitxi irribarretsua, masail-puztua, suntsitua. Ahoa zabaldu zuen, eta mingain bihurritu izugarri hura ikusi nion, zurrundua, beltza eta zartatua, barakuilu egosi baten gisa kiribilkatua. Eta orduan gogoratu nintzen, baietz, burdin goriaz erre ziotela. Dardaraz ikusten nion, mokoka egin nahi duen antzara batenaren moduan. Hitz egiteko azken ahalegin hori patetikoa eta ezin jasanezkoa zen. Ez errukiak eta amorrak ezin gaindi zezaketen halako higuin gisako batez bete ninduen. Biratu nintzen, eta nire ezkerretik geldiro-geldiro igarotzen ari ziren bi giza irudi hartu nahi izan nituen lekukotzat, baina gizon haien itxurak arnasa moztu zidan. Hain zargaldurik zeuden non ez bainuen ulertzen nondik ateratzen zuten zeramaten zamari eusteko indarra: bizkarra urratzen zien T baten itxurako burdina ikaragarri bat, zimurra eta herdoildua. Isilik zihoazen, gelditasun zalantzati eta makabro batez, eta arnasa baizik ez nien entzuten, zotin eten baten moduan. Lehenengoak aurrerantz makurtzen zuen burua; haren burezurrak demasekoa zirudien azala hezurrari itsasten zitzaion aurpegiaren gainean. Garondoan sakonune bat zuen, bi zainen artean; eskumuturra osorik sar zitekeen hartan. Ile motz, beltzak tindu hausgara bat zuen hartuta. Han eta hemen izerdiak buruari itsasten zuen, beste leku batzuetan azala baizik ez zitzaion geratzen, soilgune bat bezala; eta haietan tortikak, batzuk odoletan. Laguna txikiagoa zen. Burdinak pisu handiagoa zuen haren bizkarrean eta gogorkiango mailatzen zion. Aurpegia mila zimurtxo ezalita zeukan, haurren globo erdi-hustu baten antzera. Azala, errautsaren kolorekoa. Begiak hain kanporatuta, non bilar-bolen moduan biratu behar zutela baitziruditen, eta zuria, urratua erabat. Belarrietako bat burezurretik erdi-askaturik zeukala ere ikusi nion, hartatik bi ezpain zimurtu eta zornaturen artean igarotzen zitzaion arrakala odoltsu batek bereizirik. Itzalak balira bezala igaro ziren biak, baina beste batzuk zetozkien atzetik. Oinek ehun kilo pisatzen zutela iruditu zitzaidan, eta ezerk ez nindukeen behartuko pauso bat egitera. Gorputz-soin erdi-biluzi bat ikusi nuen, piltzar batzuen azpian; saihetsak hauspo baten moduan goratzen eta beheztatzen ziren, eta sabelaren azpian –desagertua zirudien, hain baitzegoen hutsik–, ahaleginak gerria puzten zion, eta, pauso bakoitzeko, gantz bigun kezkarriak ikusten ziren mugitzen piltzarren azpian. Gorputza oraindik ere gizona eta zuria, baina besoak eta hankak dagoeneko eskeletikoak eta more-kolorekoak zituen gizon bat ikusi nuen. Haren begiak zurbilak eta itsuak bezalakoak ziren, tinta-koloreko begi-uztaiaren barruan, eta ni hotzak hezurretaraino izozten baninduen ere, haren ilea, haren alkandora izerdiak itsatsita zeuden. Beste batek ia normala zela eman zezakeen, sudurra, lokiak, belarriak hostoen zainen gisako zain gogortuz ezalita ez baleuzka. Sudur-zulo bat, hanpatu samarra, modu bitxi batean zeukan handiturik, gauean sagu batek marraskatu izan balio bezala. Beste baten lepauztaiek zulo sakonak eratzen zituzten; izter artean biraka eroria zirudien sabel ikaragarri bat zeraman aurrean neke handiz bultzaka. Beste batek hain handiturik zeramatzen gongoilak galtzarbean, non esango bailitzateke erraien modura zabaldurik zeukala epidermisaren azpian. Denek zuten azala bitxia, esne mindua edo lurrez zikindutako argizaria bezalakoak, legenez, urratuz, pikortaz zantrotua, organismoak erreboltatu, oihu gorri haien edo intziri zurixka haien bidez protesta egin, entzunarazi nahi izan balu bezala.

Zer adin zuten? Ezin asmatu. Era guztietakoak, inondik ere, baina nola jakin? Lehen ikusian “zaharrak, oso zaharrak” esango nukeen, baina segituan zuzenduko nukeen. Baziren oso gazteak ere, zalantzarik seguru. Ikusten ari naiz, oraindik ere, lainoetatik irteten, aurpegi hunkigarri hura... Ezpain mehe haiek, hauskorak, hortz txikitxo zuri-zurien gainean –asko, faltan– oinazez erdi-zabaldurik. Eta inguru guztian, zinkaren koloreko azal hura, nekazari zahar batenaren gisa pitzatua... Hiru zimur sakon haiek, gainera ile horizko kizkur gozoak jausten zirela... Eta begi handitu haiek, aspaldidanik erabilitako zetazko paper samur bat bezala zimurtutako betazal arreetan hondoratuak. Beste batek bekokia zuri-

zuri eta leun-leun zuen oraindik, hamasei urterekin baizik izan ohi ez den bezala. Baina, haren azpian, ezin konprenituzko hondamendi bat pairatua zirudien aurpegiak. Begiek nini sukartsu bat baizik ez zuten agerian, zauri baten moduko konjuntiba gorri batean itorik. Ahoa, bizirik gabe, sudurretik kokotsera masailak ebakitzen zituzten bi parentesi handituen artean hondoratzen zen. Baina lepoa, neskato batena bezain samurra, leuna eta malgua, oraindik ere.

Lainoa jaso zuen. Orain landa ikusten nuen inguruan, hari landa deitzerik baldin bazegoen: ia gorabeherarik ez zuen zirku bat, alde bat laino zikin batean galtzen zela eta beste aldeak mendixka zehazgabeetarantz goratuz zihoazela. Lur beltz, basatsu eta birrindu hura, alde guztietan. Zuhaitz bat bera ere ez. Berdegune bat ere ez, begia non pausatu. Zerua beltz, lurra bezala. Ibarra deitu behar zen sakana batean, eraikin geometrikoak bereizten nituen, zerua eta lurra bezala beltzak, eta are tristeagoak eta goibelagoak ilaratan zeudelako. Hamarreko multzotan, hogeita hamarren bat ilara bakoitzean, dozena pare bat mila gizon aterpetzeko lain, pentsatu nuen. Erdian eraikin garaiago bat, inoiz zuria izana, behinola gorri izandako baina, gainerako guztia bezala, zerion kea bezala belzkara bihurtutako adreiluzko tximinia batekin. Hara nindoan. Berriro abiatu nintzen. Artean urruti zegoen eta hain astuna nuen bihotza! Lurra oinetan itsasten zitzaidan, eta nire begiradak, nora ere begiratzen nuen, talde goseti haiek, itzal argal haiek besterik ez zuen ikusten, isiltasun goibel hartan garraiatzen zituzten era bateko zein besteko zamen azpian leherturik... Egur pilak, zementu-zakuak, burdinazko habeak... Baziren beste irudi batzuk ere, beltzez jantziak; haiek sendoak eta erneak. Gizon haiek makila bat baizik ez zeramaten. Taldeen artean zebiltzan, inor geldirik gera ez zedin zaintzen. Ezponda batean zehar langile-uztarri errukarri haietako bat topatu nuen. Atzeko gizona lurrera erorita zetzan; garraiatzen ari zen egurraren muturra askatuta zeukan. Luze zegoen etzanda, aurpegia lur basatsuan zuela. Kideak, aurrean, zutik, makurturik, geldi, bere gurutzea garraiatzen ari zela zirudien, eta ez zen mugitzen, ez zuen begiratzen, ez zuen pentsatzen ere, seguruenik; burua zintzilik dutela, berriro abiaraziko dituen zigorkadaren zain dauden zaldi gaixo zakartu horietako bat zirudien. Bitarte horretan, gizon beltz haietako bat, hara joanik, akitutako gizona makilaka altzarazi nahian ari zen. Nazka eman zidan, gizon hark kolpe haien mende hiltzera etsi besterik ezin egin zezakeela iruditzen zitzaidan. Ez, ordea. Bere hezurdura mamigabea jaso, habea ere jaso, eta langile-uztarriak aurrera jarraitu zuen balantzaka. Aurreraxeago, gizon bat bakarrik, bera baino astunagoa zen zaku baten azpian bitan tolesturik, azal argizaritsu eta dardarati batez estalitako eskeleto hutsa, orpoak haragi bizitan, oinetako andeatuak odolez eta gazurez bustitzen zituela, gonbitoka zihoan ibili ahala, edo botatzeko ahaleginetan, hobeto esanda, kokotsetik eta lepotik behera erortzen zitzaion behazun urri bat isuriz. Urdaila karranpa ikaragarritan uzkuratzen zitzaion, eta gizon beltz batek bizkarrean makilakadak emanez berotu nahi zion bihotza.

Baziren hain akiturik ez zeudenak ere. Haiek begirada bazuten behintzat. Jasangarriagoa ote zen? Begirada hartan lazera eta beldurra baizik ez zen ageri. Oraindik ez zitzaizkien hezurak ikusten larruaren azpian, baina azala itxura higatua, pikortsua eta hitsa hartzen hasia zuten dagoeneko, hasia zuten gainbeheraren adierazgarri. Nabari zituzten aurki edema bihurtuko ziren hanturak, aurki zauriak izango ziren gorriuneak, aurki zornez beteko ziren zurbiluneak. Ez dakit ez ote zen erdiragarriagoa oraindik ere osasuntsu samar ikustea eta gero zer bilakatuko ziren jakitea. Aurrera nindoan. Ikaragarritzko hotza nuen. Ez dakit haize hotza ala pena zen; begietatik malkoak zerizkidan, eta erregarri irristatzen zitzaizkidan aurpegian behera. Aurrera nindoan. Zementu-zaku pila baten ondoan zorigaiztoko gorpu bat zetzan, kuzkur samar. Bistakoa zen hilda zegoela. Gizon beltz bat bere makilamuturraz irauli nahian ari zen, hondarretan geratutako marmuka bat iraultzen den bezala, erdi-



axolagabez erdi-nazkaz. Aurpegia ikusi nion; heriotzak lohikeriak garbituak zizkion eta ederra zen, lehengo edertasuna zuen berriro. Ihes egin nahi nuen, baina ezin. Ibilera astun hartan aurrera jarraitu baino ezin nuen egin. Biribilean ibili nintzen nonbait. Zeren behin baino gehiagotan iruditu baitzitzaidan bikote heriogarri hura topatzea: gizon beltza bere makila-muturraz zirikatzen, mespretxu okitu batez, eta gorpu bizigabea haren oinetan. Aurrera nindoan. Zingira batetik igarotzean, gauza bigun bat zapaldu nen. Bihotzak jauzi egin zidan eta salto egin nuen. Esku bat zen. Esku baten ahurra. Bizkarrez, besoak luze, etzanda zegoen gizon batena. Haren aurpegi argala zertxobait mugitu zen eta begiek begirada lauso bat igorri zidaten. Itsaspeko piztiaren batek, olagarro batek-edo, begiratu izan balit bezala izan zen. Ezin jasanezkoa zen! Ez nintzen gauza gizon hura ukitzeko, ez, ezta ezergatik ere. Eta urrundu egin nintzen, nire bideari jarraitu nion, nire oin astunak neke handiz aurreratuz. Baina ezin izan nuen eragotzi, hala ere, atzerago, makilak hezurretan egiten zuen hotsa entzutea.

Beste gauza asko ere ikusi nituen, noski, baina nire oroimenak galdu egin ditu. Gogoan dut talde bat, barrakoietatik urrun samar, ehunen bat gizon, haizeak piltzarretan zabaltzen zuen ke artean erdi-ikusten zirenak. Iltaran zeuden, zutik irmo, maleta kaskar bat edo hatua oinetan, oinetako txarrez jantzitako oinak, lokatz izoztuan beratzen. Osasun onean ziruditen, nahiz eta margultasun bitxi bat izan denek, sotoan landatzen diren endibia horiek bezala. Belarriak baizik ez zituzten gorri, haizetan, eta belarri-pare haiek itxura komiko goibel bat zuten guztiek. Zenbat denbora zeramaten han? Haien ilaretan baziren hutsuneak; batzuk erorita zeuden: eroritako lekuan uzten zituzten. Besteen gelditasuna haluzinagarria zen ke zaluari; makila besapean zutela, eskuak berotzeko bata bestearekin igurtziz hara-hona zebiltzan gizon beltz batzuen presentziak esplikatzeko zergatik gelditasun hura. Aurreratu egin nituen. Hala ote datoz beti, galdetu nion neure buruari, gehiago ote datoz denbora guztian? Eta non sartzen dituzte? Eta bat-batean hildakoaz gogoratu nintzen, eta besteez, eta gizon mutuaren bizkarrean josita ikusi nuen zenbakiaz, ehun eta hirurogei mila eta zerbait, eta barrakoi haiek zenbatentzat? hogeita hamar mila gehienera ere, eta orduan ke-turrusta bat erori zitzaidan gainera, eta eztarrian sartu zitzaidan, eta hain usain lazarria arnastu nuen non oilo-larrua jarri baitzitzaidan gorputz guztian, sufre-usaina pixka bat, baina baita beste usain bat ere, hezur kiskalien eta sarraskiaren usain higuigarria. Eta izuz begiratu nien eraikin grisaxkari eta haren mamu-itxurako tximiniari, bere ke-farfailekin, eta izumenezko hotzikara batez ulertu nuen zer gauza makurra nahi zuten esan.

Hemen zulo bat du nire oroimenak. Ke hura eta nire izularria nahastura hilgarri bat balira bezala eta hark galarazi izan balit bezala konortea. Ke haren baitan luzaro ibili nintzela iruditzen zait. Eta, hala eta guztiz ere, bai, ikusten ditut gauza batzuk: oroitzapen-uhartetxo mortu batzuk. Berriro ikusten dut mingaina erre zuen laguna. Haren aurpegi karratu, zuri, torturatua, oraindik ere irribarre sekretu eta izoztu hura eskaintzen didala –eta orain ongi ohartzen naiz Yorick-en irribarre zela. Esku-ahurrak erakusten dizkit, mingaina bezalaxe erreta, pusla zornatuz eta pilda odoltsu, belztuz estaliak. Eta irribarre egiten du, irribarre. Gogoan dut beste gizon bat ere, korrika, eta ez dut ulertzen nola egin dezakeen korrika oin ikaragarri handi, desitxuratu eta zauritu haiekin, eta kardan-giltzadura bat ziruditen belaun puztuen inguruan artikulatutako bi makila bezalako hanka haiekin; eta korrika egiten du hala ere, eta ondotik igarotzean haren arnasestu erlatsa, presatsua entzuten dut; ez dakit zer adierazten duen arnasa horrek, itomena ala beldurra. Hor dago zotinka besoetan daukadan haur hori ere. Nor zen? Ez dakit. Besarkatuta daukadala baizik ez dut ikusten, nire kontra estututa. Nire zotinak bereekin nahasten ditut. Hor dago betiere ke hori, eta haurraren ile artean zorriak ikusten ditut lasterka. Eta berriro igaro naiz iltaran dauden gizonen ondotik, baina geroago, ordu asko igaro ondoren. Eguneko argia aldatu egin da eta iluntzen ari du. Ni noa lasterka orain, lasterka igarotzen naiz, eta haiek

han daude oraindik, oinak lokatzetan, geldirik, neguko haizearekin nahastuta dabilen kearen arrakaletan. Haien ilarak areago bakandu dira. Eta belarriak ez dituzte gorri dagoeneko. Ikusten zaien azal guztiak, eskuek, aurpegiak, belarriek, kolore urdinkara bera dute. Eta nire hasierako laguna ere ikusi dut berriro, azkeneko aldiz. Anda batzuetan daramate. Zapi batek osorik estaltzen du haren gorpu zurrundua. Eta, hala ere, hil-oihalaren *azpian*, ikusten ari naiz haren aurpegi zurbila, haren aurpegia irribarrez. Baina, ai! ez da jadanik lehengo irribarrea. Orain, hilda dagoelarik, ez du dagoeneko Yorick-en irribarrea. Irribarre hori zorionezkoa da, eta badakit niri zuzendua dela, anaitasun-seinale baten moduan, itxaropenezko mezu baten moduan.

Eta gero...

Nola gertatu zen hori? Ametsetan bezala. Ametsetan ez da nolarik. Gizon haietako bat nintzen orain. Ez nintzen bilakatu haietako bat: lehendik nintzen. Betidanik. Ez nintzen lehentxeago erruki petrifikatu batez begira zegokien ikuslea. Ez nintzen behin ere izan. Haietakoa nintzen, besterik gabe. Herrestan garraiatzen nuen nire zama, haiek bezala, eta nire gorputz hondatua, haiek bezala. Nekea eta oinazea beste oroitzapenik ez nuen. Egunik egun nire haragian markatu ziren oroitzapenak, ordurik ordu haragian markatuz zihoazkidan oroitzapenak baino ez. Bi leku horietara biltzen zen geratzen zitzaidan kontzientzia guztia: zamak azala urratzen zidan, hezurra xehatzen zidan lekua, eta nire erraiak sabelbarrenean pisatzeraino astunduar iruditzen zitzaizkidan lekua. Ezeren nahirik banuen, etzan eta bertan hiltzeko desira ase ezina, buka ezina, ez nuen besterik. Baina banekien, piztien zientzia batez, gurtaga artean diharduen zaldiaren zientziaz, ezin nuela ez etzan, ez hil... Zeren gizona ez baitago bakarrik bere larru barruan, badu bizi nahi duen piztia bat han ostataturik, eta aspaldidanik ikasia nuen, nik pozik onartuko banu ere gizon beltzen makilak hantxe bertan akabatzea, erreboltatu egingo zela piztia kolpe haien pean, erdi-hilik dagoen sagua, bizkarra hautsirik ere, bere torturazailearengandik ihes egiten ahalegintzen den bezala. Banekien hori, eta horrexek are izugarriago eta ankerrago bihurtzen zizkidan nire neke izugarria eta nire desira izugarria.

Eta putzu haren hondoan, gehena ezin agortuzko haren hondoan, sorgortze urratu haren hondoan gogoeta bat baldin banuen, sentimendu bat geratzen baldin bazitzaidan, jendeak, munduan zehar, gu bezalako jendeak, guk bezala burua eta bihotza duen jendeak, gure berri eta gure bizitzaren berri badakiela, eta bere bizimodua egiten duela, bere diru, maitasun eta mahai-kontuekin, eta gauzen eta denboraren artean guri arretatxo baten oparia ere eskaini gabe jarraitzen duela jakitearen atsekabe mingotsa, urradura, etsipen bakarti eta izoztua zen gogoeta eta sentimendu hori. Eta badirela beste batzuk ere, bai, badirela beste batzuk, noizean behin gurekin amets egiten dutenak, eta hori gogoratzeak irribarre eginarazten duela.

1943 azaroa

# EZINTASUNA

*Benjamin Crémieux-en oroitzapenez*

Besteen zoritxarreko sentibera samarrak gara, ezta?. Nire adiskide Renaud guztiz sentibera izan zen, denbora guztian. Horrexegatik maite dut, nahiz eta sarri gertatzen zaidan gaizki ulertzea.

Hain aspalditik ezagutzen dut, non zaila gertatzen baitzait nire bizitzaren zati bat hura gabe imajinatzea, hura zertan edo hartan nire bizitzan nahastuta egon gabe. Baina gogoan dut, hala ere, noiz ikusi nuen lehenengo aldiz. Aita Clopart-en ikasgelan, luze eta argal, garai hartan zuen harridura eta arretazko itxura harekin sartu zenean. Izena esan zuen, eta “Rémoulade” ulertu nion nik. Clopartek ere berdin ulertu zuen nonbait, zeren errepikatzeko agindu baitzion. “Rémoulade” ulertu nion berriro, eta hasierako garai hartan izen horrez deitzen nuen, egiazki. Izatez, Houlade zuen izena: Renaud Houlade. Silabak jan egiten zituen pixka bat.

Ni baino bi edo hiru ilara atzerago esertzeko agindu zioten. Horregatik oso ongi ikusi zuen, bere aurrean, jolasean bezala, nire jakaren lepotik heldu eta aran-arbola bat astintzen den bezala astindu ninduen ikaskidea. Nik, aranen gisan, tinta-tanta zaparrada bat jaurti nuen, eta nire ondoko bien koadernoak zikintzera joan ziren. Hori zela-eta zalaparta sortu zen, ni egin ninduten errudun, eta hurrengo minutuan pauso-hotsak zelatatzen eta, haien artean, zuzendariarenak entzuten ote ziren zelatan lanpeturik nengoen, korridorean. Barrenak irakiten neuzkan, egin zidaten injustiziagatik.

Horretan ikasgelako atea berriro zabaldu eta Rémoulade ateratzen ikusi nuen. Irribarrez etorri zen niregana. Irribarre bitxi samarra: sumindua eta burlaizezkoa, aldi berean; haserre eta garaipen nahaste bat. Esan zuen:

–Kanpora egotzi naute.

–Zu ere bai? Nahita?

–Bai –esan zuen–. Ez nuen kidea salatuko, nolana ere, ezta? Baina are gutxiago zuri egin dizutena onartu. Eta, bada, hori: kanpora botatzera behartu ditut.

Ahaztuta daukat nola moldatu zen. (Doinutxo bat txistukatzen hasi zela uste dut, besterik gabe). Baina ez dut ahaztu egun hartatik datorrela gure arteko adiskidetasuna: ez hori niregatik egin zuelako (ez ninduen ezagutzen ere), egin zuenaren izaerak sumarazten zuenagatik baizik. Ni oso ohartun nintzen halako gauza bat eskolan sartu bezain laster egiteak zer larritasun zuen, zer arrisku hartu zuen ausardia handiz betirako “ikasle gaiztotzat” har zezaten. Egia esan, bere bizitza osoan izan zen bezala agertu zen egun hartan ere: beti prest edozein bidegabekeriaren zama bere gain hartzeko, beti prest mundu osoaren bekatuak berak ordaintzeko.

Pentsatzekoa da zer izan ziren harentzat Frantziak katakonba barrenean igaro zituen lau urteak. Ez zitzaidan behin gertatu, hamar aldiz baizik, hari erremediorik gabeko zorakeriaren bat egitea eragotzi beharra. Izar horia erabili nahi izan zuen, gatibu boluntario har zezatela. Azkenean ulertu zuen zein

hutsalak ziren errebolta horiek. Beste batzuek gosea jasan zuten, goseak argaldu zituen. Hura amorrugordeak argaltzen zuen. Esan beharrik ere ez dago buru-belarri sartu zela erresistentzian. Miraria da oraindik bizirik egotea. Baina ekintzak, hartzen zituen arriskuek ez zioten itzaltzen egunero bazka berriz elikatzen zuen irudimenaren su hura.

Ohitura hartu nuen Neuillyn zuen etxetxora egunero joateko ikustera. On egiten zion horrek. Bere bihotz oinazetuan gainezka egiten zion orotarako ihesbide gisa balio nion. Behin baino gehiagotan atera nintzen handik txakurrarenak entzunda. Gero hobeto ibiltzen zen.

Egun horretan berri tamalgarri bat neramakion. Bide osoan zalantzan joan nintzen, esan ala ez esan. Koldarkeria handia zegoen nire zalantza horietan, zeren nahitaez esan beharko zitzaion egunen batean. Atea igaro nuenean, nire onera etorri eta erabakia hartua nuen.

Jakin izan banu... baina ez jakin. Iritsi nintzenean ez zidan ezer esan: Oradourko herrixkako hilkintza gorrotagarriaren berri geroago arte ez nuen jakin. Hark, berriz, goiz hartan bertan eduki zuen eskuetan denbora labur batez zabaldu eta gero desagertu zen prefeturaren txosten bitxi eta soiltasun heriogarrizko hura. Ondoren protesta ofizialik batere ekarri ez zuena, gainera. Uste dut, seguru nago, ni noiz iritsiko zegoela, eztanda egiteko. Zurbil zegoen, oso-oso zurbil. Ni neu oinazetuegi nengoen esan behar nionagatik, hartaz ohartzeko. Nire nahasmendua ikusirik, itxaron egin zuen.

–Berriak... (eztula egin nuen)... berri txarrak izan ditut.

Denbora pixka bat behar izan nuen adorea hartzeko. Azkenean aitortzeko gauza izan nintzen:

–...Bernard Meyer-i buruz.

“A!” besterik ez zuen egin, “Bagaude” esango balu bezala. Aurpegia harrigarriro itxirik zuen. Ez nuen espero izotzeko baretasun hura erakutsiko zuenik. Asaldura sukartsuren bat izango zuela espero nuen. Ez Bernard Meyer harentzat edo niretzat adiskide esaten dena zelako. Baina jende guztiak maite zuen. Gertutik edo urrutitik “la boîte”-era hurbildu zirenek nahitaez maitatu behar zuten –erdipurdikoek eta bekaiztiak salbu–. Zerbitzu gehiago eman zien hark den-denei munduan beste edonork baino. Egin ote zen (egin zezaketenek) egin ahal zen guztia hura Drancytik ateratzeko? Renaudek eta biok ondotox genekien ezetz. Eta bagenekien zergatik, eta ez zen gauzarik distiratsuen.

–Hil egin da –esan nion, eta Renauden begirada finko, izoztuak ez zidan batere laguntzen hitz egiten jarraitzeko–. Silesian, esparruan –jarraitu nuen, meritua ere bazuen tema batez. Eta eten luze baten ondoren, bi hitz labur ikaragarri gehitu nituen, zenbat sufrikario, zenbat tortura eta zenbat izugarrikeria estaltzen duten orain badakigun bi hitzak, heriotza-oharrak esaten zituen hitz lakonikoak: *Erabateko ahuleriaz...*

Renaudek ez zuen ezer esan. Begira zegokidan. Eta segituan ohartu nintzen Bernard Meyerren irudia zegoela dilindan gure artean, guk ezagutu genuen Bernard haren aurpegi luze zuri hura; begi bizi eta aldi berean ameslari haiek, munduan idazten edo pentsatzen duen guztiak egunen batean ezagutu duen bizar gogoangarri hura, eguzkiz betetako doinu bero hura...–, eta hiltzean izango zuen aurpegi etsi errukarri harena... “*Erabateko ahuleriaz*”... Bi hitz haiek, esparru haietako martirioa zer zen dakien edonorentzat hain iradokizunez beteak, Renauden ariman barrena sartzen sentitzen nituen.

*...a tale unfold, whose lightest word  
Would harrow up thy soul; freeze thy Young blood;  
Make thy two eyes, like stars, start from their sphere.*

Orduan igaro ziren isiltasun astunezko minutu luze haiek ez ditut sekula ahaztuko. Bero egiten zuen, kontraleihoak hiru laurdenean itxita zeuden, hiltzen ari zen freskotasuna ahal bezainbatean gordetzeko. Zomorro bat –liztorra edo erlastarra– jo eta jo ari zen leihatilaren kontra, aditu ezin hilgarri baten egoskorkeria zentzugabeaz... Renaudek ez zuen ezer esan, ezta hitz bat bera ere. Sofaren barrenean zokoraturik, begira zegokidan. Ikusten ote ninduen? Harrizko begirada bat zen. Marmolezkoa zen dena harenengan: haren ezpain estutuak, haren sudur mehea, haren bekokia, distira pixka bat eginez, izpi lauso batek argiturik –zuhaitzen artetik igarotako errainu baten argi berde samarra...

Ez naiz ongi gogoratzen nola aurkitu nintzen kanpoan. Egia esateko, ihes egin nuen: berri hura beste batzuei ere jakinarazi beharraz zertxobait murduskatu nion ozta-ozta. Borroka bitxi bateko galtzaile sentitzen nintzen. Borrokarako prestatu, aurkari baten eraso bortitzari eusteko bere indar guztiak tinkatu eta hark bat-batean negarrez besarkatzen duen baten moduan.

Baina eguzkitan astiro eta geldiro nindoala, poliki eta lausoki hasi zitzaidan azaltzen egia: bazen nik ez nekien zerbait, lehendik zaurituta zegoen lekuren batean jo nuen, nonbait, Renaud. Nire nahasmendua kezka bihurtu zitzaidan, une hartatik aurrera. Ondoegi ezagutzen nuen Renaud ez imajinatzeko barneko zer jasa ezkutatu behar zuen isiltasun zakar hark. Beldurtu ere egin nintzen pixka bat. Ez, ez nuen pentsatzen *benetan* gauza tragikorik, pentsatu gabeko eta, batez ere, ustekabeko egintza horietakoren bat baizik...

Oroimena hegan zihoakidan oroitzapen batetik bestera... Sorbona bat-batean utzi eta batxilergoan ahozko azterketatik alde egin zuenean bezala, Mouriezi suspentsoa jarri ziotelako... Zenbat jestio egin behar izan nuen nire aitarekin batera, huraxe bezalako egun bero batean, Renaud (Rennesen artillero zegoena) Legiora joateko konpromiso batetik askatzeko, zergatik eta brigada sadiko batek mutil ergel bat martirizatzen zuelako... Eta nola baztertu zuen (egun batetik bestera) dotorezia sotil baina zorrotza, eta jertse eta txapinezko zabarkeriara nola eman zen, zergatik eta miresten zuen gizon bat, familia ospetsu bateko nagusia, eskrupulurik gabeko Tartufo bat baizik ez zela frogatu ahal izan zuelako...

Atzera itzuli nintzen. Bai, hartaz izan nuen azkeneko ikuspegia, geldi, zurbil eta bere sofa zokoan isiltasunean tematua, kolpe suhar eta barroko haietako baten prodromoa iruditu zitzaidan bat-batean. Ez nenbilen oker.

Lorategian aurkitu nuen. Ordurako pila bat egina zuen adarrez eta adaxkaz, kaxa-puskaz, ohol eta estalki puskaz, ez dakit zer su egiteko. Eta haren gainean metatzen hasita zeuden bere bizitza guztian zehar lanez eta nekez bildutako altxorak, bere bizitzako gatza zirenak: liburuak, gauzak, koadroak... Bihotza taupaka hasi zitzaidan ezagutzen nituen batzuk ikusita: seguru asko Memling-ena ez zen, baina inondik ere Brujaseko eskolakoa zen erretaula baten orri baten ertza. Jules Noël-en itsaso-ikuspegi ekaiztsu bat, gris eta urdin sakoneko sinfonia erromantikoa. Beste koadro batena bizkarra baizik ez nuen ikusten, baina markoa ezagutzen nuen: “ipotx” bat (Picassorena), aurpegi melankolikoa, gozotasunez bete, oraindik ere ikusten ari nintzela iruditzen zitzaidan. Limoiondo-zurezko kutxatxo bat, oso soila, baina barruan parpaila-lan zahar eta zoragarri pila bat zegoela banekiena. Eta nonbait liztor-gerriko kortesanaren batek jantzi izandako gerriko bitxi hura, artista liluragarriren batek Zeusen amodioen hamasei eszena margotu zituen bolizko hamasei xaflatxo... Hori dena nahasian, hain agudo ezagutu ez nituen beste hainbat gauzarekin batera, liburuen artean. Eta garbi ikusi nuen ez zela aukeratzen aritu. Nahas-mahas bota zituela gainera argitalpenik apalenak eta bakanenak. Irakurriaren

irakurriz erdi-akastutako liburuen ondoan zeuden *Iluminazioen* jatorrizkoa, Nodierren ipuin anonimoak enkoaternazio erromantiko jostagarri batean, *Clèveseko Printzesa*, bere garaiko enkoaternazioan. Han ikusi nuen aitak emanda zuen Hugo, begi bat bezala “*Swango amodioa*” falta zitzaion Proust-en bilduma, Conrad, Woolf de Tauchnitz, nik hainbeste aldiz begiratu eta mailegatuz hartutako liburu haiek guztiak. Denaren gainean, brontzeko eskutxo bat, Nepaleko Buda baten esku luze, malgu, mehe eta fina bere protesta mutu etsia eskaintzen ari zela zirudien. Iritsi nintzenean, Balzac-en zama handi bat besoetatik husten ari zen Renaud. Atetik bertatik oihu eginez deitu nion.

Atzera biratu zen. Haren begi gris, distiratsu, gori eta izoztu haiek, zein ongi ezagutzen nituen nik! Kopeta jaitsi zuen, zezen gazte baten mugimendu batez.

–Zer? –esan zuen. Haren masailak dardaraz ikusten nituen, eta hanketan tinkaturik sentitzen nuen, jauzi egiteko prest bezala. Ondora joan nintzen.

–Entzun, Renaud... –hasi nintzen, esku bat jasoz. Jauzi egin zuen, bai, besoak zabaldu zituen, bidea itxi zidan. Eskumuturretik heldu nahi izan nion, baina keinu zakar batez askatu zen—. Renaud –erregutu nion–, entzun. Zer erokeria da hau...

–Erokeria? –bota zuen. Eskuak patriketan sartu eta barreari eman zion. Barre behartu, mekaniko, bortitz eta errukarri bat—. Erokeria diozu! Erokeria, noski... Zu ez, zu ez zaude erotuta. Ez horixe! –Gorrotok bezala begiratzen zidan.

Bizkor hitz egiten ez banuen, bizkarretik heldu eta kanpora botako ninduela konturatu nintzen.

–Renaud, Renaud –esan nion oihuka–, ez zaude zure onean. Egon. Entzun. Zer egin behar duzu? Zertara dator holokausto hau? Nor nahi duzu zigortu? Zeure burua berriro, eta...

Oihuka eten zidan:

–Ez! –burua astindu zuen—. Neure burua? Neure burua zigortu? –Esku batez hitz horiek ezabatu nahi zituela zirudien, eta bat-batean aurpegi gainera makurtu zitzaidan—. Ez, ez... –egin zuen oihu, eta aurpegira bota zidan–: Gezurra! –Berriro errepikatu zuen, ahal zuen indar guztiaz oihu eginez–: Ge-zurra!

Ni akusatzen ninduela iruditu zitzaidan.

–Nork? –esan nion protestaz—. Zer gezur?

Nire galdera kontuan hartu zuen? Segituan behintzat ez, seguru asko. Haserre amorratuzko doinu berean jarraitzen zuen:

–Mundu makur honetako gezurrik handiena, gezurrik makurrena! Gezurra! Gezurra! Gezurra! Zein, diozu? Ez dakizu zein, benetan? A, bai, badakit zer den. Zu ere horietakoa zara, zu ere bai, ni nintzen bezala. Baina ez naiz gehiago, kito, bukatu da. Agur, ki-to, konturatu naiz! –esan zuen oihuz, amorrutaz eztanda samin batez, eta sutarako pilarantz biratu eta pauso bat egin zuen.

Mahukatik heldu nion. Baina arrastaka eraman ninduen, eta hiru jauzitan pilaren ondoan ginen. Ostikada bat eman zuen eta *Parmako kartusia* hegan ikusi nuen. Eta bat-batean bizkarretik heldu eta bere altxor pilatuen gainera makurtzera behartu ninduen:

–Begira iezaezu –esan zuen oihuka–, eta agurtu itzazu, bete itzazu zure miresmenaren eta esker onaren lerdeaz! Zeure buruaz sinetsarazten dizutenagatik. Hor zaude-eta zu ere, horiei esker, zeure buruaz ondo pozik! Hain pozik gizona zarelako! Hain pozik hain izaki baliotsua eta estimagarria zarelako! Bai horixe: sentimendu poetikoz eta ideia moralez eta asmo mistikoz eta gauza horiez guztiez betea. Alajainkoa, eta zu eta ni bezalako jendeak hori irakurtzen dugu, eta atsegina hartzen dugu eta esaten dugu: “Hemen gaude gu, jende sentibera eta burutsua”. Eta losintxak egiten dizkiogu elkarri, eta sekulako miresmena diogu gure ile bakoitzari, lautan zatituta ere, eta konpontxoka aritzen gara elkarrekin. Eta zer da, bada, hau dena? Zerrikeria besterik ez, goragalea ematen duen zerrikeria bat! Zer da gizona? Inon den izakirik zerriena! Zitalena, maltzurrena eta ankerrena! Tigrea, krokodiloa? Aingeruak, gure aldean! Ez dira jostatzen santutxoarena, pentsalari sakonarena, filosofoarena, poetarena egitera! Eta hori dena nire apaletan gordetzea nahi duzu? Zertarako? Gauean, Stendhal jaunarekin, Baudelaire jaunarekin, Gide eta Valéry jaunekin hitz egiteko, dotore-dotore, garai batean bezala, eliza batean emakumeak eta haurrak bizirik xigortzen dituzten bitartean? Lur gain osoan jendea masakratzen eta hiltzen duten bitartean? Emakumeak aizkoraz lepoa moztuta hiltzen dituzten bitartean? Jendea arnasarik gabe itotzeko propio eraikitako geletan pilatzen duten bitartean? Han eta hemen, beharbada irratitik ematen duten Mozarten musikarekin urkatuak zuhaitzetatik zintzilik dauden bitartean? Lagunak salatzea behartzeko jendeari oinak eta eskuak erretzen dizkioten bitartean? Gure Bernard Meyer otzana, zintzoa, atsegina oinazetan hiltzen duten, kolpez akabatzen, nekez, gosez eta hotzez leherrarazten duten bitartean? Eta egintza izugarri horiek, koldarkeriaz ezikusiena egitea nahiago duten, bost axola dien, eta batzuek onartu eta egiten direlako poztu ere egiten diren egintza izugarri horiek eragozteko behatza ere jasoko ez luketen pertsonen (jende jatorra, ezta?, jende ikasia eta guzti) inguratuta gauden bitartean? Eta “zer erokeria da hau...” galdetzen didazu? Baina, Jaungoikoarren, gutatik nor dago erotuta? Esan, esan, non dago eromena? Ez duzu, bada, nahiko esatea nahaste-borraste hau dena mindulinkeria hutsa baino gehiago denik, gizona den bezalakoa den bitartean? Lo-eragile zikin bat baino gehiago denik, atsegintasun xantu batean loakartzeko? Zerrikeriak! –egin zuen oihu, hain ahots zoliz, non amorruez erlastu baitzitzaion–. Lerro bat ere ez dut gehiago irakurriko! Ezta bat ere, gizona aldatzen ez den bitartean, baina ordu arte ezta lerro bat ere, entzuten? Ezta bat ere, ezta bat ere, ezta bat ere!

Askatu egin ninduen. Nahigabeak bere onetik ateratzen duen haur haserretu baten moduan lurrari ostikoka eginez esan zituen azkeneko hitz horiek. Zuhaixa baten adarrari heldu eta erauzi egin zuen. Ezker-eskuin edozeri kolpeka, “ezta bat ere, ezta bat ere!” errepikatuz, baina bat-batean gurgura batean eten zitzaion ahotsa, eta malkoek ihes egin zioten, eta haren gorputz guztiak, bortiztasun hura bat-batean utzirik, bere gain zanpatua zirudien; eta nik, besotik heldurik, bere sofara eramatea lortu nuen, hantxe erori zen, eta burua bururdi batean hondoratu, eta negar-zotinka hasi zen erabat.

Zinez etsimenak hartutako haur baten moduan egiten zuen negar. Neu ere negarrez ari nintzela uste dut, isil-isilik, hari begira. Haren ondoan eserita nengoen, eta haren esku bat nireen artean hartuta neukan, eta hari heltzen zion, hari atxikitzen zitzaion eta hartatik zintzilik zegoen, benetan, haur baten moduan. Etsimen horrek luzaro iraun zuen, harrigarriro luzea iruditu zitzaidan. Baina, bukatzeko, haur baten moduan, malkoek menderatu zuten, haur baten moduan loak hartu zuen bukatzen ari zen egun luze hartako ilunantz geroz eta lodiagoan, aldiro-aldiro oraindik ere hasperen-inarrosaldiek astintzen zutela.

Orduan goiko solairura igo nintzen, Berthe zaharraren bila, lagun ziezadan. Gau iluna zen. Bertheek ez zuen ezer galdetu. Renaudi, lotan eta errukarri, begirada bat egin eta burua pixka bat astindu besterik ez zuen egin. Eta isil-isilik jarri genituen berriro gauza guztiak beren lekuan.

Baina, harrezkero, nik ere galdu egin dut irakurtzeko poza. Renauden iritzi beragatik? Ez, alderantziz baizik! Arteak eragozten dit etsitzea. Arteak gezurtatu egiten du Renaud. Gizakia nahiko piztia makurra dela aise ikusten dugu. Arteak, berekoikeriarik gabeko gogoetak berrerosten dute, zorionez, gizakia.

Baina, egun hartaz geroztik, galdu egun dut irakurtzeko poza. Nire errua da, ordea: nik dut kontzientzia txarra. Nire koadroen aurrean, nire liburuen aurrean begiak desbideratu egiten ditut pixka bat. Lapur batek, oraindik berean gogorturik ez badago, lapurtuta dituen altxorrez bihotz lasaiz gozatu ezin duen bezala.

*1944 uztaila*



## ZALDIA ETA HERIOTZA

la entzun ere ez nituen egiten haien historiak. Batzuk jostagarriak izaten dira, baina gehienetan aspergarriak iruditzen zaizkit. Likore-basotxo eskuetan berotzen ari nintzen, eta barre egiten nuen besteek bezala, azkeneko hitzarekin batera, begikotasunez. Ongi iruditzen zitzaidan gure gonbidatuak nik bezalaxe egitea. Hala ere (Jean-Marc-ek eztarria garbitzeko eztula egin zuenean) begiak harengana jaso, irribarre egin, eta entzuten ari zela erakutsi zion.

–Nirea egiazkoa da, benetan gertatua –esan zuen Jean-Marcek–. Ni ez naiz beti izan orain ikusten nauzuen burges tripaundi hau. Ez naiz beti izan eraikin-gerentea. Kideek, fantasia handia nuelako kideek asko estimatzen zuten arkitekto-ikaslea ere izan naiz. Harritzekoa da zein gauza hauskorra den fantasia.

»Egun hartan... gau hartan, hobeto esateko, dozena erdi bat ginen, Balazuc-enean ederki edanda eta abestuta, badakizue, Beaux-Arts kalean: hango Tavel ardoa. Ura balitz bezalaxe edaten da...

–Edaten zen –esan zuen Mauricek, triste.

–Itzuliko da berriro –esan zuen Jean-Marcek–. Saint Germain bulebarrean genbiltzan, hara-hona. Gauerdia zen... ordu bata. Zer egin ari ginen, bromaren bat egiteko. Oraindik ere ez dakit nola zegoen hura han: orga huts bat, zaldi batekin, zuhaitz bati lotuta. Gidaririk gabe, ezer gabe. Zaldi handi bat zen, zutik lotan, burua dilindan. Askatu egin genuen, eta lasai etorri zen gure atzetik, zaldiek ohi duten bezala; badirudi bitxi samarra baina aldi berean guztiz normala iruditzen zaiela eskatzen zaien guztia. Txandaka igotzen ginen haren bizkarrera, eta oinez geratzen zirenek hotsez eta keinuz akuilatzen zuten. Nik galapan jartzea ere lortu nuen, behin bakarrik, baina ez luzaro: hamar-hamabi metro. Bere gisa uzten baldin bagenuen, pausoa geldituz joaten zen, erabat gelditu arte, eta lo hartzen zuen. Ez dakit zenbat bira eginarazi genizkion. Egia esateko, berehalaxe aspertu ginen, baina ez genekien zer egin. Berriro bere gurdinari lotzera ez ginen joango: urrutiegi zegoen. Assas kalera iritsiak ginen, edo Fleurus kalera, hor nonbait.

»Orduantxe bururatu zitzaidan. Huysmans kalea ezagutzen duzue? Parisko kalerik goibelena. Kale burgesa da goitik behera: gogoratu kolpe batean eraikia dela, alde banatan harlanduzko etxeekin, burges estilokoak denak. Ezta denda bat ere, ezin duzue pentsatu ere zein goibela izan daitekeen dendarik gabeko kale bat (dendarik batere gabe). Inor ere ez da ibiltzen. Kale gris, harro, handiputz bat, beti hutsik. Atezain kale bat, beren atetik aurrera inoiz ateratzen ez diren ongi eskolatutako atezainez bete. Kolpetik bururatu zitzaidan, aukera ederra nuela kale haren mendekua hartzeko.

»Atezainetako baten mendekua hartzeko, gutxienez. Berdin zion zein. Hara eraman genuen gure zaldia. Ate bateko txirrina jo genuen: burdina forjatuzko ate bikain bat, beira handiekikoa. Zalditxo sarrarazi genuen, atezaindegiaren aurreraino bultzatu genuen. Gutako batek ahots ozenez, berandututako maizter baten moduan, oihu egin zuen, irrintzi antzeko ahots batez:

»–Zaldiaaaa!!

»Eta hura hantxe utzita atera ginen. Ez dakit zer gertatuko zen ondoren.

»Ez dirudi oso-oso jostagarria, baina... Imajinazio pixka bat aski da. Imajinatu lehendabizi zaldi hura han, atari barruan bakar-bakarrik, geldi, ergel eta aspertu-itxurarekin. Eta atezaina, izen bitxi hura entzun eta izen hartako etxetarrik gogoratu ezinda. Bere leihatila erdi-zabalduta eta hura ikusten duela (egiazko zaldi bat, buru luzea beregana bihurtu eta begiratu triste bat egiten diola), eta, minutu batez, bere erdi-lozorroan, zaldiek orain etxeratzen direnean beren izena esaten ote duten pentsatzen ari dela... Hogeitaz badira hura gertatu zenetik, eta gogoratzen dudana bakoitzean barreka lehertzen egoten naiz oraindik.

Gure gonbidatuak basoa utzi eta esan zuen:

–Hitlerri buruzko historiarik politena kontatuko dizuet.

Ateraldi hura bitxi samarra iruditu zitzaidan.

–Funtsean historia bera da –hasi zen berriro–, horrexegatik bururatu zait. Hau ere egiazkoa da. Z...-k kontatzen du, hark oso ongi ezagutzen du Brecker. Horrek ez luke esan nahiko historia hau egia denik, baina seguru nago egiazkoa dela. Zeren ez baita bukatzen. Historia bat asmatua denean, bukaera izaten du.

»Hitler Parisa etorri zenean gertatu zen, 41ean. Badakizue. Goizeko bostetan iritsi zen. Hara eta hona eraman zezaten agindu zuen. Bada argazki lazgarri bat –guretzat lazgarria–, Hitler Chailloteko Jauregiko terrazan dagoena. Munduko hiri-paisajerik ederrenetako baten aurrean, ederrena ez bada. Paris osoa oinetan duela. Paris osoa lotan, Hitler begira daukanik ez dakiela.

»Operara ere agindu zuen eramateko, aretora. Operako aretoa goizeko seietan... imajinatzen ahal duzue. Errepublikako lehendakariaren kamerinora joan nahi izan zuen, eta hantxe eseri zen. Bakar-bakarrik eserita, kamerino hartan, bakar-bakarrik areto hartan, goizeko seietan. Ez dakit horrek zerbait pentsarazten dizuen. Niri patetikoa iruditzen zait, patetikoa iruditzen zait Parisa egin zuen bisita hura. Paris konkistatu du, baina badaki hiria lotan dagoenean baizik ezin daitekeela izan haren jabe, badaki egunsentiko basamortu hautsez betean baizik ezin dela agertu Operan...

»Baina hau dena geroago gertatu zen. Kontatu nahi dizuedana hori baino lehenago da, iritsi bezain laster. Breckerrek egin dio ongietorria, Hitlerrek bere Michelangelo deitzen duen Brecker ilunak. Eta Führerrak esaten dio:

»–Beste ezer baino lehen, eraman nazazu orain dela hogeitaz bizi zinen lekura. Zuk non lan egiten zenuen ikusi nahi dut lehendabiziko gauza, zure Montparnasseko lantegia ikusi nahi dut. Orduan autoa Campagne-Première kalerantz abiatzen da edo, Boissonade kalerantz, ez dakit ziur, bietakoren bat, nolana ere. Breckerrek zalantza du, dudak ditu, gauza asko aldatu dira azkeneko hogeitazteetan. Hala ere, zalgurdiak sartzeko ate handi moduko bat ezagutzen du. Autotik jaitsi eta atea jotzen dute.

»Atezainarekin eta zaldiarekin bezalako imajinazio-ahalegintxo bat egin beharko duzue hemen, nik uste. Oraingo honetan ez da atezain bat, ataria zaintzen duen atso zahar bat baizik; atezainaren gelatik ezin da zabalduta beheko atea, behearaino jaitsi behar da. Jo eta jo ari diren ate-kolpe haiek esnatu egin dute, ikaratu samar, zer ote den pentsatzen du, gain-jantzi lodi bat, edo kapa labur bat janzten du; oraindik ilunpetan dagoen solairu erdia jaisten du, eta han ari da bere esku zaharrez zabalduta nahi ez duen sarraila handia, atea zabalduta aurretik...

»Zabaltzen du azkenik, begiratzen du. Nor ikusteko...

HITLER

»Horixe da historia... Baina harrigarria da, eta gauza asko esaten ditu, hain zuzen ere berehalaxe ohartzen delako bat alferrik dela atsoak bota zuen izumenezko oihua, eta nola bultzatu zuen atea, zalaparta batean, ezin sinistuzko ikuspen haren gainean. Deabrua bera ikusi izan balu bezala. Zeren izan zitezkeen beste aleman batzuk ere: beldurtuko zen, jakina, eta pentsatuko zukeen 'Zertara datoz hauek orain?', baina sartzen utziko zien –ikara batean, seguru–, baina, tira, horixe izango zen dena. Edo imajinatu Franco, edo Mussolini zela. Ez zituzkeen hain bizkor ezagutuko seguru asko, eta, jakina, ez ziokeen izumenezko oihu hura eginez bultza egingo ateari. Ez, ez: Garbi ikusten da ate atzean topatu zuena, Heriotza ikusi izan balu bezain izugarria eta beldurgarria zela, Heriotza bere segarekin eta oihalarekin, eta parte txarreko irribarrea, ezpainik gabeko masailezurretan.

*1944 abuztua*

## VERDUNGO INPRIMERIA

–Lapurrak kanpora!

Vendresseri barru-barrutik atera zitzaion mendekuzko oihu hura, otsail gaizto hartan. Sinetsi egiten zuen hartan. Gorroto zituen lapurrak. “Horiek ekarri gaituzte orain gauden egoerara”.

Gogoko nuen, Vendresse. Suharra zen, eta egiatia. Haren zintzotasuna, haren suhartasuna bidez nahastuta zeuden, horra. “Boltxebike!” deitzen zidan, erdi-barrez, erdi-barrez bakarrik. Bazekien ez nintzela “alderdikoa”, ez nintzela inoiz izango alderdi batekoa. Baina askoz gutxiago haren alderdikoa: haren begietarako zintzoa zen alderdi bakarrekoa, ordena eta aberria maitatzen ziren alderdi bakarrekoa. “A.F.ko tipoak” ez zituen maiteago, bazter-nahastaileak haiek ere, beren modura. A! iraultzearen aldekoa zen bera ere, baina iraultpen ordenatu baten, lapurren kontrako iraultpen baten aldekoa.

–Non daude, baina, ditxosozko lapur horiek? –esaten nion nik.

–Ba, begira, esate baterako! –haserretzen zen bera, begiak biribil-biribil jarrita begiratuz.

–Irakurri zer idazten zuen lehengo batean nire lagun batek –esaten nion berriro nik–: “Zergatik ez da inor joaten gare de l'Est-era ‘kanpora hiltzaileak!’ oihu egitera, eta, Konpainiari bagoi berriak erostea baino aseguru ordaintzea merkeago ateratzen zaiolako, bidaiariak aldiko berrehunka hiltzen dituzten zurezko bagoi zahar horiek erretzera?”.

–A! –egiten zuen protesta Vendressek–, oraindik ere balio dezaketen bagoiak!

Horra nire Vendresse, eta jostagarria iruditzen zitzaidan haren inprimeriatxoa, ezertarako ez ziren gauzez bete-betea: klixer zaharrak, giltza zaharrak, propagandako hautsontzi zaharrak, torloju zaharrak, eta baita nork jakin zein galdaratako manometro zahar bat ere, berak botatzeko adorerik sekula izaten ez zituen gauzak: “baliteke noizbait zerbaitetarako balio izatea”.

*Verdunگو inprimaria.* Izen harrigarria, Montparnasseko Passage d'Enfer-eko zoko hartan, dendako sarrera estuaren gainean. Zergatik Verdun? Verdunگو infernua?, etortzen zen gogora. Izan, bazegoen horrelako zerbait, lotura hori nahita bilatua izan ez bazen ere. Vendresse erdi-aprendiz erdi-langile zen 14an, gerra hasi zenean. Ugazaba joan zenean, etxea zabalik eduki zuen, berak joan behar izan zuen arte, 1915eko azken aldera. Biak zauritu zituzten Verdunen, erregimentu desberdinetan. Vendresse oso ondo sendatu zen. Baina ugazabari eskuineko hanka moztu behar izan zioten: gangrena. Handik pixka batera, belaun gaineraino moztu behar izan zioten. Gero izter osoa joan zen, eta, azkenean, ezkerreko hanka ere harrapatu egin zion. Seigarren ebakuntza egin behar ziotenean (beste izterra), Vendresse bere testamentuan sartu zuen, eta inprimaria utzi zion, Verdunen oroigarri.

Hala bihurtu zen Vendresse bere buruaren ugazaba 1924an, eta hala bataiatu zuen inprimaria hura aintzazko izen harekin. A, negozio apala zen: “txartelak” besterik ez, jakinarazpenak, gutunburuak, prospektuak... “Minerva” automatiko bat, pedalezko prentsagailu bat, eta eskuzko prentsagailu zahar bitxi bat. Harengatik joaten nintzen hara: nire argitalpenetarako probetarako.

Ugazaba txikia, baina ugazaba, ezta? Atxikimendu handia zion horri. Horrexegatik joan zen, nonbait, “lapurrak kanpora!” oihu eginez zergen kontra protesta egitera. Astunegiak baitziren zergak, juduak gizentzen direlako, masoiek lapurretan egiten dutelako, “boltxebikeek” sabotajeak egiten dituztelako.

Oso ongi bereizten zituen erakundeak eta haietako kideak. Bere langilea judua, masoia eta antifaxista zen, esate baterako. Horrek ez zuen eragozten, ordea, Vendressek, bere langileak hiru akats haiek izanda ere, hura oso estimutan edukitzeko. “Badira onak ere”, esan ohi zuen. Briançoneko mutil bat zen langile hori, suharra, bizia, langilea eta trebea, Verdunen ibilia, hura ere. Gerra ondoren, lehengusu bati inprimeriatxo bat erosi zion, Piemonten, Pinerolon. Faxismoak bota zuen handik. Vendressek kontratatu zuen, Verdunen oroitzapenez betiere. Dacostak eta berak astean hirutan izaten zuten heldukada gogorren bat, Mussoliniren kontura. Eta horren ondoren baso erdi bat edatera joaten ziren Campagne-Première kalera. Sekulako estimua zioten elkarri.

\* \* \*

36an gutxi falta izan zen gauzak okertzeko. Dacostari greba egin beharra zuela iruditu zitzaion. Jakinaren gainean jarri zuen ugazaba, esanez hurrengo asteetan gehigarritzko orduak sartuko zituela, ordainez, soldata berarekin. Vendressek tximistak bota zizkion, lanetik botako zuela mehatxatu zuen. “Ugazaben greba balego –esan zion Dacostak–, zuk ere egingo zenuke, ezta? Lana utzi eta alde egingo nuela mehatxu egingo banizu ere bai”. Vendressek oihuka jarraitu zuen, itxura egiteagatik. Baina arrazoi hark erdi-erdian jo zuen. Oso sentibera zen justizia-kontuetarako.

Municheko krisia oso larria izan zen inprimerian. “Lotsagarria, lotsagarria”, esaten zuen Dacostak, eta aho estuak ikara egiten zion bibote motz txikiaren azpian, eta begiak malkoz lausotzen zitzaizkion. “Tira, tira –esaten zion Vendressek–, zuzena izan behar da: txekiarrek tratu txarra ematen baldin bazieten sudete horiei, aizu! Hitlerrek ez du oker egin”. “Eta juduak, ez al dituzte gaizki tratatzen Alemanian? Ezer egiten al da haien alde?” Dacostak, barren-barreneko amorruez. “Ikusi egin beharko litzateke hori –esaten zuen Vendressek–. Propaganda komunista bai, hori dena”. “Eta Sudeteena ez al da propaganda? Ugazaba, ugazaba, esaten ari natzaizula: amore ematez amore emate, urruti iritsiko gara. Hiru urte barru mendean edukiko gaituzte”. “Mendean! –esaten zuen Vendressek trumoika–. Mendean! Ez al gauzkate, bada, dagoeneko mendean? Juduek eta masoiek?”. Isilune mingarri bat izaten zen ondoren. Enpleguak, judua eta masoia bera, ironia gozo batez begiratzen zion ugazabari... Eta Vendresseri mozolo samar jokatzen ari zela iruditzen zitzaion, patrikak arakutzen hasten zen, han ez zegoela bazekien pipa baten bila, bere betaurreko biribil txikiak bere sudurtxo arrosa-kolorearen gainean ertzerago eramaten zituen, ezpainak mugitzen zituen zigarrokinek gorritutako bibotearen azpian.

Gerra hasi zen. Vendressek eta Dacostak berrogei urtetik gora zituzten biek. Langile-konpainietara mobilizatu zituzten. Nik banituen ezagunak Lehenengo Bulegoan: Vendressek esku hartzeko eskatu zidan, eta, 40ko apirilean, elkarrekin jarri zituzten. Beren konpainia Compiègneko basoan ari zen lanean. Dacosta sarjentua zen, Vendresse kaboa baizik ez: bitxia iruditzen zitzaion.

Ekainean, Fritzak Compiègne mehatxatzen hasi zirenean, Croix-Saint-Ouen eta Verberie bitartean zuhaitzak errepidean trabes botatzeko ardura eman zioten konpainiari. Ilunabar aldera, Oise ibaiaren eskuineko aldean blindatuen igarotzea entzuten hasi zen, eta gauza bera basoan, 332 errepide nazionalean, hegazkinek Vaudremonteko bidegurutzea bonbaz zanpatzen zuten bitartean. Zalapartan

itzuli ziren Saint-Saveurreko beren kantonalekura, eta ez zuten inor aurkitu: kapitainak bere Citroënean ihes egin zuen, bere bi tenienteekin.

“Zerriak –esan zuen Dacostak–. Ederra, hire elite hori –esan zion Vendresseri–. Aseguru-aholkularia, likore-saltzailea eta kakanarru zibila. Horiek abertzaleak!”. “Ez da orokortu behar –esan zion Vendressek, urduri–. Gainera, baliteke horretarako aginduak hartu izana”. Nolanahi zela ere, Dacostak hartu zuen abandonatutako konpainiaren buruzagitza, eta erretira gidatzen hasi zen. Larri-larri ihes egin zieten panzerrei, Senlis-en, Dammartin-en berriro harrapatu zituzten, gaua aprobeztatuz alde egin zuten, Marne ibaia Tribaldouko urtegitik igaro zuten, eta Pithiviers-en bereizi ziren azkenean. Atzean gelditu ziren batzuk, zulo batean arnasari buelta eman ezinda harrapatu zituzten berrogeita zortzi urteko aitona batzuk kenduta, Dacostak oso-osorik eraman zuen bere konpainia Gien-eraino. Loira ibaia igarotzean galera batzuk izan zituzten; bigarren sekzioko talde batek, etsita zegoen kabo baten gidaritzapean, alde egin zuen, gau batean, Bourges et Montluçon bitartean; nolana ere, azkenean, aki-aki eginda, Clermont-era iritsi zirenean, bere unitatearen bi heren baino gehiago kontrolatzen zuen oraindik Dacostak. Gudarosteko ordenan aipamen bat egin zioten. G\*\*\* jeneralak zorionak eman zizkion jende guztiaren aurrean.

Pétainek aginpidea hartu zuen. “Bazen garaia!” esan zuen Vendressek. “Ba, zuk ez duzu beldurrik”, esan zuen Dacostak. “Zeren beldurra? –esan zion zaunka Vendressek–. Hura da zulo honetatik atera gaitzakeen bakarra. Lehenago deitu izan baliote... Pétain: Verdun. Zeren beldurra duzu?”. “Kaput Errepublika –esan zuen Dacostak–. Eta ederra datorkigu guri, juduoi”. Vendresse txantxetan hasi zen, bat-batean. “Juduek, badakizu kakagura ematen didatela funtsean, baina zu bezalako mutilak... Verdun eta palma adarrak... Zaharrak bertan behera utzi poiluak? Zu bai zerri galanta!”.

Abuztuaren 3ko goizean desmobilizatu zituzten. Gau hartan bertan tren bat antolatu zen paristar askatuentzat. Etxeratu nahi zutenek bertan hartu behar zuten erabakia: alemanek ez zuten onartuko geroago banaka itzultzerik, esaten zuten. Erabaki larria izan zen Dacostarentzat: Fritzen oinpean jarri behar ote zuen? “Nire izen honekin, bost axola zaie Moulinserako harrapatzen banaute”. “Bai eta zera ere! –esan zion Vendressek–. Zer axola die horiei. Zaude lasai, neuk esaten dizut. Zaharra hor dagoen bitartean, ez duzu arriskurik. Ez hasi orain berriro; nirekin itzuliko zara”.

Itzuli egin zen.

\* \* \*

Berriro zabaldu zuten inprimeria eta, poliki-poliki, berriro hasi zen lana. Gauza guztiak ongi zihoazen, ugazabaren eta langilearen artean harremanak tirabiratsuagoak bihurtzen zirelako salbu. Vendresse garaile zebilen: “Ikusten, e, Zaharra? Hemen bertan ere, Fritzak ez dira ausartzen ezer egitera”. “Zoaz Ekialdera eta Iparraldera”, esaten zion Dacostak. “Asmakeriak” esaten zuen Vendressek. Eta horretan eztabaida mingostu egiten zen.

Urtarrilaren bukaera aldera, bisita bat izan zuen Vendressek. Kide bat zen, bueno, galbanotipografo bat. Honela zihoen haren txartelean: *Inprimatzaile-Grabatzaile-Koadernatzaile soldadu ohien Elkarteko kidea – Verdungo Beteranoen Elkarteko kidea*. Paars deitzen zen. Gizena zen, dotoregitxo jantzia. Haren masaila lodiak, bigun samarrak, bizarra ongi moztuta, gorri samarrak zeuden, hautsaren azpian. Euriaz eta eguraldi onaz hitz egin zuten hasieran, behar den bezala, elkarren ezaguera egiteko. Eta gero:

–Verdunen egon zinen zu ere, ezta? –esan zuen Vendressek (“Verdugo beteranoen” artean konfiantzaz hitz egiten da).

–Bai noski –esan zuen Paarsek.

–Zein sektoretan?

–Ba... Verdunen, hiriburuan bertan. Iragaitzako unitateetan. –Begi-kliska bat egin zuen–. Mahuka.

–A, bai...

Isilune bat izan zen.

–Eta zer dela-eta hemen? –esan zuen Vendressek.

–Ba, begira –esan zuen Paarsek–, Verdugo Beteranoen artean bagara batzuk lanbide honetatik juduak uxatzeko garaia badela iruditzen zaigunak. Eskaera bat egin nahi diogu Vichyri. Zu gurekin izango zara, noski?

Vendressek ez zuen segituan erantzun. Patrikak arakutzen ari zen, han ez zegoen pipa baten bila. Torloju zahar batzuk, giltza zahar batzuk eta manometro zaharra lekuz aldatu zituen, atzeratu ezineko gauzaren bat balitz bezala. Azkenean esan zuen, biratu gabe:

–Ni Mariskalarekin beti. Ez dut uste nik esan behar diodanik zer egin behar den; hari dagokio guri esatea, eta guri hark esana egitea. Horra zer den nire iritzia.

Biratu zen, bulegoko mahaiaren atzera joan zen, eseri zen. Ezpain lodiak mugitzen ari zitzaizkion bibote gorrituaren azpian.

Eztula egin zuen.

–Eta –esan zuen azkenean–, galbanotipografia ondo?

–Ba... –esan zuen Paarsek–, nik ez daukat dagoeneko nire lantegia, hogeita hemezortziaz gero. Judu baten amarruak, beti bezala. Baina (begi-kliska bat egin zuen) ez dio poz handirik ekarriko... Hortaz –esan zuen, jaikiz–, esandakoa? Zure izena jarriko dut.

–Egon, egon –esan zuen Vendressek–. Juduek kakagura ematen didate, noski. Baina...

Betaurrekoak kendu zituen, garbitu zituen. Begiak txiki-txikiak zituen, betaurrekorik gabe. Berriro jantzi zituen.

–Badira juduak Elkartean; ezagutzen ditut batzuk. Lastima da.

–Gerran aurreko puntan egon baziren –esan zuen Paarsek, mespretxuzko keinu batek bi ertzetan dardara egiten zion barre gisako batez–, besterik egin ezin zutelako. Ez sentimenduengatik, adiskidea.

–Bai, bai, jakina –esan zuen Vendressek–. Baina, nik nahiago itxaron. Mariskalak...

–Zer, Mariskalak? A, bai, esan omen duen hori: “Baziren juduak Verdunen...”. Ez zara txantxetan arituko: zuk aurrez jakinarazten diezu zure bezeroei, ziria sartu nahi diezunean? Tira, tira, erabaki: izena ematen duzu ala ez duzu ematen?

–Ba ez, begira, ez dut emango –esan zuen Vendressek.

–Ederki –esan zuen Paarsek–. Ezin zaitut behartu. Pentsatu. Ez nuen uste juduak gogoko zenituenik.

Vendressek esan zuen, bizi-bizi eta ernegatuta bezala:

–Ez ditut gogoko –gero, ahots bareago batez, zalantza pixka batez–: baina gogaitu egiten nau... Pétainek esaten digunean...

–Zaude lasai: ez duzu luzaro itxaron beharrik izango.

Paarsek hitz batzuk trukatu zituen oraindik Vandresserekin, jendetasunezkoak, helbururik gabeak, eta alde egin zuen.

Vendresse luzaro egon zen bere bulegotxoan hara eta hona. Azkenean berriro lantegian sartu baino lehen, azken begiratu bat egin zion hormaren erdian zegoen Mariskalaren kolore naturaleko erretratuari. “Gorroto ditut gezurrak...”.

Sartu eta Dacostari begiratu zion; jakinarazpenak ari zen pasatzen pedalezko prentsatik.

Lantegian ere bira batzuk egin zituen, bere patrika pipa mitiko baten bila arakatuz. Ezpain lodiak mugitzen ari zitzaizkion. Dacostari begiradak egiten zizkion zeharka.

Bukatzeko, ez zion ezer esan.

\* \* \*

Dacosta gerra baino lehentxeago ezkondua zen. Aurki hiru urte betetzekoa zen seme bat eta hogeit hilabeteko alaba bat zituen.

Montparnasseko hilerrira jotzen zuen etxe apain, garbi eta eguzkitsu batean bizi ziren, Froidevaux kalean. Igandean pozez hartzen zuten Vendresse, elkarrekin bazkaltzeko. Leiho aurrean, bazen terraza gisako zertxo bat, zinkez estalia, burdinazko itxitura batekin. Eguraldi ona egiten zuenean, han hartzen zuten kafea Vendressek eta Dacostak. Ados zeuden hilerri bat ez dela gauza tristea.

Igande batean, hamaikak inguru horretan, Vendresse bizarra mozten ari zen, abiatu baino lehen; atea jo zuten. Paars zen. A, ez hartzeko lanik, bukatzeko bizarra moztea: pasabidezko bisita besterik ez zela, berriketa pixka bat egiteko, horra.

Paarsek alde bateko zuntza ageri samarrean zuen larruzko besaulkian pausatu zuen bere ipurdi gizona, patxada ederrean. Beso lodiak non jarri ez zuen asmatzen oso ondo, itxuraz. Kokospe guri, zaldarrez betea, ez zitzaion kabitzen tximeketa-korapilo batek dotore-dotore apaintzen zuen lepo almidoiztatuan. Begi bitxi samarrak zituen, betazalen barruan gaizki kokatuak, platuxa batenak bailiran.

–Zer –esan zuen barre eginez–, judututa oraindik ere?

Vendressek purrustada bat edo barrea, edozer izan zitekeen zerbait egin zuen xaboi-aparraren azpian.

–Ikusi duzu, ezta, Mariskala –jarraitu zuen Paarsek–; e, zer esaten nizun nik? Ikusi dituzu Vichyko legeak?

–Pétainek ez du egiten berak nahi duena –esan zuen Vendressek–. Lege horiek, berak ez zituela onartzen, esan omen du, dirudienez.



–Baita zera ere –esan zuen Paarsek–. Begiratu hau: ezagutzen duzu?

Botoi-zuloa erakusten zion. Vendressek gerrako aizkora zela ikusi zuen.

–Hau ez du nahi duenak –esan zuen Paarsek.

–Jende handien artean zabilta? –galdetu zion Vendressek.

–Pixka bat bai. Kobrearen banaketan nago, egon. Grandetek jarri nau horretan. Ezagutzen duzu? Ez? Zuk ere bazenuen aukera: buruetakoa zen Verdungo Beteranoetan, eta baita Deloncleren ligan ere, badakizu (barre egin zuen), sinarkia, la Cagoule, beraiek dioten bezala... Mariskalari nire izena aipatu zion. Esan beharra dago ondo ezagutzen dudala inprimeriaren egoera, ikuspegi politikotik, jakina. Eta Grandetek operazio handiak egiten ditu, gainera, kobrearekin, eta nik lagundu diezaioket. Laburtzeko, zure Mariskal hori, ikusi dudala. Grandetek esana zion, nik banituela ideia batzuk, lanbide honetako gai handiak deszentralizatzeari buruz... Juduez ere hitz egin nion, ikusten, eta... Nik esan nion: “Triskilatu egin behar dira, horiek”. Eta hark: “Zuk dakizu zer egin behar den zure alorrean”. Nik esan nion: “Zurumurrua dabil, Mariskal jauna, babestu egiten dituzula pixka bat, gerran soldadu izandakoengatik”. Irribarre egin zidan, ohi duen bezala, badakizu: begi bat zertxobait kliskatuz. Eta esan zuen: “Sentsibilitate publikoa zaindu beharra dut nik. Jende guztia ez da iritzi berekoa Frantzian. Nik ezin dut esan nire iritzia mugarik gabe. Egoera zaila da nirea”. Eskua bizkarrean jarri zidan, bai jauna. Lagun zahar bati bezala. Eta esan zidan: “Jokatu beti Herriaren onerako. Eta zure ondoan izango nauzu beti”. Ikusten duzu, bada. Beraz, eskrupulurik baldin bazenuen...

–Ba, adiskidea –esan zuen Vendressek–, horrek ez du ezer esan nahi, nik uste. Pentsa liteke... uste izan liteke... Azkenean, animua eman dizu, animurik eman gabe, baina animua eman ez aldi berean. Ez dago batere garbi, hori.

–Zuk zer behar duzu, bada!

–Hori baino gehiago, bai horixe. Edozer gauza esan nahi lezake hark esan dizunak; zer nahi duzun, huraxe.

–Nolanahi ere –esan zuen Paarsek zakar, ia bortitz samar– “Zuk dakizu zer egin behar den zure alorrean”, hori behintzat garbi esan zidan. Beraz...

Azkeneko hitz hori eskuaren keinu arin, estu eta erabakigarri batez lagundu zuen.

Bere jaka-barnekotik bi zigarro puru atera zituen, bat Vendresseri eskaini zion. Hura pizten zuten bitartean, mutiko zintzoaren irribarre gisako batek areago zabaldu zuen Paarsen aurpegi zabala.

–Beste gauza batez ere hitz egin nahi nizun. Badut interesa mutil gazte batekin... Hamasei urte ditu. Oraintxe aterako da eskolatik. Ama... ba, beste batean esplikatuko dizut. Nire lantegiko daktilo gazte bat, nik zera... Ba, hori, haur hori izan zuen; etorkizuna segurtatu nahi nioke. Eta pentsatu dut...

Jaka gainera erori zitzaion errauts pixka bat behatz erakusleaz kendu zuen. Kontu handiz hazka egin zuen oihalean.

–Zure lantegian jardutea, horixe komeniko litzaiokeela iruditu zait. Areago, gainera...

Mutiko zintzoaren irribarrerik zabalena eskaini zion Vendresseri.

–Zu mutil zaharra zara, aurki hartuko duzu erretiroa. Ikusten duzu zein ongi etorriko litzaizukeen.

Vendressek betaurrekoak kendu zituen, garbitu zituen; bere sudurtxo arrosaren puntan jarri zituen berriro.

–Bai, bai, ulertzen dizut –esan zuen–. Baina...

Jaiki zen, gela barreneraino joan zen propagandako errauts-ontzi baten bila, bien arteko mahai gainean jarri zuen, eta han astindu zuen bere zigarro purua.

–Jakinean egongo zara, noski, ez nagoela bakarrik?

–Jakina, jakina –esan zuen Paarsek.

Emekiro ferekatzen zituen zaldarrez eta hautsez tantokatutako masailak. Esan zuen:

–Dacosta hori, judua da, ezta?

–Ez, ez da –esan zuen Vendressek.

Soseguz hitz egiten zuen. Bere besaulkian hondoraino sartuta, geldi-geldi zegoen, zigarroari ahokada geldiak kenduz.

–Izen horrekin? Harritzekoa da –esan zuen Paarsek–, nik uste nuen... eta ez al... Ez al zuten Italiatik bota, bere garaian?

–Bai, aspaldi. Baina horiek bere kontuak dira. Hemen oso ongi portatzen da. Eta oso pozik nago berarekin.

–Ongi da, ongi da, hainbat hobeto –esan zuen Paarsek.

Bizpahiru ahokada hartu zituen, hitz egin gabe.

–Hainbat hobeto, hainbat hobeto –errepikatu zuen–. Lastima da. Eta amorrua ematen dit. Mutila zail samarra da inon sartzeko, gauza batzuetarako atzeratu samarra da. Eta ama hor ari zait... Bai, zurea bezalako negoziotxo bat, horixe bai letorkiokeela ederki. Baina, utz dezagun. Zuk zure Dacosta hori estimatzen duzunez.

Zigarro puruaren muturra errauts-ontzian zapaldu zuen, eta irribarre eginez gehitu zuen:

–Badakizu zer ari zaren egiten, ezta?

Vendressek ere irribarre egin zuen, eta amore eman gabe eutsi zion platuxa-begien begirada kezkarriari.

\* \* \*

Berandu samar iritsi zen Froidevaux kalera. Ez zen oso berriketatsu egon; bitartean Dacosta andrea pertsona nagusien mahaiak eta haurtxoen eskariez arduratzen zen. Vendressek maiz begiratzen zion. Haren aurpegi finak, irribarretxo lotsatzeko ezpainekin, bere begi beltz sakon, ia beti busti samarrekin, halako aita-samurtasun bat eragiten zion betidanik. Gaur, hala ere, inoiz baino hauskorragoa iruditzen zitzaion aurpegi hura.

Bazkaldu ondoren, Dacosta andreak bakarrik utzi zituen bi gizonak zinkeko terrazatxoan. Isilik egon ziren erretzen. Udazkeneko laino arin batek malenkonia eguzkitsu batez lausotzen zuen hilerria. Dacosta ugazabari begira zegoen, hura bere zigarroaren keari begira. Dacosta andrea etorri eta kafea atera zien. Berrito alde egin zuen. Isilik edan zuten. Dacostak zigarro bat prestatu zuen. Vendressek pipa bete zuen, arreta handiz.

–Badira alu galantak lur honetan –esan zuen azkenean.

–Bai... –esan zuen Dacostak, eta ez zuen gehiagorik erantsi.

Vendressek pipa piztu zuen, pipakada sail bat eman zion, ondo pizteko. Esan zuen:

–Gaur goizean bertan ikusi dut bat; jota dago zeharo.

–A! –esan zuen Dacostak.

–Are eta aluago... –hasi zen Vendresse, baina Dacostak txantxa-girozkoa iruditu zezakeen begi batez begiratzen ziola ikusi zuen, eta ez zuen bukatu.

Eta Dacosta andrea etorri zen, gainera. Bi gizonen ondoan eseri zen. Solasa hiruren artean hasi zen berrito, adore gutxi samarrez.

\* \* \*

Ondoko egunetan, gutxi hitz egin zuen Vendressek. Aurrera eta atzera ibiltzen zen, gauzak ordenatzen. Lana atzeratzen hasi zen. Dacosta ez zen ohartzen, edo ezikusiarena egiten zuen.

Hurrengo asteko astelehenean, hamarrak inguruan, Vendressek bat-batean bere kapela jantzi eta lagun bat ikustera joan zen, Alesia kalera. Hartaz eta honetaz hitz egin ondoren, Vendressek esan zion:

–Zergatik atxilotu dute Whemer?

–A! –esan zuen besteak–, pentsatzen ahal duzu. –Vendresseri aurpegia gorritu zitzaion.

–Bai, bai, jakina... Baina esadazu zuk.

Ez zitzaion gustatzen Whemer hura. Paper-saltzaile xume bat zen, jakinarazpenetako paperetan espezializatua. Adin jakinik gabea. Zikin samarra.

–Ez zuen erabiltzen izarra. Bere paperak faltsutu egin zituen.

–Eta Fritzek harrapatu dute? –galdetu zion Vendressek.

–Bai zera.

–Frantsesek?

–Jakina. Esan beharra dago bezero asko zituela. Eta ez dira denentzat galduak. Ulertzekoa ere bada; zer nahi duzu, bada. Euliak bezalaxe borborka zebiltzan, *pollack* horiek guztiak. Badakit zuri ere ez zaizkizula askorik gustatzen.

–Ez –esan zuen Vendressek–. Baina horrek ez dio axola, gauza itsusia da, edozeinetara ere.

Passage d'Enferrera itzuli zen. Berrero gelditu zen Raspail bulebarrean, ongi ezagutzen zuen zerrenda beltz batez inguratutako afixa gorriaren aurrean: bahituran fusilatutako hamar komunisten eta beste horrenbeste juduen izenak agertzen ziren han.

Dacosta bere kaxan ari zen; publizitateko orri bat ari zen konposatzen, eta muturtuta zebilen, Mariskalak deituta presoan alde egiteko manifestaldi baterako zelako. (Goiz hartan bertan eztabaida bat izan zuten haren kontura). Vendressek geldiro kendu zituen kapela, berokia; eta eskuak patriketan zituela ondoratu zitzaion, bere hanka txikien gainean balantza eginez. Eztula egin zuen.

–Ba, aizu...

Dacostak begiak jaso eta kezka eta beldurra samurtzeko moduan ageri ziren on-aurpegi biribilera begiratu zion. Irribarre egin eta esan zion:

–Zer, gertatu da? Ospa egin beharra dut?

Vendresse arnasarik gabe geratu zen. Ahoa zabaldu zuen, eskua jaso zuen, ez zuen ezer esan. Dacosta bere lanera itzuli zen berrero, lasai-lasai.

–Ez zenuen bada usteko ez nekiela zer ari zen egosten... –esan zion—. Ez al nekien bada, lehenengo egunetik bertatik, honela bukatu behar genuela? Zu, zure Pétain horrekin...

–Utzi Pétain bakean –esan zuen Vendressek—. Pétain ez da honetan sartzen. Hark ez du errua alu hauek...

–Ez gara mokoka hasiko berrero agure kaskagor horrengatik –esan zuen Dacostak—. Ongi ulertzen badizut, airea osasunerako kaltegarri bihurtu zait hemen niretzat?

–Beldur naiz, bai. Paars zerri hori alu zital bat da. Eta ni ergela galanta: izena judu gisa emateko aholkatu nizun, eta begira orain...

–Zaude lasai: okerrago ez naiz egongo. Denoi iritsiko zaigu, egia esaten dizut, lehenago edo geroago. Baliteke hobeto izatea, gainera, orain okertzea gauzak niretzat; geroago okerrago izango litzateke agian.

–Paarsek bere daktilografoari egin zion eta semetzat hartu nahi ez duen atzeratu batentzat nahi du zure lanpostua; ez daki zer egin hartaz, inork ez baitu horrelako zaborrik nahi. Eta garbi ulertu diot, gainera, nahita edo gogoz kontra, prezio on batean erosi nahi didala lantegia, geratzen zaizkidan ileak bere ergel horri lanbidea erakusten zuzitzen zaizkidanean. Eta hori dena, legeak gorabehera, nirekin lanean eduki zaitudalako. Harrapatuta gauzka.

–Zer egingo dugu, hortaz? Itxiko dugu?

–Ez –esan zuen Vendressek—. Ixten badut, Paarsek hartuko du lantegia. Eta ez du hartuko, bada, ez ni bizirik naizen artean behintzat. Zuk ihes behar duzu. Moldatuko naiz, zu gabe, behar den denbora guztian. Oraintxe atera bazina bezala utzi zure gauzak. Adiskidea, egon seguru: zuretzat izango da lantegi hau, zuretzat eta zure semearentzat. Alferrik ibiliko dira Fritz edo judu guztiak.

Dacostak beso artean hartu eta besarkada bat eman zion. Eta esan zion:

–Lastima da, hala ere...

–Zer?

–Zu hain tipo jatorra izanda, hain erraz engainatzen uztea.

–Nork?

–Tartufo horiek. Tartufo nagusiak lehendabizi; ez dut izenik esango une eder hau ez hondatzeko. Une ederra da-eta. Azkeneko une ederra, beharbada. Tira –esan zuen–, orri hau bukatuta utziko dut behintzat. Gero nire fardelak prestatzera joango naiz.

Bere kaxarantz biratu zen. Vendressek esan zion.

–Erakutsi dokumentazioa.

–Dokumentazioa?

–Bai, nortasun-agiria.

Dacostak luzatu egin zion. Vendressek begiratu zuen eta esan zion:

–Beste bat behar duzu. Honekin, eskualde libreetan ere arazoak izango dituzu.

Dacosta zain zegoen. Irribarrea ateratzeko prest zeukan ezpainetan, baina eutsi egiten zion.

–Amorratzen nau hau egin beharrak, gorroto dut –esan zuen Vendressek–, baina berria egin behar dizut. Bai, amorratzen nau, amorratzen nau. Paars alu hori ez balitz...

Kaxatxoetan atzaparka ari zen, letren bila. Ereduarekin alderatzen zituen. Dacostak irribarrea agerian zabaltzen utzi zuen. Vendressek ahopeka errepikatzen zuen: “Amorratzen nau. Faltsutzaile bihurtu, nire adinean. Eta azkenean garbi dagoen Frantzia batean. Amorratzen nau”. Haren behatz lodikoteek arin zerabilten konposizio-erregela. Dacostak esan zuen:

–Baina zigilua, zer?

–Dios, egia da-eta, zigilua.

–Ez kezkatu –esan zuen Dacostak–, badakit non jarriko didaten.

–Zigilu faltsua?

–Bai, zigilu faltsua.

–Baina, hortaz, dokumentu faltsuak...

–Asmatuko dut non bilatu, bai. Baina poztuko nintzateke, ikaragarri poztu ere, zuk egindako bat edukita.

Irribarrez ari zen oraindik. Vendresse gorritzen hasi zen, behatzak zalantzan ari zitzaizkion.

–Hurrez arduratuko zara? –esan zion bat-batean Dacostak. Ez zen irribarrez ari. Begiak triste zituen.

Vendresseren behatzek lanari ekin zioten berriro.

–Bai. Badakizu hori. Lasai joan zaitezke.

–Lasai... –esan zuen Dacostak–. Haiek ere juduak dira, eta ama ere bai. Pentsatzen ari naiz...

Vendressek begiratu eta esan zion:

–A! Hori behintzat ez!

–Lehen ere huts egin duzu –esan zion Dacostak.

Vendressek isilik bukatu zuen bere lerroa. Ezpain lodiak mugitzen ari zitzaizkion. Eta esan zuen, marmarka:

–Huts egin, huts egin, Paars zerri hori bezalako alu bat topatzeko zoritxarra gertatu delako, hori izan da. Zu burutik zaude. Emakume bat, haurrak! Sinets iezadazu, eta zoaz lasai: Zaharra hor dagoen bitartean...

–Hura hor dagoen bitartean, ni ez naiz bakean egongo, ez horixe. Baina zu, arduratuko zara zu haiez? Ez diezu utziko gaitzik gertatzen?

–Sasoian eta musugorri aurkituko dituzu, hitz ematen dizut. Orain, zoaz. Nik eramango dizut dokumentazioa etxera. Zuk alde egiten duzunean, ni geratuko naiz zure emaztearekin.

Dacostak ugazabari begiratzen zion. Begiratu egiten zion. Behatz batez behin eta berriro igurzten zuen bibote laburra. Tik arin batek uzkurto zion ezpain-ertza bizpahiru aldiz, ezkerreko eskuak halako etsipen lauso bat inskribatzen zen biribil estu eta malgu bat marrazten zuen bitartean izterraren parean. Vendressek hori dena ikusi zuen, eta zertxobait zurbildu egin zen. Dacostak irribarretxo bat egin zuen, hala ere. Vendressek ere irribarre egin zuen.

–Ongi da –esan zuen azkenik Dacostak–. Funtzionatuko du.

Bizkarra eman eta atera egin zen.

Vendresse marmolaren gainean eseri zen, hankak zintzilik, kokotsa eskuen artean.

## II

Nola bururatu ote zitzaion niregan laguntzarik aurkituko zuela? Ez dakit. Lehenago beti Dacostaren alde jartzen nintzelako, bere kontra; beharbada. Kontua da, nire atea jo zuela goiz hartan. Haren begiak!

Vendressek begiak urdinak ditu; begi urdin xaloak. Goiz hartan beltzak zeuzkan. Nola zitekeen ez dakit esplikatzeko. Ongi begiratu gero, urdinak ziren, beti bezala; baina beltzak zirela ziruditen.

Halaxe esan zuen, tanpez:

–Panfletoak inprimatu nahi ditut.

Eseri eta putz egin zuen, eta belaunak igurzten hasi zen.

–Hara –esan nion nik–, hauxe gauza berria.

Hark, ahots bitxi batez:

–Bai, hauxe gauza berria.

Pentsatzeko denbora hartu nahi nuen. Esan nuen:

–Ederra egin behar duzu! Zu bezalako aspaldiko leialetako batek? Pétain-salbatu-Frantzia, Mariskala-hemen-gauzkatzu, Goazen-buruzagiaren-atzetik, Frantzia-frantziarrentzat besterik ez zuen batek? Ongi entzun dut, ala belarrietako burrunba izan da?

Ez zuen ezer esan. Hantxe zegoen, lasai, geldirik, kezkarri samar, niri begira. Begiak beltzak zituen. Erabakia hartu nuen.

–Panfletoak –esan nion–. Ederki. Egin daiteke zerbait. Badakizu zer arrisku hartzen duzun?

–Bai –esan zuen.

–Oi! –zehaztu nion–, ez da fusilatua izateko arriskua bakarrik. Galdeketa egitekoa ere bai, nire izena, edo beste batzuen, emateko, adibidez.

Zalantza pixka bat egin zuen, eta esan zuen.

–Zer egiten dizute?

Nire besaulkian atzera etzan nintzen, eskuak eta belaunak nagi gurutzatuz. Esan nuen:

–Ba, begira, azkazal azpian egur-ziritxoez ziztatu eta su eman, adibidez. Edo eskua geldiro-geldiro xehatzen dizute, prentsa batean sartuta. Edo horrelako gauzak. Edo bi edo hiru egunez segidan egiten dizute galdeketa, etengabe, itsutzen zaituen argi baten azpian. Edo...

–Aski –eten zuen, eta gogoetan ari zela zirudien.

Esan zuen: “Ni minbera samarra naiz, ez naiz oso kementsua. Baina, hala ere, uste dut...”. Ate gainetik begiratu zuen, zerbaiten bila ariko balitz bezala. Esan zuen: “Argiarena, noski... Hiru egunez begien aurrean...”. Hots bitxi bat egin zuen, bere ezpain lodiez. “Ia itsutu behar duzu, ezta?”. Esan nion: “Baietz egingo nuke”. “Eta, a zer buruko mina, Jaungoikoa?”. Buruko min handiak izaten zituela gogoratu nintzen, eta ulertu nuen zergatik kezkatzen zuen argien ideia hark (ongi ezagutzen zuen oinaze hura). Hozbera zela gogoratu nintzen orduan, eta esan nion: “Eta ur izoztutan sartzen zaituzte, behin eta berriro, ordutan eta ordutan”. Geldiro esan zuen: “Ur izoztutan...”. Burua mugitzen zuen, begiak noraezean zituela. Begiratu zidan, eta serio esan zidan: “Ongi, ongi, ongi...”. Nik leunki esan nion: “Eutsiko diozu?”. Haren begiak urdinak iruditu zitzaizkidan. Esan zuen: “Eutsiko diot”. Jaiki nintzen. Begiratu egin nion:

–Zer gertatu da?

Eztanda egin zuen. Aurpegi-aurpegian jo izan banu bezala. Gorritu egin zen, zurbildu gero. Jendeak, bihotzean bala bat sartu diotenean, lurrera erori baino lehen jartzen omen duen harridurazko itxura horrekin begiratzen zidan. Ahapeka esan zuen azkenean, begiak lurrera begira:

–Eraman egin dituzte. Haurrak eta emaztea.

–Dacostarenak?

Buruaz baietz egin zuen, eta begiak nireganantz jaso zituen.

–Dacostarenak. Dacostaren emaztea eta haurrak. Haurrak alde batetik, ama bestetik. Amak bere burua leihotik behera bota nahi zuen. Ez diote utzi. Nik...

Belaunei heltzen zien. Haren begiak nireetatik zintzilikatu ziren. Tinta bezain beltzak iruditu zitzaizkidan berriro.

–Astopittoa. Astopittoa galanta. Sinistu egin diet gaizkile horiei guztiei. Dacostak abisatu zidan. Abisatu zidan, abisatu zidan. Banuen... obligazioa nuen... obligazioa...

Jaiki eta gela hara-hona neurtzen hasi zen. Argitan ikusi nuenez, bizarra moztu gabe zuen; ezin sinistuzkoa harengan. Lepoaren alde bat igurzten zuen, geldiro eta astun, gorritzeraino. Malkoak jausten zitzaizkion, banan-banan, sudurrean behera; bibote lodian galtzen ziren. Barregarria zen, eta patetikoa.

–Etxetik atera izan banitu, edo nire etxera ekarri lotarako, edo beste edozer gauza. Baina ez nuen sinesten. Nola sinetsi, izan ere, Dios...

Bat-batean niregana itzuli zen:

–Badakizu zer erantzun didan?

–Nork?

Bekainak jaso zituen eta esan zidan: “Bai, jakina...”

Berriro ibiltzen hasi zen, ispiluaren aurrean gelditu zen, bere buruari begiratu zion, bere aurpegia malkotan ikusi zuen, eta barrez hasi zen. Lazgarria zen.

–Nirera etorri ziren lehendabizi, herenegun, ez, orain dela hiru egun. Hura saltsa! Nire berunak hortik zehar, dena oinpean. Zeren bila? Suntsitzeko gogoia, besterik ez.

–Nork? Berde-grisak?

–Bai zera!... Esaten zidaten: “Zuk, Verdungo Beterano batek!”, kakaumeak ziren; eta nik esan nien: “Zuek zer ikusirik duzue Verdunekin?”. Haserretu egin ziren: “Gu Mariskalaren zerbitzuan gaude!”. Nik esan nien: “Ni ere bai” Eta esan zuten: “Ez du ematen! Non dago judu hori? Urruti ez da, bere gauzak hemen ditu-eta”. “Bilatu”, esan nien. Gazteenak, ilea eskuila moduan moztuta zuen pikortaz betetako txikitxo batek, esan zuen: “Bost axola, gainera. Bera harrapatzen ez badugu, emaztea eta umeak eramango ditugu”. Barre egin nion. “Egin aproba”, esan nion.

Begira gelditu zitzaidan. Sudurtxoa, betaurrekoen azpian, gorria zuen.

–“Egin aproba”, esan nion –errepikatu zuen, eta begiratu egiten zidan–. Eta txantxetan ari nintzen –esan zuen bortizki, eta hortzen karraska entzun nion–. Tournier, Verdungo Beteranoetako idazkaria oso ongi ezagutzen dut-eta –eten bat egin zuen, eta berriro esan zuen–: Oso ongi ezagutzen dut Tournier –ahots sor batez, irri-murrika, ja, ja batzuk egin zituen, lehor, bizkor, erdi-barre erdi-haserre. Burua mugitzen zuen–. Salto batean joan nintzen hara, segituan –esan zuen–. Dacostaren dossierrarekin: Verdun eta gainerako guztiak. Gertatutako guztia bota nion, eta esan nion: “Hura bezalako soldadu zaharra, gehiegitxo ere izango litzateke, ezta?. Ez da arriskurik izango, horixe behar



dugu?” Irribarrez esan zidan: “Ez, ez, oraintxe konponduko dugu hori”. Eta hala, biharamunean, ezer ez. Atzo, ordea...

Gelditu egin zen. Bizkarra ikusten nion. Bizkar handi, zabal, on huts bat, konkortu samarra. Ez nizkion eskuak ikusten, baina besoen mugimendua ikusita, estutzen eta askatzen ari zela sumatzen zitzaion. Zaldiaren mugimendu batez jaso zuen burua (kokote lodi, arrosa-koloreak txitxi-kuxin bat egin zion) eta sudur-hurupada bat entzun nion. Berriro burua erortzen utzi, eta mahaian bermatu zen. Bizkarra ematen zidan oraindik. Amorru eutsizko, zotin isilduzko mugimendu errepikatu batez jotzen zuen idazmahaia ezin itxi zuen ukabilitxoaz.

–Okindegiko andre xaharrak... –hasi zen esaten, baina ahotsa eztarrian ito zitzaion, eta zintz egin behar izan zuen (ondo abere bitxiak gara: hain barregarri zegoen bere sudurtxo gorritik puzka, non, bai, kosta egin baitzitzaidan irribarrerik ez egitea. Eta bihotza estuturik nuela, hori)–. Ate joka ari zitzaidan –jarraitu zuen–. Goizeko zazpitan, aizu! Esan eta esan ari zen: “Vendresse jauna! Vendresse jauna! Badaramatzatela!”. Eta nik oihu egin nion: “Nor?” Baina ez zuen erantzun beharrik izan: kolpetik jaiki nintzen ohetik. Artean ilun zen. Baina jantzi behintzat egin behar nuen! –esan zuen itsustuko ote nion beldur balitz bezala. Begiak ezker-eskuin joaten zitzaizkion; Souverbieren koadrotxo batean gelditu ziren, hiru emakume antzinako modura, hiru emakume lotan; halako sosegua darie arrasto soilei, non betierekotasunera iristen baita, heriotza bezain atsedengarri ikusten da. Vendressek koadroari begiratzen zion, ikusi gabe seguru asko; haren ezpaineak dardara egiten zuten bibote gorrituaren azpian. Bazirudien zalantzan zegoela espazioaz eta denboraz gaindiko sosegu hura gantzua ala sufrikarioa zen bere arima oinazetuarentzat.

–Berandu iritsi nintzen, jakina –esan zuen–. Haurrak eramanak zituzten dagoeneko, Jainkoak daki nora. Ama... –eztul arraro bat egin zuen; min egin zidan: zotin eta oihu eutsiz betetako algaratxo bat–. Oihuka ari zen; aurpegian jotzen zuten isilarazteko. Lasterka joan nintzen, oihuka, baina... –kokotsa jaso eta urdinez eta arrez inguratutako ubeldu bat erakutsi zidan– espaloi-ertzean esnatu nintzen. Autoak joanak ziren dagoeneko. Pikortaz betetako txikitxo beltzarana iseka eginez zegokidan begira. “Ikusi, egin dugu aproba”, esan dit; beste zerbait ere esan zuen alemanez, eta harekin ziren bi Fritzek ere barre egin zuten. Hantxe utzi ninduten. Jendeak jaikitzen lagundu eta farmaziara eraman ninduten. Ez zuten ezer esaten. Inork ez zuen ezer esaten.

Bat-batean hain nekaturik zirudien, non eseri egin behar izan baitzuen. Nire besaulki sakon baten ertz-ertzean eseri zen, egiazko atsedetik hartu ezin balu bezala.

–Verdugo Beteranoetara joan nintzen korrika, jakina. Eta, jakina, inor ez. Tournierrik ez, jakina. “Kanpoan da, bidaian. Jakinaraziko dizugu”. Nik esan nien: “Lehendakaria ikusi nahi dut”. Begiak biribil-biribil jarri zitzaizkien: “Lehendakaria?”. “Lehendakaria, bai, Lehendakaria!” esan nien, oihu egin nien. Ahaztuta neukan nor zen Lehendakaria, benetan: ahaztuta neukan Zaharra zela. Eta gero gogoratu egin nintzen. Oihuka jarraitu nuen, norbait ikusi behar nuela, berdina zidala nor, arduradunen bat. Gela batera eraman ninduten. Ordu erdi bat, ordubete itxaronarazi zidaten, ez dakit zenbat. Dena txiki-txiki egiteko nengoen. Azkenean tipo bat etorri zen, nahigabeturik zirudien, oso zeremoniatsu eta nahigabeturik. Dosierra atera nuen, murduska ari nintzela uste dut. “Bai, badakit, Tournier jaunak esan zidan”. Eskuak jaso zituen, atsekabetu-itxuraz: “Ez dago zer eginik”. Ni oihuka hasi nintzen berriro; hark: “Ixo... ixo...”, eta azkenean papera atera zidan. Kosta egin zitzaidan ulertzea. Tipoak esplikatzeko zidan, baina ez nion ulertzen. “Ikusten duzu, ezin dugu guk hartu horren ardura”, esaten zidan. Haren

behatzak esaldi bat azpimarratzen zuen, esaldi bera beti, baina hitzak ez zitzaizkidan sartzen buruan. *Aipatu legeak dioenaren arabera, judu arrazakoak diren Elkarteko kideak hartatik ezabatuak izango dira, erabat. Horren ondorioz, bada, ezingo dute, 1. arrazoitzat eman...* Ulertu nuen azkenean, eta orria itzuli nuen, sinadura ikusteko. Lehendakariaren sinadura. Hantxe zegoen, sinadura. Hantxe zegoen". Oihuka esan zuen: "Hantxe zegoen!" eta bat-batean goibeldu zitzaion ahots batez: "Horra". Berrito errepikatu zuen: "Horra. Horra" –ahoa okerturik zuela jaso zuen aurpegia nireganantz, eta Pétain bera banintz bezala begiratuz, aurpegira esan zidan oihuka, azkeneko aldiz: "Horra!", eta bizkarra jausi egin zitzaion berrito, ukabilak begietan hondoratu zitzaizkion, eta ni leiho ondora joan nintzen, bakar-bakarrik negar egin zezan uzteko.

\* \* \*

Oso nahigabeturik nengoen. Pikutara zuhurtziak! Baina onik atera banaiz, eta nire inguruan inor atxilotu ez badute, zuhurtasun setati honi esker izan da, zalantzarik gabe. Atsekabegarria zen, baina esan beharra zegoen. Nahikoa zintz egin eta begiak xukatu arte itxaron nuen, eta esan nion:

–Adiskidea, lastima da, baina ezin izango da.

–Zer? –esan zuen

–Panfletoak –esan nion–. Ezin dituzu inprimatu panfletoak. Ulertuko duzu erreta zaudela. Kontu guztiak bilatuko dizkizute. Arriskutsua izango litzateke zuretzat, niretzat, denontzat.

Une batez begira gelditu zitzaidan eta jaiki egin zen. Espresio bitxi bat zuen aurpegian, lehendabiziko aldia zen halako espresioa ikusten niona. Ezezaguna iruditzen zitzaidan, nire Vendresse. Sosegu handiz esan zuen:

–Ederki. Ongi da, ulertu dut. Beste norabait joango naiz. Dacostaren lagunak ikustera joango naiz.

Oraingo honetan ezin izan nuen irribarre egitea eragotzi:

–Dacostaren lagunak, Vendresse? Boltxebike horiengana?

Ez zuen irribarre egiten, ez zuen barre egin, esan zuen:

–Bai, boltxebikeengana. Coninck-engana joango naiz.

Irribarre egiteari utzi nion; biziro esan nion:

–Ez!"

–Zergatik ez? –esan zuen Vendressek.

Ate-parean zegoen.

–Zatoz hona –esan nion–. Ezin duzu ez Coninck ez beste inor ikustera joan. Coninck barruan dago.

Isilune bat izan zen. Geldiro esan zuen:

–Coninck barruan dago?

–Bai –esan nion–. Aspaldi. Hiru hilabete bai, edo gehiago.

–Hiru hilabete... baina Dacosta...

–Jakina –esan nion leun–, zuri ez zizun esan. Ezin zizun esan zuri, garai horretan.

Aurpegia luzatu egin zitzaion. Zoritzarreko itxura jarri zitzaion, ezin sinetsizkoa. “A! –pentsatu nuen–, hainbat okerrago. Bilatuko dugu moduren bat, zerbait, gauzaren bat”.

–Entzun –esan nion ozen–, zu ez kezkatu. Ez zaitut bazterrean utziko. Zoaz etxera, eta itxaron. Bidaliko dizut norbait. Hitz ematen dizut. Baina ez egin ergelkeriarik.

“Egia baita –esan nuen berriro neure baitarako (aitzakia baten moduan). Hobe dut nire gerizpean eduki”.

\* \* \*

Premiak eta zirkunstantziek ideia asko ematen dizkizute. Berehala aurkitu nuen Vendresseri, arrisku handirik hartu gabe, ongi egokituko zitzaion “gauza”: dolu-jakinarazpenak. Lagunekin hitz egin nuen, eta oso polita iruditu zitzaigun ideia; era guztietako abantailak zituen gainera: panfletoak ongi banatuko zirela (nola egiaztatu behar zuen postetxeak egunero milaka eta milaka postara bidaltzen eta banatzen diren jakinarazpen horietako bakoitza?); Vendressek lehenengo hilabeteetan, pilatuta eduki behar ziren bitartean (geroago baizik ez baitziren banatuko) bere inprimerian lasai-lasai inprimatzeko aukera. Hogeita hamar eredu prestatu genituen; izena beti, letra handiz, eta azpian, letra txikiz, saltsa guztia... Ederki pasatu genuen lan horretan. Hiru hilabete horietan, beldur nintzen bezala, bi aldiz miatu zuten Vendresseren inprimaria. Ez zuten ezer aurkitu. Nahiz eta jakinarazpen-pakete mordoska bat izan han, egiazkoak eta gezurrezkoak. Baina inori ez zitzaion bururatu haiek irakurtzeko ideia bitxia.

Hiru hilabeteak bukatu eta hogeita hamar ereduetako bakoitzetik hamarka mila botatakoan, banatu behar genituen asteetan geldi-geldi eta isilik egoteko agindu nion Vendresseri. Hura bukatutakoan beste lan bat emango niola hitz eman nion. Lasai nengoen.

Labiche, nire harremanetarako bitartekaria, egunero etortzen zen, gertaeren berri ematera, nola zeuden gauzak taldearen barruan eta baita inguruan ere. Halako batean, berriematean, esan zuen: “A! Vendresse”. Esan nuen: “Zer?” Esan zuen: “Barrura eraman dute”.

Bihotza estutu zitzaidan. Paars bururatu zitzaidan segituan. “Salaketaren bat?”, galdetu nion.

–Seguru asko –esan zuen Labichek–, baina berak ere ergelkeriaren bat egin duela uste dut. Pakete bila joaten zitzaizkionei hitzak atera nahi izaten zizkien, haiek esan didatenez. Jainkoak daki zer talderekin harremanetan hasi zen. Herenegun miatu zuten: Gestapo... Ergela izan behar, hirugarren aldia zuen, pentsatzen ahal zuen... Inprimaria panfletoz leporaino zegoen.

–Ez ziren gureak? –esan nion, txunditurik.

–Ez, ez ziren gureak.

Non zegoen arrastoa jarraitzea lortu genuen, espetxez hiru aldiz aldatu bazuten ere. Nik etxetik alde egin beharra izan nuen, jakina: ez nintzen fidatzen argiaz eta bainu hotzez.

Baina ez zuen ezer esan. Torturatu egin zutela jakin genuen, hala ere. Papertxo bat bidaltzea lortu zuen. “Zuhurra lasaitu dadila (ni nintzen hori). Ez naute menderatu. Proiektorearena txantxaren bat da: ez dut entzun ere horrelakorik. Bainuez, nik segituan galtzen dut konortea, zorionez. Hankako behatzak zanpatu zizkidaten: une honetan azkazalak erortzen ari zaizkit”.

Beste zazpi hilabetez Fresnesen eduki zuten. Gero, Alemaniara.

Beste bi aldiz izan genuen haren berri oraindik, 44an eta 45ean. Apirilean ikusi zuten azkeneko aldiz berekin zeudenek: esparrua husten ari ziren, ilaran. Izutzeko moduan argalduta. Arazoak zituen ibiltzeko.

Geroztik, ezer ez. Alemaniako bide-bazterren batean egongo da haren gorpu errukarria, zangaren batean.

Dacosta andrea Auschwitz-en gaseztatu zuten. Hurrei buruz, berririk ez. Hilik daude, zalantzarik gabe.

Aitari buruz ez dakit ezer ere. Cassino aurrean harrapatu zuten, nonbait, diotenez. Ikara ematen dit hura berriro ikusteko ideiak berak. Azaldu ez dadin nahi izatea ere gertatzen zait batzuetan. Gauza batzuetarako oso koldarra naiz.

Vendresseren inprimeria alkoholetan ustelduta zegoen tipografo batek hartu zuen, hura atxilotu zutenean. Badu aprendiz bitxi bat, buru handiegiko nerabe bat, basatia eta isila, aldian behin inguru guztia ikaratan jartzen duten haserrealdiak izaten dituen.

Askatasunaren ondoren, Paars hiru egunez atxilotu zuten. Baina oso izen oneko zenbait pertsonak haren sentimendu jatorren bermea eman zuten. 43az gero, dirutza handiak ordaintzen zizkien zenbait erakunderi. Oso aditua da, gainera, kobre elektrolitikoari dagozkion kontu guztietan. Zaila izango litzateke hura gabe ezer egitea. Kargu handia du Banaketako Bulegoan. Hark bai jakin, euria eta eguraldi ona, biak batera egiten.

*1945 abuztua.*